eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Characterisation of the phytoplankton community of the Urdaibai estuary: influence of anthropogenic nutrient loadings and analysis of monitoring techniques



Jone Bilbao Antolin

2024

Characterisation of the phytoplankton community of the Urdaibai estuary: influence of anthropogenic nutrient loadings and analysis of monitoring techniques

Jone Bilbao Antolin

2024

PhD Thesis

Director: **Sergio Seoane**

Department of Plant Biology and Ecology, Faculty of Science and Technology, University of the Basque Country (UPV/EHU)

Research Centre for Experimental Marine Biology and Biotechnology, Plentzia Marine Station (PiE-UPV/EHU)

Marine Environment and Resources PhD Program

Urdabai estuarioko fitoplankton-komunitatearen karakterizazioa: mantenugaien karga antropogenikoen eragina eta jarraipen tekniken analisia

Jone Bilbao Antolin

2024

Tesi Doktorala

Zuzendaria: **Sergio Seoane**

Landare Biologia eta Ekologia Saila, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Itsas Biologia eta Bioteknologia Esperimentalen Ikerketa Zentroa, Plentziako Itsas Estazioa (PiE-UPV/EHU)

Itsas Baliabideak eta Ingurugiroa Doktorego Programa

“The sun does not forget a village just because it is small”

African Proverb

AGRADECIMIENTOS

Como no podía ser de otra manera, quiero empezar dando las gracias a mi director, Sergio, por contar conmigo para meternos en este jaleo (y muchos otros) y por toda la ayuda en estos años. Por las horas de muestreo, filtraciones y Excel, que no han sido pocas, pero sobre todo por los ánimos y las risas, que han sido muchas más. Gracias por todo el tiempo que le has dedicado a esta tesis, a enseñarme sobre ecología y fitoplancton y, en especial, por las clases prácticas de gestión del tiempo, que en eso sí que eres *Full Professor*. Sin tu "optimismo" esta tesis nunca hubiera llegado a su fin, gracias por confiar en mí cuando yo no lo veía del todo claro.

Eskerrik asko a toda la gente de Leioa, mi equipazo de amigos, no solo compañeros, del día a día. Estitxu, "beti-prest", siempre al pie del cañón para lo que haga falta, ya sea ayudar en un muestreo, ser mi "Elhuyar" o traerme una croqueta de la cafetería, mila esker denagatik. Yago, menos mal que te tenemos para poner un poco de tranquilidad y cordura en el grupo, y para echar algún que otro baile o juego de mímica, por supuesto. Pablo, el formal del equipo y nuestro "chico para todo", eskerrik asko zuri ere. A Marina, por ser la alegría del labo y mi confidente, por el "zurracapote" y el "Andaeuskera", y por el artículo sobre "La revolución en la ciencia" que tenemos pendiente, ¡Eskerrik asko, illa! Y a los satélites, Alfredo y Paula, a los que no vemos a diario pero que están siempre presentes. Eskerrik asko a todos, "Phytoteam", habéis hecho que esta aventura sea mucho más bonita y llevadera, aunque organizando planes seamos un desastre.

No me quiero olvidar de algunas personas que también han estado presentes estos años. Esther, gracias por la compañía y la ayuda en mis inicios como doctoranda. Javi, muchas gracias a ti también, por ayudarnos a conocer mejor el estuario y tus consejos. A los TFG y TFMs que han ido pasando por el labo, Paula, Marie, Sara, Mario, Diego, Amini, Sergio Jr., y muchos más, gracias por el aire fresco y las risas, en especial a Marie, que también ha sido la artista que, con mucho mimo, ha diseñado la portada de mi tesis. Y, por supuesto, mila esker a Cristina Krug, mi capitana favorita y el mejor fichaje que podíamos haber hecho para esta tesis, contigo al timón no ha habido muestra que se nos resista.

I would also like to thank Christina Pavloudi, for introducing me into metabarcoding and being the best teacher possible. I arrived in Crete with fear but, thanks to your help and patience, I left enjoying metabarcoding and bioinformatics. Thank you also to the rest of the

team in the IMBBC-HCMR in Heraklion, for the warm welcome and the tips to survive earthquakes. What a journey!

A mis amigas y mi familia, que, de una manera u otra, han formado parte de esta etapa tan importante tanto a nivel profesional como personal. Sin saber del todo en qué consiste una tesis, y mucho menos el fitoplancton, me habéis empujado desde el principio hasta el final.

A mis amigas, a las de siempre, a las que se cachondean de mi cada vez que alguien dice alguna cosa relacionada con las algas o la ciencia. Eskerrik asko por 28 años de compañía, amistad, risas y juergas, ¡qué mayores nos hemos hecho! Los Kases de los viernes, que cada vez son menos Kases y son más Verdejos, han sido un chute de energía estos años. Eskerrik asko por el interés, aunque sigáis sin tener ni idea de lo que hago, por venir a mis muestreos y por hacerme sentir capaz de afrontar esto y mucho más. Mila esker también a mi kuadrilla adoptiva de Plentzia-Gorliz, por hacerme sentir una más siempre, por las risas y por los ánimos, y a much@s otr@s amig@s que, aunque no estén en el día a día, me han mandado fuerzas y se preocupan por mí.

Por último, gracias a los de casa. A ama y aita, eskerrik asko por animarme a afrontar esta y todas las aventuras de mi vida, por sufrir conmigo los disgustos y por celebrar cada logro, no sé cómo os voy a devolver todo lo que hacéis por mí. A Miren, por hacer la tontería necesaria en el momento justo, no hay mejor manera de que se me quiten las preocupaciones cada noche. A amama, que posiblemente sea la persona que mejor podría defender esta tesis, por la fuerza, los tuppers y por presumir de mí tanto como yo de ella. A Alaia, por entenderme y apoyarme en todo este proceso, y en muchos otros, y por hacer que los días malos fuesen menos malos, hacemos muy buen equipo. A osaba, izeko, Iker, Aitor y demás familia, gracias por los ánimos y la confianza. Eskerrik asko a todos los de casa por vuestro cariño, por vuestro apoyo incondicional, por cuidarme y por creer siempre en mí. Sois los mejores, qué suerte teneros.

ESKERRIK ASKO GUZTIOI, ¡HEMOS TERMINADO LA TESIS!

CONTENTS / EDUKIAK

LABURPENA

Fitoplanktona aztertzea ezinbestekoa da ekosistema urtarren funtzionamendu globala ulertzeko. Estuarioetan, fitoplankton-komunitateek denboran eta espazioan zeharreko aldakortasun handia jasaten dute, ingurumen-gradiente anitzen eraginpean baitaude. Gainera, mantenugaien gehiegizko aberaste antropogenikoa ingurumen-arazo garrantzitsu bihurtu da estuarioetan, bertako fitoplankton biomasari eta komunitatearen osaerari ere eraginez. Mantenugaiak eta fitoplanktona, estuarioen egoera ekologikoaren ebaluaziorako adierazle eraginkor eta oso erabiliak dira, eta presio antropogenikoen eraginen edo/eta kudeaketa-ekintzen eraginkortasuna ebaluatzeko ere erabili daitezke. Tradizionalki, fitoplanktonaren jarraipena egiteko mikroskopia erabili izan da, baina, azkenaldian, pigmentuen analisia edo DNA metabarcoding-a bezalako teknikak gero eta erabiliagoak dira.

Urdaibai estuarioak (Bizkaiko golkoko hego-ekialdea), Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) Biosfera Erreserba bakarraren parte denak, Gernikako hondakin-uren araztegiko isurketak jaso izan ditu 1972-tik. Araztegiak ez zuen hondakin-uren nitrogenoaren eta fosforoaren desagertze eraginkorra ahalbidetzen, eta, ondorioz, estuarioko eremu batzuek ez zituzten Europako Uraren Esparru Zuzentarauak (UEZ-ak) ezarritako ingurumen-helburuak betetzen. Honi irtenbidea jartzeko helburuz, saneamendu lanak egin ziren eskualdean eta, 2021ean, araztegiko isurketak estuariotik kanpo bideratzea lortu zen. Honenbestez, 50 urtetan zehar Urdaibai estuarioak araztegitik jaso dituen hondakin-uren isurketak eten egin dira. Estuarioko fitoplanktonari dagokionez, oso ikertua izan den arren, azken jarraipen intentsiboak 90eko hamarkadaren amaieran egin ziren.

Testuinguru honetan, tesi hau, jarraipen-teknika desberdinak erabiliz Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitatearen deskribapen osoagoa eta eguneratuagoa lortzeko helburuz burutu da, araztegiko hondakin-uren isurketak eteteak estuarioan izan dezakeen eragina zehazteko eta teknika ezberdinen erabilgarritasuna ebaluatzeko. Ikerketak, araztegiko hondakin-uren isurketak egon bitarteko (2019-2020) eta saneamendu lanen ondorengo (2021 eta 2022) fitoplankton-jarraipenen datuak biltzen ditu, non estuarioaren baldintza fisiko-kimikoak zein fitoplankton-komunitatea aztertu diren. Fitoplanktonaren azterketarako erabilitako teknikak mikroskopia, pigmentuen analisia eta DNA metabarcoding-a izan dira.

1. Kapituluan, hondakin-uren isurketak egon bitarteko (2019-2020) estuarioko fitoplankton-komunitatearen deskribapena egiten da, eremuan lehen aldiz mikroskopia eta eDNA metabarcoding-a konbinatuz, baita bi jarraipen teknika hauen konparaketa ere. *2. Kapituluan,* hondakin-uren isurketen eteteak estuarioko ingurumen-baldintzetan eta fitoplankton-komunitatean (pigmentuen analisiaren eta mikroskopiaren bidez) izandako berehalako eragina aztertzen da, denbora-eskala laburrean (2021eko uztailean zehar). *3. Kapituluan,* pigmentuen analisian oinarritutako fitoplanktonaren jarraipenerako tresna kimiotaxonomiko berri bat (*PIGMENTUM*) proposatzen da, ikerketa honetan zehar aurkitutako beharrizanak asetzeko sortu dena. Azkenik, *4. Kapituluan*, saneamendu lanek epe ertainera (urte batera) estuarioko fitoplankton-komunitatean izan duten eragina deskribatzen da, komunitatea saneamendu lanen aurretik (2020an) eta ondoren (2022an) alderatuz, HPLC pigmentuen *PIGMENTUM* analisia lehen aldiz aplikatuz.

Kapitulu ezberdinetan lortutako emaitzak ikuspegi bateratzaile batetik aztertzen dira *Eztabaida Orokorra* atalean. Oro har, lan honek baieztatu du, 2019-2020 bitartean, Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitateak esperotako denboran eta espazioan zeharreko aldakortasuna erakutsi zuela, 90eko hamarkadako ikerketekin antzekotasunak erakutsiz. Fitoplankton biomasa estuarioaren barneko eremura hurbildu ahala handitzen zen eta baliorik altuenak uda-udaberrian aurkitu ziren. Komunitatearen osaerari dagokionez, kanpoko eta erdiko eremuan diatomeoak ziren nagusi eta, barneko eremuan, gehienbat flagelatuak (batez ere kriptofitoak) gailendu ziren. Aldaketa hauek, gehienbat, gazitasun eta mantenugaien gradienteek eragin zituzten. Gernikako araztegiko isurketen desbideratzeak berehalako eragina izan zuen estuarioan, batez ere barne-eremuan nabaritu zena. Amonio eta fosfato kontzentrazioen beherakada nabarmena egon zen eta fitoplankton-komunitatearen osaerak aldaketak jasan zituen, izan ere, *Eutreptiella* sp.-aren hazkunde azkarraren ondorioz, *b* klorofilak aloxantina (kriptofitoen pigmentu diagnostikoa) ordezkatu zuen eremuko pigmentu diagnostiko nagusi gisa. 2022an, saneamendu lanak amaitu eta urte batera, amonioaren eta fosfatoaren beherakada nabaria izan zen estuario osoan zehar eta fitoplankton-komunitateak jasandako aldaketak nabarmenagoak izan ziren. Estuarioko kanpoko eta erdiko eremuan biomasa gutxitu egin zen, mantenugaien kontzentrazioen beherakadaren ondorioz, eta araztegiaren inguruan, ordea, biomasa handitu egin zen, ziurrenik araztegitik zetozen gehiegizko amonio kargek fitoplanktonaren hazkuntza mugatzen zutelako. Komunitatearen osaerari dagokionez, prasinoxantinadun prasinofitoek biomasa totalari egindako ekarpena handitu egin zen, batez ere estuarioaren erdiko eremuan. Gainera, estuarioaren barruko eremuan, flagelatuen nagusitasuna murriztu eta diatomeoek

biomasa totalari egindako ekarpena handitu egin zen, mantenugaien konposizio eta ratio aldaketei erantzunez, hau estuarioaren berreskurapenaren seinale izan zitekeelarik. Fitoplankton-komunitatearen karakterizazioa eta saneamendu lanekiko izandako erantzun ezberdinen ebaluazioa, mikroskopiaren (identifikazio taxonomikoa eta kuantifikazioa egiteko aukera emanez), eDNA metabarcoding-aren (bereizmen handiko identifikazio taxonomikoa ahalbidetuz) eta pigmentuen analisiaren (komunitatearen deskribapen kualitatibo eta kuantitatibo azkarra eskainiz) erabilera bateratuari esker lortu da. Gainera, tesi honek Urdaibai estuarioko espezie-aberastasunari buruzko informazio berritzailea eskaintzen du, eremuan eDNA metabarcoding-a jarraipen-tresna gisa lehen aldiz aplikatzeari esker, eta fitoplankton-jarraipenerako tresna berri bat (*PIGMENTUM*) proposatu eta aplikatzen du, eraginkorra dela frogatuz.

Honenbestez, ikerketa hau baliagarria izan daiteke etorkizuneko disziplinarteko azterlanetarako oinarri gisa, Urdaibai estuarioko baldintza fisiko-kimikoen eta, batez ere, fitoplankton biomasaren eta komunitatearen osaeraren datu eguneratuak eskaintzen baitira. Horrez gain, fitoplanktonaren jarraipen-tekniken erabilgarritasunari buruzko argibideak ematen dira, etorkizuneko uraren kalitatearen kudeaketan eta/edo epe luzerako jarraipen ekologikoko programetan aplikatzeko metodologia posible bat iradokiz, non bereizmen taxonomiko handia derrigorrezkoa ez den.

SUMMARY

Phytoplankton is an essential element for the global understanding of aquatic ecosystems. In estuaries, phytoplankton communities are subject to high spatial and temporal contrasts along numerous environmental gradients. Additionally, anthropic nutrient enrichment has become a major environmental issue in estuaries, also affecting estuarine phytoplankton biomass and community composition. Both nutrient concentrations and phytoplankton are accurate indicators for the assessment of the ecological status of estuaries, as well as for the assessment of the impacts of anthropogenic pressures and/or the effectiveness of management actions. Traditionally, microscopy has been used for phytoplankton monitoring, but several alternatives are arising lately, such as pigment analysis or DNA metabarcoding.

Urdaibai estuary (SE Bay of Biscay), part of the only Biosphere Reserve of the Basque Country, has been receiving direct discharges from the Gernika wastewater treatment plant (WWTP) since 1972. The WWTP did not allow the efficient removal of N and P, and consequently, some areas of the system did not fulfil the environmental objectives set by the European Water Framework Directive (WFD). However, sewerage works were implemented in the area, diverting the effluent of the WWTP outside the estuary in 2021. Therefore, the wastewater discharges that the Urdaibai estuary received during five decades have disappeared. The latest intensive phytoplankton monitoring in the area, however, were in the late 90s.

In this context, this thesis aims to obtain a more complete and updated description of the phytoplankton community of the Urdaibai estuary, using different monitoring techniques, to determine the potential effect of the cessation of wastewater discharges and evaluate the usefulness of the different techniques. The study integrates data from phytoplankton monitorings conducted during the wastewater discharges (2019-2020) and after sewerage works (2021 and 2022), where both environmental variables and the phytoplankton community were analysed, using three different techniques for the latter, i.e., microscopy, pigment analysis and DNA metabarcoding.

Chapter 1 provides the description of the phytoplankton community of the Urdaibai estuary during the WWTP discharges (2019-2020), combining microscopy and eDNA metabarcoding for the first time in the area, as well as the comparison of the two methods. *Chapter 2* covers the immediate effect of the cessation of wastewater discharges on the

environmental conditions and phytoplankton community (by pigment analysis and microscopy) of the estuary in a short time scale (during July 2021). *Chapter 3* proposes a new chemotaxonomic tool (*PIGMENTUM*) for phytoplankton monitoring based on pigment analysis, conceived to fulfil the necessities encountered during the present study. Finally, *Chapter 4* describes the medium term effect of the cessation of wastewater discharges on the phytoplankton community of the estuary by comparing it before (in 2020) and after (in 2022) the sewerage works, applying *PIGMENTUM* analysis of HPLC pigments.

The results obtained in the different Chapters are analysed from an integrative point of view in the *General discussion* section. Overall, the present work confirmed that the phytoplankton community of the Urdaibai estuary showed the expected spatio-temporal variability during 2019-2020, with similarities to the studies from the late 90´s. The biomass values increased towards the inner estuary and the highest values were recorded during spring-summer. As for the community composition, the outer and middle estuary were dominated by diatoms and, towards the inner estuary, flagellates (especially cryptophytes) became more dominant. These changes were mainly prompted by salinity and nutrients. The sewerage works had an immediate effect in the estuary, mainly noticed in the inner area, with significant decreases of ammonium and phosphate concentrations and changes in the phytoplankton community composition, since, due to the rapid increase of *Eutreptiella* sp., chlorophyll *b* replaced alloxanthin as the dominant diagnostic pigment in the inner estuary. In 2022, the decrease in ammonium and phosphate was noticeable throughout the entire estuary and more significant changes were recorded in the phytoplankton community. Biomass decreased in the outer and middle Urdaibai estuary, due to the lower nutrient concentrations, and increased in the surrounding of the WWTP, probably because the excessive ammonium loadings used to suppress phytoplankton growth in the area. Additionally, the contribution of prasinoxanthin-containing prasinophytes increased, mostly in the middle estuary, and there was a community composition shift in the inner estuary from flagellates to diatoms as a response to changes in nutrient composition and ratios, which might indicate the recovery of the area. The characterisation of the phytoplankton community and the determination of the different responses was enabled by the combination of microscopy (providing taxonomic identification together with quantification), eDNA metabarcoding (with high resolution for taxonomic identification) and pigment analysis (rapid qualitative and quantitative description of the community). Moreover, this thesis provides novel information on the species richness of the Urdaibai estuary, due to the application of eDNA metabarcoding as a monitoring tool for the

first time in the area, and proposes and applies a new tool for phytoplankton monitoring (*PIGMENTUM*), which indeed was proven efficient.

In conclusion, the present study might be useful as a baseline for future interdisciplinary studies in the area that require updated data on the phytoplankton biomass and community composition of the Urdaibai estuary. Additionally, it provides insights in the usefulness of different phytoplankton monitoring techniques, suggesting a possible methodology for future water quality management and/or long-term ecological monitoring programmes, where high taxonomic resolution is not compulsory.

I. SARRERA

1. Estuarioak

1.1. Definizio eta sailkapena

Estuarioa definizio anitzeko hitza da, zaila baita definizio bakar batek sistema aldakor hauen ezaugarri guztiak biltzea. Urte askotan zehar Pritchard-ena (1967) izan da onartu eta erabilienetakoa, zeinak estuarioa partzialki mugatutako kostaldeko ur-masa bezala definitu zuen, itsaso zabalarekin lotura askea duena, non itsasoko ura lurretik drainatutako ur gezarekin nabarmen diluitzen den. Hala ere, asko izan dira definizio hau moldatu eta osatzeko ahaleginak egin dituztenak, besteak beste, Day (1981) edo Potter *et al.* (2010). Wolanski eta Elliott-ek (2015), definizio ezberdinak konbinatuz, hurrengo definizio eguneratu eta osoa proposatzen dute:

"Estuarioa partzialki mugatutako ur-masa da, mareen edo gatz-sarreren mugaraino itsasoarekin konektatua dagoena eta ur-gezaren isurketak jasotzen dituena, kontuan hartuz ur-gezaren sarrera ez dela iraunkorra izan behar (gerta daiteke urteko zenbait momentutan bakarrik egotea), itsasoarekiko konexioa aldizka itxita egon daitekeela (adibidez, hareazko barra baten bidez) eta mareen eragina arbuiagarria izan daitekeela."

Definizio honek, estuario klasikoez gain, ibai haranak, itsasadarrak, fiordoak, deltak, senadiak eta aintzira-estuarioak biltzen ditu, baita Itsaso Baltikoa bezalako eremu gazikaren eta ur-geza urria den eskualde lehorretako kostaldeko uren ezaugarriak ere biltzen ditu.



1. irudia. *Hiru estuario mota nagusien adibideak: (a) haran-estuarioak, (b) aintzira/urmael-estuarioak, (c) ibai-bokaleko sistemak; Wolanski eta Elliott-en (2015) irudi moldatua.*

Estuarioen sailkapen geomorfologikoa (*1. irudia*) alde batera utziz, eta estuario arruntak adibide moduan hartuz, asko dira ezaugarri fisiko, kimiko eta biologikoen arabera sailkatuak izan daitezkeen estuario motak. Pritchard-ek (1952) oreka-hidrikoaren araberako sailkapena proposatu zuen: (1) "positiboak", non ibai, lurpeko ur eta prezipitazioetatik eratorritako ur gezaren sarrera, lurruntzea baino handiagoa den; (2) "neutroak", ur gezaren sarrera eta lurrunketaren arteko oreka dutenak; eta (3) "negatiboak" edo "alderantzizkoak", non lurrunketak ur gezaren sarrera gainditzen duen. Gune epeletako ohikoenak estuario "positiboak" dira, ondorioz, hondoan itsasotik sartzen den ur gazia aurkitzen da, erdialdean nahasketa bertikal graduala eta azalean ibaitik jaisten den ura. Hala ere, eta baliagarria bada ere, estuarioak sailkatzeko oreka-hidrikoa bakarrik erabiltzea ez da ohikoa.

Beranduago, Pritchard-ek (1967) ur-zirkulazioan oinarritutako estuarioen sailkapen bat garatu zuen, mota hauek bereiziz: (1) oso estratifikatuak diren estuarioak, (2) estuario partzialki mistoak, neurrizko geruzapenarekin (3) alboko gazitasun gradientea duten eta bertikalki homogeneoak diren estuarioak, eta (4) guneka homogeneoak diren eta

longitudinalki gazitasun gradientea duten estuarioak. Honetatik abiatuta, Dyer-ek (1972) estuarioak sailkatzeko antzeko sistema bat proposatu zuen, gehiago erabiltzen dena, hiru nahaste erregimen identifikatuz: estratifikatua, partzialki mistoa edo homogeneoa.

Hayes-ek (1975) marea bitarteetan oinarritutako estuarioen sailkapen sistema proposatu zuen. Honen arabera, mikromareak (<2 m-ko marea bitartea), mesomareak (2-4 m) eta makromareak (>4 m) bereizten dira. Marea bitarte ezberdin hauek marea-korronteen aldaketa handiak eragiten dituzte, hiru estuario moten sedimentuen ezaugarrietan eragina nabarmena izanik. Hala ere, lehen esan bezala, badira aintzira/urmael-estuarioak eta denbora batez itxitako estuarioak, marea-prisma gutxi edo bat ere ez dutenak, baina oraindik ere estuario-ekosistema funtzionalak direnak.

Bestalde, orokorrean, edozein motatako estuarioetan, itsasoko uraren eta lurretik drainatutako ur gezaren nahastearen ondorioz, gazitasun ezberdineko ur-masak sortzen dira, gazitasun guneak bezala ezagutzen direnak. Venezia sistemak (1959), estuarioak sei gune ezberdinetan bereizten ditu uraren gazitasunaren arabera: ur gezakoa edo limnetikoa (gazitasuna <0,5), oligohalinoa (0,5-5), mesohalinoa (5-18), polihalinoa (18-30), euhalinoa (30-40) eta hiperhalinoa (>40). Zona hauek talde biotiko ezberdinen sailkapenarekin eta hauen estuarioan zeharreko banaketa ereduekin lotu daitezke. Ipar Hemisferioko estuario gehienetan gazitasun-guneek Veneziako sistema jarraitzen dute, sorburutik ahoraino, baina Hego Hemisferioko sistemetan, ordea, askotan ez da hori betetzen.

Definizio eta sailkapen mota anitzek ekar ditzaketen arazo edo zailtasunak ekiditeko helburuz, Europar Batasunak, Uraren Esparru Zuzentarauaren (UEZ; 2000/60/EE) bitartez, "trantsizio-urak" hitza sortu zuen estuario guztiak biltzeko, “ibai-ahoen inguruko gainazaleko ur-masak, hein batean gazi-izaera dutenak kostaldeko uretatik gertu egotearen ondorioz, non ur gezako emariek eragin nabarmena duten" gisa definituz. Beraz, ibaien muturrak edo itsasoko sarrerak bezala ikusi beharrean, gaur egun, estuarioak ekosistema gisa aintzat hartzen dira berez (adibidez, Elliott eta Whitfield, 2011).

1.2. Estuarioen garrantzia

Estuarioak sistema dinamikoak dira, ibai-fluxua, marea maila eta estuarioetako sedimentuen banaketa etengabe aldatzen ari baita, eta horrek ekosistema emankorrak bihurtzen ditu. Dinamismoarekin batera, estuarioen emankortasuna azaltzen duten beste hainbat faktore

daude (Day et al., 2012): mantenugaien sarrera ugariak, mantenugai hauen berriztatze azkarra eta kontserbazio altua, kanpo energia altua (nagusiki mareek eragindakoa), materia organikoaren sarrera ugariak eta ekoizle primarioen komunitate anitzen presentzia (makrofitoak, mikrofitobentosa eta fitoplanktona nagusiki). Dinamismo eta emankortasun honek estuarioak sistema garrantzitsuak bihurtzen ditu aspektu ekologikorako eta giza bizitzarako (McLusky eta Elliott, 2004).

Ekologia globalaren ikuspuntutik, estuarioek funtsezko rolak betetzen dituzte (Thrush et al., 2013). Alde batetik, biodibertsitatearen kontserbaziorako garrantzi handiko eremuak dira, izan ere, sistema hauek eskaintzen dituzten baldintza fisiko-kimiko anitzen ondorioz eta emankortasun altuari esker, fauna eta flora komunitate ezberdin askoren habitata dira. Gainera, hainbat espezieren babesleku eremuak dira migrazio- zein errute-garaian. Bestalde, estuarioak karbonoaren finkapenerako eremu eraginkorrak dira, atmosferako karbono kantitate handiak gordetzen baitituzte sedimentu eta landaredian, ezinbestekoa dena karbonoaren zikloaren erregulaziorako eta klima-aldaketa arintzeko. Horrez gain, estuarioek kutsatzaileen iragazketan eta mantenugaien zikloan funtsezko eginkizuna dute, uren kalitatearen erregularizazioan nabarmen lagunduz, elementuen sedimentazio, adsortzio eta flokulazio edo biodegradazio bidez.

Estuarioetako ekosistemek gizakiei eskaintzen dizkieten onurak ere anitzak dira eta zerbitzu-ekosistemiko izena jasotzen dute (Barbier et al., 2011). Zerbitzu-ekosistemikoak hornikuntzakoak (materialak) edo kulturalak (ez-materialak) izan daitezke. Hornikuntza zerbitzuen artean, janari (arrainak eta itsaskiak), ura, eraikuntzarako agregatu eta baliabide genetikoen erauzketa daude. Zerbitzu kulturalek, ordea, aisialdiari, gozamen estetikoari, esperientzia espiritualei eta onura fisiko eta psikologikoei egiten diete erreferentzia. Gainera, estuarioek hondamendi naturalen (uholdeak edo ekaitzak adibidez) aurkako babesa eskaintzen diete bertako espezieei eta inguruan bizi diren biztanleei. Nabigazio bide eta hondakinen deskarga eremu bezala ere erabiliak dira, eta ekonomia sustatzen dute, turismoaren bidez eta horren inguruan sortzen diren enpleguen bidez.

1.3. Estuarioak eta gizadia

Estuarioek zerbitzu-ekosistemiko baliotsuak eskaintzen dituzte, hori dela eta, hiri-, nekazaritza- eta industria-jarduerak azkar hedatu dira haien inguruan. Gaur egun, estuarioek lurraren azaleraren zati txikia (% 5,2) hartzen badute ere, giza-karga neurrigabea jasaten dute,

munduko biztanleriaren % 60 inguru estuarioetan eta kostaldean bizi baita (Wolanski eta Elliott, 2015). New York, Shangai, Londres, Rio de Janeiro, Buenos Aires edo San Frantzisko bezalako hiri garrantzitsu asko, adibidez, estuarioen inguruan eraikiak izan dira. Honen ondorioz, estuarioak presio askoren menpe daude, zuzenean edo zeharka, eta presio horien eragin metatua larria da (Elliott eta Whitfield, 2011).

Estuarioen degradazio arrazoiak asko dira, baina, funtsean, bi iturritatik datoz (McLusky eta Elliott, 2004): estuarioetara sartzen diren materialak eta estuarioetatik erauzten diren materialak. Estuarioetara sartzen diren materialen artean, kutsatzaileak, sedimentuak, energia (zentral elektrikoetatik isuritako ur beroa, adibidez) eta azpiegiturak (zubiak edo presak, esaterako) daude. Estuarioetatik kendutako materialek, ordea, gatza, ura, arrain edo itsaskiak, sedimentuak eta eremu fisikoari egiten diote erreferentzia. Gainera, estuarioen degradazioa eragin dezaketen jatorri zabalagoko arazoak ere badaude, adibidez, klima aldaketa. Honek guztiak eragin negatibo larriak ditu, bai estuarioetan baita bertan edo inguruan bizi diren bizidunengan.

Kostaldeko eremuen garapenak eta lurren erabilerak habitaten galera edo alterazioa dakar, estuarioetako habitat-kritikoak murriztuz (Mitsch eta Gosselink, 2015). Hala ere, ondorio zehatzagoak ere ezberdindu daitezke (Wolanski eta Elliott, 2015). Urbanizazioa era neurrigabean handitzeak, ibai-kanaletan aldaketak geomorfologikoak egotea eta euri-jasa handiko uneetan ur-fluxu azkarrago eta handiagoak sortzea eragiten du. Gainera, baso-soiltzeak, gehiegizko abeltzaintza eta bestelako nekazaritza-praktika txarrek, lurzoruaren higadura, eta ondoriozko ibaietako sedimentuen karga areagotzea eragiten dute. Sedimentazio honen erruz estuario ertzetako kalitate ekologikoa gutxitu eta uretako uhertasuna handitzen da, fotosintesirako eskuragarri dagoen argia gutxituz. Sedimentu hauen erauzketarako teknikak (dragak, esaterako), halaber, kaltegarriak dira sistema hauetan bizi diren organismo eta uraren kalitatearentzat. Agente kutsatzaileen isurketari dagokionez, hiriguneetako, industria-jardueretako eta nekazaritzako isuriek kutsatzaileak sartzen dituzte estuarioetan (kutsadura mikrobianoa, metal astunak, mantenugaiak eta bestelako kutsatzaile organikoak barne), uraren kalitatea okerragotuz eta bertako organismoak kaltetuz (Lotze et al., 2006). Kutsatzaileen isurketaren bi ondorio argi biodibertsitatearen galera eta eutrofizazioa dira, azken hau aurrerago garatuko delarik.

Laburbilduz, estuarioen inguruko urbanizazio eta industrializazioak, sedimentuen, mantenugaien eta bestelako kutsatzaileen areagotzea sustatzen du, eta honek estuarioko

uraren kalitatean eragin negatiboa dauka, baita bertan bizi diren organismoengan ere. Honek, aldi berean, eragin negatibo zuzena dauka estuarioen inguruan bizi diren gizakiengan, bizi kalitatean, baita aisialdirako erabilerak mugatuz edo galera ekonomikoak eraginez.

2. Fitoplanktona

2.1. Ezaugarri orokorrak

Reynolds-ek (2006) fitoplanktona, grekeratik *phyto* (landare) eta *planktos* (noraezeko), honela definitzen du:

"Mikroorganismo fotoautotrofoen multzo heterogeneoa, gehienetan zelulabakarrak direnak eta ur zutabean (itsasoak, aintzirak, urmaelak eta ibaiak) esekiduran bizitzeko egokituta daudenak, non sare trofiko pelagikoentzat eskuragarri dagoen karbono organiko gehiena ekoizten duten".

Honenbestez, fitoplanktona ekosistema urtarretan kate trofikoaren oinarri gisa jarduten duen mikroorganismo zelulabakar fotosintetikoen multzoa da. Ondorioz, fitoplankton-komunitateen tamaina-klaseen egiturak eta osaera taxonomikoak, kate-trofikoaren goragoko mailetan aurkituko ditugun organismo motak baldintzatzen ditu. Gainera, fitoplanktonak $50x10^{15}$ g C inguruko finkapen fotosintetikoa burutzen du urteko, Lurreko ekoizpen primario garbiaren erdia dena (Marañón et al., 2009). Ekoizle primario eta kate trofikoaren oinarri gisa duen garrantziari, sistema klimatiko globalean duen rola (Vaulot, 2001) eta hainbat elementuren (karbono, nitrogeno, oxigeno, sufre eta fosforoa) ziklo biogeokimikoetan duen partehartzea gehitzen zaizkio (Falkowski, 1994). Beraz, fitoplanktonak ezinbesteko eginkizuna betetzen du ekosistemen egitura eta funtzionamendu osasuntsua mantentzeko.

Fitoplanktona osatzen duten organismoen artean, tamaina, morfologia, exoeskeleto mota, bizi-estrategia eta osaera pigmentario aniztasun handia aurkitu daiteke (Clementson et al., 2021). Zelula-tamaina tartea oso zabala da, organismoak pikofitoplankton (0,2-2 μm), nanofitoplankton (2-20 μm) eta mikrofitoplanktonean (20-200 μm) bereiziz. Zelula-tamainak, halaber, fitoplanktonaren fisiologia eta ekologiaren alderdi askotan eragiten du, antolakuntza maila ezberdinetan, hala nola gizabanakoetan, populazioetan eta komunitateetan. Morfologiari dagokionez, organismoek askotariko ezaugarriak izan ditzakete, hala nola, flageloak, areola, arantzak, harizpi organikoak, silizezko exoeskeletoa

(frustulua), tekak edo kaltzio karbonatozko ezkatak. Bizi-estrategiak ere askotarikoak dira, zelula bakartiak (gehienetan), kateak eratzen dituztenak, koloniak, endosinbionteak (koralak) edo kisteak aurkituz.

Hala ere, nahiz eta fitoplanktonak aldakortasun handia bildu, badaude organismo fitoplanktonikoek partekatzen dituzten hainbat ezaugarri (Reynolds, 2006). Zelula-tamaina hainbat magnitude-orden aldatu daitekeen arren, espezie guztiek azalera-bolumen erlazioaren kontserbaziorako joera erakusten dute, organismo handien kasuan forma esferikotik urrunduz eta bestelako forma hartuz lortzen dena. Honek gasen, mantenugaien eta beste solutuen trukean laguntzen du eta organismoen esekidura-gaitasuna handitzea ahalbidetzen du. Era berean, protoplastoaren osaera elementala antzekoa da fitoplankton talde guztien artean. Zelula hormaren pisu lehorraren (errautsa kenduta) % 50 inguru karbonoa da, nitrogenoa % 8-9 inguru eta fosforoa % 1-1,5. Hidrogeno, oxigeno, silize, sufre eta burdina ere agertzen dira, ehuneko baxuetan, eta, aztarna-ehunekotan, beste 12 elementu (Ca, Mg, Na, Cl, K, Mn, Mo, Cu, Co, Zn, B, Va) aurkitu ditzakegu fitoplankton zeluletan. Bestetik, zelulen Chl *a* edukia hazkuntza-baldintzen arabera oso aldakorra den arren, zelularen errautsik-gabeko masa lehorraren % 1-a inguru izaten da, batez beste, eta karbono elementalaren % 2 inguru. Karbono:klorofila erlazio ohikoena 50:1-ekoa da, baina gerta daiteke 70:1 inguruko (argi asko dagoenean) edo 30:1 edo baxuagoak (etengabe argi gutxi dagoenean) diren erlazioak aurkitzea, aztergai den fitoplankton taldea kontuan hartu gabe.

2.2. Fitoplankton talde nagusiak

Reynolds-ek (2006) espezieak 14 filotan banatu zituen, bakterio zein eukariotoen domeinuetatik datozenak. Talde bakoitzak ezaugarri morfologiko zein osaera zelular bereizgarriak ditu, haien ekologian eta dinamikan ondorio zuzenak izango dituztenak (Reynolds, 2006; Paerl eta Justic, 2013).

Diatomeoak (Bacillariophyta) flagelorik ez duten alga zelulabakar hori-marroiak dira, itsastar zein ur gezakoak, banaka zein kateak eratuz bizi daitezkeenak (Round et al., 1990). Fitoplankton talde anitzena, zabalduena eta emankorrena da eta elikadura katean oinarrizko rola betetzen du ekosistema urtar guztietan, baina bereziki itsasoan. Diatomeoen zelula tamaina 2 eta 100 µm bitartekoa da eta zelula-horma pektinazeoa dute, bitan zatitua eta silize kriptokristalinoz inguratua, “frustulu” izena jasotzen duena. Diatomeoen baitan, frustuluaren formaren arabera, bi talde handi bereizten dira: zentrikoak (Coscinodiscophyceae eta

Mediophyceae) eta pennatuak (Fragilariophyceae eta Bacillariophyceae). Azken hauek, pennatuak, organismo bentonikoak izaten dira oro har, baina sarritan hondotik ur zutabera pasatzen dira, birsuspentzio bidez, plankton-komunitateetan garrantzitsuak bihurtuz. Gainera, nahiz eta flagelorik ez izan, diatomeoek mugitzeko bi estrategia ezberdin garatu dituzte: herrestatzea edo flotatzea. Herrestatzeari dagokionez, zenbait diatomeo (pennatuak, oro har) rafe izeneko egitura batetik ateratzen den eskrezio muzilaginosoaz baliatzen dira mugitzeko. Beste batzuek, ur zutabean flotatzeko gaitasuna handitzeko egitura ezberdinak garatu dituzte, hala nola arantzak edo zurdak izan edo/eta kateak eratzea. Horrez gain, diatomeoen osaera pigmentarioari dagokionez, plastido diskoide ugari dituzte, *a* klorofila (Chl *a*), c_1 klorofila (Chl c_1) eta c_2 klorofila (Chl c_2) dituztenak, bere pigmentu osagarri nagusia den fukoxantinarekin (Fuco) batera.

Dinoflagelatuak (Dinophyta), orientazio eta luzera ezberdineko bi flagelo dituzten mikroalgak dira, orokorrean zelulabakarrak (Hasle et al., 1996). Morfologikoki eta funtzionalki askotarikoak dira, oso eboluzionatuak, gehienbat itsastarrak, baina ur gezatan ere aurkitu daitezke. Dinoflagelatuen zelula tamaina 10 eta 1000 μm bitartekoa da eta zelula-horma sendoak dituzte. Espezie askotan, zelula horma "teka" izeneko zelulozazko plaka poligonalekin indartua egoten da. Gainera, dinoflagelatuak plastido konplexuz osatuta daude, non Chl *a*, Chl c_1 eta Chl c_2-z gain, pigmentu osagarri nagusia den peridinina (Peri) aurkitzen den. Hala ere, aipatzekoa da dinoflagelatu batzuek ez dutela Peri-rik eta, bere ordez, beste fitoplankton talde batzuen pigmentu osagarriak dituztela, hala nola, Fuco (adibidez, *Kryptoperidinium foliaceum*).

Alga berdeei dagokienez, oso talde anitza da, ur geza zein gazian aurkitu daitezke eta haien ezaugarri bereizgarri nagusia Chl *a*-z gain *b* klorofila (Chl *b*) izatea da, pigmentazio berdea ematen diena (Leliaert et al., 2012). Alga berdeen taldea klorofitaz osatua dago nagusiki, baina prasinofitak edo euglenofitak ere biltzen ditu. Klorofitak mikroalga zelulabakar, kolonial, harizpi formakoak, sifonazeoak edo taloideak izan daitezke, flagelodunak edo flagelo gabeak. Honenbestez, tamaina eta forma aldakortasun handia biltzen dute, pikoplanktonaren parte diren zelula kokoide txikietatik (2-5 μm), zelula oboide edo disko-formako zelula (desmidoak) handiagoetara, pilatutako zelula-talde txiki gisa egon daitezkeenak (adibidez, *Scenedesmus*). Prasinofitak, oro har, mugitzeko gai diren organismo zelulabakarrak dira, alboz edo apikalki kokatutako 1 eta 16 flagelo artean izan ditzaketenak, eta zelula horma ezkata finez estalita dutenak. Euglenofitak, ordea, zelulabakarrak eta biflagelatuak dira, plastido irregular ugaridunak.

Bestelako flagelatuen artean, haptofitak eta kriptofitak dira nagusi, nahiz eta beste talde garrantzitsu batzuk ere aurkitu ditzakegun, hala nola, rafidofitak (Raphidophyta) edo krisofitak (Chrysophyta). Haptofitak, 2 eta 20 μm bitarteko mikroalga hori-marroi gehienbat zelulabakarrak dira, bi flagelo eta haptonema bat dutenak (Green eta Leadbeater; 1994). Ur gezako espezieak egon arren, oro har organismo itsastarrak dira eta kostaldeko uretan elikagai-iturri garrantzitsua dira. Haptofitek bizi-ziklo konplexua izan dezakete, morfologia mugikorrak eta estatikoak tartekatuz, izan ere, fase ameboide, kokoide edo palmeloidea izan dezakete. Espezie askok, zelula-horma kaltzifikatutako ezkataz estalita dute, eta batzuek arantzak ere badituzte, askotariko morfologia eta egitura konplexuak sortuz. Eduki pigmentarioari dagokionez, Chl *a*, Chl c_1 eta Chl c_2-az gain, fukoxantina edo/eta 19'-hexanoiloxifukoxantina (Hex) pigmentu osagarri karotenoideak aurkitzen dira haien baitan.

Bestalde, kriptofitak, geruza proteiko batez (periplasto) inguraturiko zelula eta bi flagelo ezberdin dituzten organismo itsastarrak zein ur gezakoak dira (Lee, 2008). Haien zelula tamaina, orokorrean, 5 eta 30 μm bitartekoa da (espezie handiagoak dauden arren) eta gehienbat organismo zelulabakar oboideak dira. Morfologikoki asimetrikoak direla esaten da, bi flagelo ezberdinak zelularen amaieran kokatuak baitituzte, modu bereizi eta eraginkorrean bultzatuz. Gainera, kriptofita gehienek aho moduan jarduten duen zirrikitu bat ere badute, harrapakin txikiak harrapatzeko balio duena, bakterioak adibidez. Honek malgutasun metaboliko handia ematen die, zelulek modu fotosintetiko autotrofo eta heterotrofoetan funtziona dezaten ahalbidetuz. Bestalde, plastido handi bakar bat edo bi dituzte, Chl *a* eta Chl c_2-z osatuak, eta pigmentu osagarri nagusia aloxantina (Allo) da, fikobiliproteinekin batera algei kolore marroi-gorrixka (normalean) edo berdexka emanez.

Zianobakterioak ere aipatzea ezinbestekoa da, bakterioen domeinuko organismo zelulabakar edo kolonial urdin-berdexkak (Whitton eta Potts, 2007). Honenbestez, bakterioen antzeko ezaugarri zelularrak dituzten (ondo definituriko nukleorik ez eta mintzez inguraturiko organulurik ez) fitoplankton prokariotoak dira. Itsaso zein ur gezako eremuetan aurkitu daitezke eta fotosintesi oxigenikoa burutzeko gai diren prokariota bakarrak dira. Zianobakterioak esfera forman (bakarka edo zelula-multzoetan), harizpi ez heterozisto moduan (bakarti edo multzoak) edo harizpi heterozisto taldeetan aurkitu daitezke. Hauen lehen-mailako pigmentu fotosintetikoa Chl *a* da, fikobilina (fikozianina eta fikoeritrina) osagarriekin batera, eta pigmentu osagarri nagusia zeaxantina (Zea) da.

Fitoplanktonaren baitan aurkitzen den aldakortasun handi honen ondorioz, taxonomiak etengabeko berrikuspena pairatzen du eta zaila da identifikatutako espezieen kopuru zehatza ezagutzea. Gutxi gorabehera 25000 espezie deskribatuak izan direla uste da, espezie eubakterio eta eukariotoak barne, ur gazi zein gezakoak (Marañón et al., 2009). Hala ere, asko dira oraindik deskribatu gabeko organismoak, izan ere, diatomeoak bakarrik kontutan hartuz, 10mila eta 100mila espezie bitartean existitzen direla esaten da (Clementson et al., 2021).

2.3. Fitoplanktonaren aldakortasuna kontrolatzen duten faktoreak

Fitoplanktonak, hazkuntza-tasa altua duenez, azkar erantzuten du baldintza fisiko (argia, tenperatura edo uhertasun), kimiko (mantenugaien edo kutsatzaileen kontzentrazioak) eta biotikoen (bazka) aldaketen aurrean (Paerl eta Justic, 2013) (*2. irudia*). Fitoplankton-komunitateek pairatzen dituzten aldaketa hauek, aldi berean, ekosistemen funtzionamenduan aldaketak dakartza, material-fluxu, oxigeno-balantze edo elikadura-sarean adibidez, baita goi-mailako landare eta animalietan ere.



2. irudia. *Fitoplanktonaren aldakortasuna kontrolatzen duten faktoreen irudi eskematikoa (Heinrichs et al. 2020-tik moldatua).*

Argiak funtsezko garrantzia du fitoplanktonaren biomasa, banaketa eta komunitateen osaeraren kontrolean. Organismo gehienak fototrofoak izanda, hauen hazkuntza-tasa argiaren kalitatearen eta eskuragarritasunaren menpe dago (Cloern, 1999). Hori dela eta, bai irradiantzia baita egunean zehar eskuragarri dagoen argi-kopurua ere ekoizpen primarioaren oso iragarle eraginkorrak dira. Fitoplanktonak, argi ikuskorraren espektroaren 400-700 nm-ko zatia erabiltzen du, *erradiazio fotosintetikoki aktiboa* edo *PAR* (Photosynthetic Active Radiation) deitua. Argiaren eskuragarritasuna, bestetik, uretan dagoen argia gutxitzen duten substantzien kontzentrazioaren (adibidez, materia organikoak), uhertasunaren, kolorearen eta organismoen fotopigmentuen araberakoa da. Era berean, uraren nahasketa-bertikaleko tasak eta fitoplanktonaren migrazio bertikalerako gaitasunak eragin zuzena dute argiaren eskuragarritasunean eta, ondorioz, fitoplanktonaren biomasa, banaketa eta komunitateen osaeran (Mallin eta Paerl, 1992).

Fitoplanktonak, hazteko, argiaz gain, hainbat mantenugai inorganiko eta organiko behar ditu, besteak beste, karbonoa (C), nitrogenoa (N), fosforoa (P), silizioa (Si), metalak (nagusiki burdina) eta oligoelementuak, baita B_{12} bezalako bitaminak ere (Cloern, 1999). Makromantenugaien (C, N, P eta Si) artean, N eta P dira garrantzitsuenak, hauek baitira, normalean, eskariarekiko eskaintzarik murritzena dutenak. Ondorioz, sarritan, N eta P-ren eskuragarritasunak fitoplanktonaren hazkuntza eta, beraz, lehen mailako ekoizpena, kontrolatzen edo mugatzen ditu (Ryther eta Dunstan; 1971). Redfield-ek eta Danielek (1935) itsasoko uraren eta fitoplankton itsastarraren oinarrizko konposizioan koherentzia nabarmena aurkitu zuten, “Redfield ratio” izena jarriz, non C:N:P elementuen pisu atomikoen erlazioa 106:16:1 den. Hala ere, ikusi da erlazio hori ez dela denbora eta espazioan konstante mantentzen, izan ere, giza zein jatorri naturaleko aldizkako mantenugaien sarrerek aldaketak eragin ditzakete. Gainera, fitoplankton talde, genero edo/eta espezie ezberdinek mantenugai hauek proportzio ezberdinetan behar dituztenez, elementu hauen eta beste batzuen hornikuntza-ratioek (adibidez N/Si edo N/Fe) fitoplankton talde ezberdinen hazkuntza eta haien arteko lehiakortasuna baldintzatzen dute.

Tenperaturak ere eragin zuzena dauka fitoplanktonaren biomasa eta komunitateen osaeran (Eppley, 1972). Fitoplanktonaren fotosintesi, karbono eta mantenugaien asimilazio-prozesuak, arnasketa, metabolismoa eta hazkuntza-zelularra tenperaturarekiko sentikorrak diren entzimek bideratzen dituzte (Goldman, 1979). Honenbestez, urtarokotasunak, uraren tenperatura eta argi kantitatea baldintzatzen duenez, paper garrantzitsua betetzen du ekoizpen primarioan eta komunitateen osaeraren kontrolean (Valdes-Weaver et al., 2006).

Bestetik, mikrozooplanktonak, makrozooplanktonak eta bibalbioak bezalako ornogabe bentoniko bazkatzaileek (*grazer*), fitoplankton-komunitatearen biomasaren eta osaeraren "goitik behera"-ko kontrola burutzen dute (Sterner, 1989). Gainera, elkarrekintza mikrobianoek ere, esaterako bakterio-fitoplankton asoziazio eta birusen efektua, fitoplankton-komunitatearen osaeran eta jardueran eragiten dute (Paerl eta Pinckney, 1996). Hala ere, organismo hauek burutzen duten predazioaren eragina aldakorra da, hain zuzen ere, urtaroen, taxonen, ur zutabearen nahasketa bertikalaren, ur gezaren sarreren eta egonaldi-denboraren araberakoa. Edonola ere, elkarreraginean dauden kontrol anitz hauek fitoplankton talde funtzional eta espezieen aniztasuna bermatzen dute hidrologikoki eta biogeokimikoki aldakorrak diren ekosistema urtarretan.

Hau guztia kontutan hartuz, ekosistema urtarrek jasaten dituzten aldakortasun tenporalek (urtaroak) zein espazialek eragin zuzena dute fitoplankton-komunitateen biomasan eta osaeran, uretako argi- eta mantenugaien- eskuragarritasuna, tenperatura, bazka eta bestelako faktore asko baldintzatzen baitituzte. Hala ere, fitoplankton talde edo/eta espezie guztiek ez dute berdin erantzuten argi, tenperatura eta mantenugaien gradienteen aldaketen aurrean; hau, hein handi batean, organismo bakoitzak hazkunde-optimoa lortzeko dituen mantenugai-eskakizunen, eskakizun-energetikoen eta bestelako eskakizunen (adibidez, gazitasuna, metal astunen beharra, pH-a edo karbono inorganikoa disolbatua) araberakoa baita.

2.4. Alga loraketa kaltegarriak (HAB)

Ekosistema urtarren biomasa fitoplanktonikoaren hazkunde azkar eta hautemangarriari loraketa edo *bloom*-a deritzo (Hallegraeff, 1993; Paerl eta Justic, 2013) (*3. irudia*). Orokorrean, fitoplanktonak hazkuntza-tasa azkarra izan arren, ekosistema urtarren elikadura katearen oinarria denez eta bere ugaritasuna eta konposizioa hainbat faktore fisiko, kimiko eta biotikoren menpe dagoenez, fitoplanktonaren biomasa totala baxua izan ohi da, galera-faktoreek berezko hazkuntza-tasa azkarrak orekatzen dituztelako. Hala ere, batzuetan, espezie baten edo gutxi batzuen hazkuntzak galerak gainditu ditzake, fitoplankton loraketak eraginez. Loraketak fitoplanktonaren hazkuntzarako onuragarriak diren faktoreen konbinazioarengatik gertatzen dira, prozesu hidrografiko edo meteorologikoen ondorioz haien kontzentrazioa handitu eta birusak, sedimentazioa eta bazkatzea bezalako faktoreen ondoriozko galerak murrizteagatik (Granéli eta Turner, 2006). Ingurumen-aldagai hauek guztiak eskala tenporal ezberdinetan agertzen dira, eta beraz, loraketak, pasarte puntualak edo urtaroko fenomenoak

izan daitezke, egunak edo asteak iraun ditzaketenak, non loraketa eragin duen espeziea komunitateko elementu nagusia bihurtuko den (Cloern, 1996).

Fitoplankton loraketa batzuek oxigenoaren murrizketa, elikadura-kateen alterazioa, ingurumen-osasun arriskua eta ingurune urtarren kalitatearen murriztea edo habitaten degradazioa eragin dezakete, eta "alga loraketa kaltegarriak" edo HAB (Harmful Algal Bloom) izena jasotzen dute (Granéli eta Turner, 2006). Ezagutzen diren fitoplankton espezie guztien artean, 300 espezie inguruk ekosistema urtarrentzako era batera edo bestera kaltegarriak diren HAB-ak eratzeko gai dira, eta hauetatik 80 espezie inguru baino ez dira toxinak ekoizteko gai (Shumway et al., 2018).

Biomasa handiak eratzeagatik kaltegarriak diren organismoek eragindako arazo nagusiak oxigeno eskasia, uraren kalitatearen galera eta beste organismoengan kalte fisikoak eragitea dira (Granéli eta Turner, 2006). Loraketen ostean organismoak hil egiten direnean, zelulak hondoratu eta bertan bakterioek deskonposatu egiten dituzte, oxigeno kontsumo tasa handituz eta hondoko uretan oxigeno eskasia eraginez (hipoxia edo anoxia) (Diaz eta Rosenberg, 2008). Gainera, loraketa batzuek uraren usain edo zapore txarra eragite dute, ur-horniduraren, aisialdiaren edo akuikulturaren ikuspuntutik kaltegarria izan daitekeena. Beste batzuetan, loraketen arazoa algak inguratzen dituen muzilagoa da, izan ere, kontzentrazio altuetan daudenean arrainen zakatzak estali ditzakete edo/eta disolbaturiko toxinekiko iragazkorrak bihurtzen dituzte (Paerl eta Justic, 2013). Eremu geografiko gehienetan antzeman dira fitoplankton hazkunde masiboak, ia alga talde guztiek eragindakoak, nahiz eta flagelodunak izan loraketa gehienen protagonistak (Lassus et al., 2015). Loraketa hauen adierazpen ohikoena uraren kolorazioa da eta, urak kolore ezberdinak hartzen dituen arren (berdea, marroia, gorria, etab.), ohikoa da "marea gorria" izenaz deitzea.

Bestetik, fitoplankton espezie batzuek goi-faunarentzat toxikoak izan daitezkeen metabolito sekundarioak (toxinak) sortzen dituzte (Pinto et al., 2023). Fitoplankton toxina hauek elikadura-katean sartu eta bertan metatu edo/eta maila trofiko altuagotara garraiatu daitezke, itsaskiak kutsatu eta gizakien kontsumorako desegokiak bihurtuz, edo zuzenean goi-mailako kontsumitzaileak pozoituz, arrainak, hegazti itsastarrak, ugaztun itsastarrak eta gizakiak barne (Shumway et al., 2018). Espezie toxiko hauen agerpenak galera ekonomikoak eragiten ditu askotan, arrantzan, turismoan, uren kalitatearen kontrolen beharragatik eta osasun-zaintzako gastuengatik. Diatomeoen barruan *Pseudonitzschia* genero toxikoa dago, eta

dinoflagelatuen artean genero toxiko asko aurki daitezke, adibidez, *Alexandrium*, *Karlodinium*, *Karenia*, *Prorocentrum* eta *Dinophysis* (Lassus et al., 2015).

Smaydaren (1997) arabera, *bloom*ak definitzeko erabilitako irizpideak ezberdinak izan behar dira loraketaren osaera zehatzaren arabera: espezie ez-toxikoen kasuan, ugaritasuna irizpide gisa erabiltzen da eta, espezie toxikoentzat, nahikoa da presentzia hutsa edo toxina kontzentrazio jakin bat izatea. Esaterako, Swan eta Davidsonek (2012) ezarritako toxikotasun mugen arabera, *Dinophysis* generoaren *bloom* bat izateko nahikoa da litro batean 100 indibiduo egotea.



3. irudia. *Fitoplankton loraketak ekosistema urtar ezberdinetan. a) Udako zianobakterio loraketa Erie Lakuan (Zachary Haslick, National Oceanic and Atmospheric Administration); b) Alexandrium monilatum loraketa Chesapeake badian (W. Vogelbein, VIMS); c) Karenia brevis loraketa Floridako hego-mendebaldeko kostaldean (Ben Deep, National Geographic); d) Phaeocystis pouchetii loraketa, eta honek sortutako aparra, Gower Penintsulan, Galesen (David John, Algaebase).*

3. Fitoplanktona estuarioetan

Fitoplanktona estuarioetako oinarrizko elementua da, izan ere, sistema hauetan, lehen mailako ekoizle guztien artean fitoplanktona izan ohi da materia organiko autoktonoaren iturri nagusia (Cloern et al., 2014). Estuarioen dinamismoaren ondorioz, bertan bizi diren fitoplankton-komunitateek denboran eta espazioan zeharreko kontraste handiak jasaten dituzte: mareen eta ur gezaren eraginaren araberako aldaketa espazialak; eta aldakortasun

tenporal handia eskala ezberdinetan, bai mareek eragindako egunean zeharreko aldakortasuna baita urtaroko aldakortasuna (ur-gezaren sarrera eta meteorologia baldintzatuz) (McLusky eta Elliott, 2004). Honenbestez, estuarioetako fitoplankton-komunitateen biomasa eta egitura etengabe aldatzen dira, gehienbat mareen uren zirkulazioak eta ibaiaren eraginak baldintzatutako ingurumen-gradienteetara moldatuz (Jouenne et al., 2007).

Zehazki, estuarioetako fitoplankton-komunitateek, gazitasunari, jatorri ezberdinetako isurketei, uraren tenperaturari eta argiaren eta mantenugaien eskuragarritasunari loturiko ingurumen-aldaketei erantzuten diete (Paerl eta Justic, 2013). Aldagai biologikoek ere eragin zuzena dute, hala nola, bazkatzeak eta birus eta bakterioen erasoek. Beste eragile bat prozesu hidrodinamikoak dira, izan ere, mareek eragindako korronteek, haizeak edo dentsitate gradienteek ur masa ezberdinak horizontalki, bertikalean eta lateralki garraiatzen dituzte eta horiekin batera fitoplankton-komunitateak (Lucas et al., 1999). Gainera, ur gezaren sarrerak ere estuarioetako fitoplankton-komunitateen bilakaeran eragin zuzena dauka, estuarioetako uraren egonaldi-denboran eta estratifikazio mailan duen eraginagatik (Lancelot eta Muylaert, 2011). Hau guztiari, eremu biografikoak edo eskualdeak dituen mugak fitoplankton-komunitateetan duen eragina gehitu behar zaio. Honenbestez, estuarioko fitoplanktonak baldintza fisikoen (gazitasuna edo ur zutabearen nahasketa maila, adibidez) edo/eta faktore-mugatzaileen (argi edo mantenugai eskuragarritasuna) aldaketa azkarrei aurre egin behar die, eta aldaketa horiek biomasaren eta espezieen osaeran eragin dezakete.

3.1. Fitoplankton biomasaren aldakortasuna

Orokorrean, estuarioetako fitoplankton biomasaren banaketa espazio-tenporala arautzen duen faktore nagusia ur gezaren sarrerak (isurketak) dira. Ur gezaren sarrerak eragin positiboa izan dezake estuarioetako fitoplankton biomasaren aldakortasunean, nutriente-iturri nagusi gisa eta ur-zutabearen geruzapena sortuz, horrela, fitoplanktonaren loraketei hasiera emanez, baina eragin negatiboak ere izan ditzake, uhertasuna areagotuz, fitoplankton populazioak estuariotik ateraz (hustuz) edo estres osmotikoa eraginez (McLusky eta Elliott, 2004). Gainera, ur gezaren isurketak estuarioko uren emari-abiadurak eta ondoriozko egonaldi-denbora ere baldintzatzen ditu (Paerl eta Justic, 2013).

Estuarioetako mantenugaien banaketa, oro har, sarrera puntual eta ez-egonkorren bitartez gertatzen da. Estuarioetan fitoplanktonaren hazkuntza mugatzen duen mantenugaia N dela ikusi bada ere (esaterako, Ryther eta Dunstan, 1971; Nixon, 1995), N eta P-ren aldibereko mugatzea aurkitzea ere ohikoa da (Malone et al., 1996), batez ere estuarioen gazitasun baxuko

barrualdeko eremuetan (Fisher et al., 1988; Paerl et al., 1995). Fitoplankton biomasaren hazkundea baldintzatzen duten N eta P-ren aldibereko mugatzea edo P mugaketa esklusiboa ur gezaren sarrerak altuen diren garaietan ematen da normalean, ur geza hauek N-an aberatsak izaten baitira (Fisher et al., 1988; Sylvan et al., 2006). Baldintza hauetan, N:P (16:1)-ren "Redfield ratio" molarra asko gainditu daiteke, batzuetan 200:1era iritsiz, P-ren faltaren ondoriozko fitoplankton hazkundearen mugaketa handia eraginez.

Gainera, estuarioetan fitoplanktonaren hazkuntza mugatzen duen beste faktore bat uraren uhertasuna da. Estuarioko uren uhertasun maila, jatorri naturalekoa denean, hainbat faktoreren araberakoa izaten da, hala nola, itsaso zein ibaiko urek dakarten partikula kantitatea, estuarioko zirkulazioa eta partikulen sedimentazio-abiadura (McLusky eta Elliott, 2004). Orokorrean, "uhertasun maximoa" estuarioaren erdialdeko edo barrualdeko eremuetan ematen da, ur geza eta gaziaren arteko nahasketa eremutik hurbil, bertan ematen diren prozesu fisiko-kimikoen eraginez. Hala ere, maximoa honen kokalekua eta tamaina aldakorra da, ur gezaren sarreraren (ibaiaren emariaren) indarraren arabera, emari txikiarekin estuarioaren barrualdean kokatuz eta ibai emari handiarekin kanporago mugituz. Gainera, giza jatorria duten materia partikulatuaren sarrera puntualak ere gerta daitezke estuarioetan, inguruko lurren erabileraren ondoriozkoak direnak, uraren uhertasun maila handitzen dutenak. Edonola ere, baldintza naturalek edo gizakiak eragindako uhertasunak estuarioetako ur-zutabean dagoen argi-eskuragarritasuna mugatzen du, horrela fitoplanktonaren hazkuntza mugatuz.

Bestetik, estuarioetako hustuketa-tasak eta egonaldi-denborak fitoplanktonaren hazkuntzarako elementu garrantzitsuak dira, biomasa fitoplanktoniko maximoa zenbatekoa den eta non garatu daitekeen baldintzatzen baitute (Lancelot eta Muylaert, 2011). Ibai fluxu handiko momentuetan, emari handiak egonaldi-denbora laburrak eta hustuketa-tasa altuak sortuko ditu estuarioan zehar, eta honen ondorioz estuarioko fitoplanktona itsasora ateratzen da haien hazkuntza-tasak loraketak garatzea ahalbidetu baino lehen. Honek, fitoplanktonaren hazkuntza oztopatu eta estuarioan biomasa fitoplanktoniko baxuak izatea eragiten du, fitoplanktonaren hazkuntza eta biomasa maximoak estuarioko eremu zabal eta egonaldi-denborarik luzeagoetara mugatuz.

Aipatutako faktoreen heterogeneotasun handiak estuarioetako biomasa maximoko eremuak aldakorrak izatea eragiten du. Estuario gehienetan, biomasa maximoak barrualdean ematen dira, ekarpen flubialek eragindako mantenugaien eskuragarritasun altuagoagatik, itsasoko ura, orokorrean, oligotrofikoagoa baita (Paerl eta Justic, 2013). Honek azaltzen du biomasa

maximoak gazitasun baxuko eremuekin (adibidez, Kromkamp et al., 1995) edo uhertasun altuko eremuekin (adibidez, Fichez et al., 1992) erlazionatzea. Hala ere, gerta daiteke biomasa maximoak estuarioaren eremu itsastarrean edo tarteko eremuan aurkitzea, bestelako mantenugaien sarrera puntualen kokapenagatik edo barrualdeko eremuen gehiegizko uhertasunak fitoplanktonaren hazkuntza mugatzen duelako (adibidez, Muylaert eta Raine, 1999). Azken kasu hauetan, mantenugaien murrizketa uraren gardentasunaren areagotzearekin konpentsatzen da.

Era berean, urtarokotasunak ere eragin zuzena dauka estuarioetako fitoplankton biomasaren aldakortasunean. Urtaroko biomasa aldakortasuna, hein handi batean, ibai-arroaren baldintzen araberakoa da, hau da, ur gezaren sarreren araberakoa, lurretik estuarioetara egiten den mantenugai eta sedimentuen sarrera arautzen baitute (McLusky eta Elliott, 2004). Sarrera hauek fitoplanktonaren hazkuntza susper dezakete sisteman mantenugai-eskuragarritasuna mugatua denean edo argi-baldintzak hobetzen direnean, edo hazkuntza mugatu dezakete, sedimentuez betetako uren sarrerak argiaren eskuragarritasuna gutxituz edo populazioak estuariotik ateraz. Orokorrean, fitoplankton biomasa maximoak udaberrian izaten dira, argia edo/eta mantenugaien eskuragarritasuna altuak direnean, udaberriko loraketak ahalbidetuz. Udan mantenugaien eskuragarritasunak altua izaten jarraitzen badu, sarrera berrien edo/eta birziklapenaren ondorioz, loraketek iraun dezakete (Paerl eta Justic, 2013). Urtaro hauek, gainera, tenperatura maximoen garaiak ere badira, fitoplanktonaren hazkunde-tasa altuak ahalbidetuz. Argitu behar da, urtarokotasun honek estuarioaren barruko eta erdialdeko eremuetan duela eragina batez ere, izan ere, eremu itsastarreko baldintzak egonkorragoak dira urtean zehar.

3.2. Fitoplankton-komunitateen osaeraren aldakortasuna

Estuarioetako fitoplankton-komunitateak osatzen dituzten talde eukarioto nagusiak diatomeoak, dinoflagelatuak, alga berdeak, kriptofitak eta haptofitak dira (Paerl eta Justic, 2013). Talde hauetako bakoitzak zeregin garrantzitsua betetzen du estuarioetako lehen-mailako ekoizpenean, elikadura sarearen dinamikan eta ziklo biogeokimikoetan. Era berean, modu desberdinean erantzuten diete mantenugaien aberasteari, presio hidrologikoari (ur gezaren isurketak eta gazitasun erregimenak), argi eskuragarritasunari (irradiazio-gradienteak eta uhertasuna) eta bazka-presioari. Hori dela eta, biomasarekin gertatzen den bezala, estuarioetako fitoplankton-komunitateen osaerak denboran eta espazioan zeharreko aldakortasuna jasaten du, izan ere, talde fitoplanktoniko bakoitzak mantenugai, argi edo bestelako baldintza fisiko-kimiko (ur-zutabearen egonkortasuna, gazitasuna, aztarna-metalen

presentzia, pH-a edo disolbaturiko karbono inorganikoa) ezberdinetan lortzen du hazkuntza-tasa optimoa. Gainera, talde edo espezie hauen bazkatze-tasa ezberdina izan daiteke, "goitik-behera"-ko kontrol selektiboa aurkituz.

Diatomeoak adibidez, estuarioetako talderik ugari, hedatu eta emankorrenetakoak dira, eta zeregin nagusia betetzen dute elikadura-sare planktonikoetan (Hasle et al., 1996). Talde honen presentzia eta hazkuntza mantenugaien eskuragarritasunarekin oso lotuta dago, izan ere baldintza zehatzak eskatzen ditu (Paerl eta Justic, 2013). Mantenugai-kontzentrazio moderatua edo altua duten urak nahiago izaten dituzte, organismo oportunistak (r estrategak) kontsideratuz, beraz, udaberrian eta udan loratzen dira gehienbat. Gainera, tenperatura nahiko baxuetan hazkuntza-tasa bizkorrak izateko gai dira eta, beraz, udaberriaren hasierako ur gezaren sarrerak aprobetxatuz, ohikoa da diatomeoek udaberri hasieran fitoplankton-komunitateak menderatzea (Harding et al., 2002; Valdes-Weaver et al., 2006; Harding eta Miller, 2009). Hala ere, haien zelula-horma eratzeko silizioaren beharra dutenez, diatomeoen hazkuntza Si-aren eskuragarritasunagatik kontrolatua edo mugatua dago. Estuarioko uretan disolbatutako Si-a estuarioa eratzen duen ibai-arroaren lurzoruaren meteorizazioaren produktua da, beraz, lurzoru hauek silizikoak ez badira edo edukia urria bada, Si-aren hornidura, eta beraz diatomeoen hazkuntza, mugatua izan daiteke. Si-aren mugaketa bereziki nabarmena egiten da estuarioak jatorri antropikoko mantenugaien sarrerak jasotzen dituenean, izan ere, N edo/eta P-ren kontzentrazioen igoerak eragiten dituzte baina ez Si-arenak, fitoplankton-komunitatearen osaeran aldaketak eraginez (Officer eta Ryther, 1980; Turner et al., 1998).

Beste talde batzuek, dinoflagelatuek adibidez, bizi-estrategia ezberdinak garatu dituzte estuarioen baldintzetara egokitzeko, organismo espezialisten (k estrategak) eredua jarraituz (Hasle et al., 1996). Orokorrean, uda garaian aurkitzen da dinoflagelatuen presentzia handiena estuarioetako fitoplankton-komunitateetan, mantenugaien kontzentrazioa jaisten hasten denean eta ur-zutabearen egonkortasuna handitzen denean, lehiakide hobeak baitira mantenugaien eskuragarritasuna baxua den inguruneetan eta mugimendu gutxiko uretan (Paerl eta Justic, 2013). Honen arrazoietako bat zenbait dinoflagelatu heterotrofo fakultatiboak izatea da, bakterio eta beste organismo fitoplanktoniko txikiago batzuk irentsiz edo/eta disolbatutako karbono organikoa kontsumituz hazteko aukera baitute. Honi esker, eta haien hazkuntza-tasa beste talde batzuena (diatomeoak, kriptofitak edo klorofitak) baino geldoagoa izan arren, dinoflagelatuek loraketa handiak sortu ditzakete estuarioetan, batzuetan kaltegarriak izan daitezkeenak. Gainera, ohikoa da negu amaieran ere estuarioetan zenbait

dinoflagelatuen (adibidez, *Heterocapsa* spp.) bat-bateko loraketak aurkitzea, argi-eskuragarritasunaren gorakadak (intentsitatea eta ordu kopurua), mantenugaietan aberatsak diren ur gezaren sarrerak eta bazka-presio ezak bultzatuta (Paerl et al., 1998; Litaker et al., 2002).

Badaude mareen uren zirkulazioak edo/eta ibaien eraginak baldintzatutako aldakortasuna erakusten duten taldeak ere, hazteko eta bizitzeko gazitasun lehentasun zehatzak dituztelako. Haptofitak adibidez, gehienbat banaketa itsastarra dutenak (Eikrem et al., 2016), estuarioaren kanpoaldeko eremuetara mugatzen dira, ur itsastar eta gazikaretara, eta barrurantz joan ahala fitoplankton-komunitatearen osaeran duen garrantzia galduz doa (Seoane et al., 2005). Alga berdeei dagokienez, klorofitak ohikoak dira estuarioen gazitasun baxuko barrualdeko eremuetan, batzuetan komunitateen talde nagusia bihurtuz (Tomas, 1997). Klorofitek hazkuntza-tasa azkarra dute eta ondo hazten dira indar handiko eta egonaldi-denbora baxuko gazitasun baxuko uretan (Paerl eta Justic, 2013). Normalean ur gezaren sarreratik hurbil dauden eremuek aipatutako baldintzak betetzen dituzte, eta mantenugaien eskuragarritasun altua izan ohi dute, alga berdeak bezalako hazkuntza azkarreko espezieen loraketak lagunduz.

Kriptofitei dagokienez, haien hazkuntza baldintza optimoak mantenugaietan aberatsak diren ur gazikarak dira. Ondorioz, normalean, kriptofiten loraketak gazitasun-gradiente handiko eremuetan ematen dira, estuarioen erdialde edo barrualdean, eremu meso- edo oligohalinoetan (Seoane et al., 2005; Vilicic et al., 2008). Loraketa hauek, askotan, diatomeoen loraketen ondoren ematen dira, izan ere, krirptofitek mugitzeko duten gaitasunari esker, gai dira ur zutabearen goiko partean mantentzeko, eskuragarri dagoen argia aprobetxatuz, udaberriko diatomeo loraketak amaitu eta sedimentuz beteriko ur gezaren sarrerek uraren gardentasuna gutxitu dutenean. Gainera, kriptofitak nahiko eraginkorrak dira mantenugaiak bahitzen mantenugaien eskuragarritasuna murritza denean, beraz ez dute arazorik diatomeo loraketen ondorengo baldintzetan hazteko, eta zenbait espeziek jarrera mixotrofoa ere erakusten dute. Honenbestez, kriptofitak lehiakide onak direla esan daiteke, askotan estuarioen erdiko edo barruko eremuetan fitoplankton-komunitateetan talde nagusia bihurtuz.

Talde nagusi hauek estuarioan zehar erakusten duten aldakortasunaz gain, aipatzekoa da, udako hilabeteetan, estuarioan dagoen ur gezaren sarrera txikia denean, egonaldi denbora altua denean, mantenugaiak agortzen hasten direnean eta tenperaturak eta ur-zutabearen geruzapena altuak direnean, hazkuntza motela eta mantenugaien erabilera eraginkorra duten

zenbait taxon ugaritzen direla komunitateetan, hala nola, organismo pikoplanktonikoak eta N2 finkatzaileak diren zianobakterio espezieak (Paerl eta Justic, 2013).

Estuarioetan dagoen fitoplanktonaren gaineko bazka-presioak eta "goitik-beherako" kontrolak aldakortasun espaziala (estuarioko gazitasun-gradientean zehar) eta tenporala (urtaroen araberakoa) erakusten du, estuarioko baldintza fisiko-kimikoekin (mantenugai eskuragarritasuna edo tenperatura) elkar-eraginean. Honek, fitoplankton-komunitatearen osaeraren aldakortasunean eragiten duten gainerako baldintzekin batera, hidrologikoki eta biogeokimikoki aldakorrak diren estuarioetan fitoplankton espezieen eta talde funtzionalen aniztasuna bermatzen du.



4. irudia. *Estuarioko prozesuen eskema (Statham, 2012-etik moldatua).*

4. Eutrofizazioa eta fitoplanktonaren rola uraren kalitatearen adierazle gisa

Eutrofizazio hitzak ur masek jasaten duten mantenugaien gehiegizko aberasteari eta horrek eragindako ondorio biologiko kaltegarriei egiten die erreferentzia (Sinha et al., 2017). Mantenugaien gehiegizko karga hauek 1950etik aurrera handitzen hasi ziren eta, gaur egun, eutrofizazioa arazo globala bihurtu da (Van Beusekom, 2018). Europan, konkretuki, eutrofizazioa trantsizio eta kostaldeko urek jasaten duten presio nagusienetako da (CIS, 2005).

Populazio-hazkundeak eta, hau asetzeko, elikagai-ekoizpenaren areagotzeak (nekazaritza, abeltzaintza eta akuikultura) landa-eskualdeetan zein hiriguneetan azaleko-isurketen eta hondakin-uren isurketen bidez uretako mantenugaien kontzentrazioak areagotzea eragin du (Doney et al., 2010; Glibert eta Burkholder, 2018). Estuarioek jasotzen dituzten jatorri antropikoko N eta P-ren sarrerak iturri desberdinetakoak dira eta horien proportzioak geografikoki eta demografikoki aldatzen dira (Paerl eta Justic, 2013). Nekazaritza nagusi den landa-eskualdeetan, N eta P sarreren % 50 eta % 75 bitartean iturri difuso eta "ez-puntualetakoa" da, hala nola, gainazaleko isurketek, euriteek eta lurpeko urek lixibiazio bidez eragindakoak (Paerl, 1997). Kasu hauetan, N eta P kargak nekazaritzan erabiltzen diren ongarrietatik datoz gehienbat (Howarth, 2008). Hiriguneetan, ordea, N eta P kargak iturri puntualetakoak izaten dira nagusiki (% 50etik gora), hondakin-uren isurketek, isurketa industrialek eta udal-isuriek eragindakoak (Castro et al., 2003). Gainera, ekosistema urtarretatik hurbil kokatzen diren abeltzaintza intentsiboko eremuak eta akuikultura eremuak ere mantenugai-iturri garrantzitsuak bihurtu dira (Glibert eta Burkholder, 2018). Abeltzaintza intentsiboko eremuetan, abeltzaintza estentsiboarekin alderatuz, animalia kopuru handia dago lur-eremu unitateko, eta beraz hondakin kopuru handia ere bai, inguruko ekosistema urtarretan mantenugaien aberastearekin eta bestelako kutsatzaileekin (mikroorganismo patogenoak edo solido esekiak) lotutako arazoak eraginez (Burkholder et al., 2007). Akuikulturari dagokionez, organismoen hazkuntzarako isuritako mantenugaien eta organismoek ekoitzitako iraitz-materialen bidez mantenugaien gehiegizko aberastea gerta daiteke (Burridge et al., 2010; Glibert eta Burkholder, 2018).

Estuarioek, beraz, ibaiek dakarten mantenugaien sarreraz gain (iturri naturala), inguruko nekazaritza lurretatik edo hiriguneetatik datozen mantenugai sarrerak jasotzen dituzte (iturri antropikoa). Gainera, sistema hauetan ematen diren prozesu geokimiko eta biologikoei esker, estuarioek "iragazki" moduan jarduten dute eta sartzen diren mantenugaien parte handi bat mantentzea lortzen dute, mantenugaien erretentzio eta erregenerazio gaitasun altua izanik (Cloern, 2001). Mantenugaien iturria edozein dela ere, ekosistema urtarretan elikadura-kate produktibo eta osasuntsu bati eusteko beharrezkoa den mantenugaien aberaste "onuragarriaren" eta, ekoizpen primarioa asko bizkortu eta materia organikoaren gehiegizko ekoizpena (hau da, eutrofizazioa) sustatzen duen mantenugaien aberaste "kaltegarriaren" artean dagoen aldea, oso txikia da. Ur gezako sistemetan kezka nagusia P den bitartean, estuarioetan eta kostaldeko uretan gehiegizko N da eutrofizazioaren eraile nagusia (Howarth eta Marino, 2006).

Eutrofizazioak estuarioak bezalako ur masetan eragiten dituen ondorio biologikoen artean fitoplankton loraketen ugaritzea, itsas-larreen murrizketa, disolbaturiko oxigenoaren murrizketa eta arrainen heriotza daude (Paerl, 1988, 2004). Fitoplanktonaren loraketen ondoren, bat-bateko tenperatura aldaketek, argiaren eskuragarritasun murrizketak edo/eta mantenugaien agortzeak loraketak desagertzea eragin dezakete, honek dakarren materia organikoaren pilaketarekin (Paerl, 1988). Materia organiko hau hondoan pilatu eta, bertan, bakterioek deskonposatu egiten dute, oxigeno kontsumo-tasa handituz. Hondoko ur hauek ez badira gainazaleko ur oxigenatuekin nahasten, oxigeno eskasia sortzen da (hipoxia edo anoxia), estuarioen ekosistema bentiko eta pelagikoetan ondorio kaltegarriak garatuz, hala nola, arrainen eta itsaskien heriotza (Paerl eta Justic, 2013).

Eutrofizazioak fitoplanktonean duen eragina ez da loraketen ugaritasunera bakarrik mugatzen. Mantenugaien kontzentrazio eta N:P:Si ratioen aldaketek fitoplankton-komunitateen osaeran eragin zuzena dute, fitoplankton talde ezberdinen ugaritasun erlatiboa eraldatu egiten baitu, eta horrek ondorio ekologiko sakonak izan ditzake (Meerssche eta Pinckney, 2019). Esaterako, jatorri antropikoko mantenugaien sarrerek N eta P kontzentrazioa handitu baina Si-arena berdin mantentzea eragiten dute, azken hau mugatzailea bihurtuz, eta honek diatomeoen hazkuntza mugatzen du. Gainera, fitoplankton talde bakoitzak N forma desberdinen aprobetxamendu-tasa espezifikoak ditu, eta honek haien hazkunde-tasan eta komunitatearen osaeran aldaketak eragin ditzake (Glibert et al., 2016). Beste batzuetan, gehiegizko mantenugaien-aberasteak HABak eratzen dituzten espezieen loraketak sustatu ditzake (Glibert eta Burkholder, 2018), izan ere, hauek, mantenugai-baldintza desorekatuetan toxina eta alelokimiko gehiago ekoizteko joera dute, beste fitoplankton espezie batzuen aurka lehiatzeko eta hauek gainditzeko abantaila emanez (Granéli eta Turner, 2006; Van Meerssche et al., 2018).

Testuinguru honetan, uretako mantenugaien kontzentrazioa eta fitoplanktona estuarioak bezalako ekosistema urtarren egoera ekologikoaren, eta bereziki eutrofizazioaren, ebaluaziorako adierazle erabilienetakoak dira, Europako Uraren Esparru Zuzentarauaren (UEZ; 2000/60/EE) edo Itsas Estrategiaren Zuzentarauaren (IEZ; 2008/56/EE) parte izanez (Seoane et al., 2011). Mantenugaien jarraipenaren bidez, sistemara egiten diren isurketa-antropikoek ur-masaren baldintza fisiko-kimikoetan dituzten efektu zuzenak kontrolatu daitezke, izan ere, isurketen efektuak, inguruko uretan ez ezik, isurketa eremuetatik haratago dauden uretara ere hedatzen dira (Poikane et al., 2019). Estuarioko mantenugaien

kontzentrazioen dinamikak ezagutzea beraz, sistemaren eutrofizazio arriskua kontrolatzeko erraminta bihurtu daiteke. Fitoplanktonari dagokionez, mantenugai-eskuragarritasun aldaketei erantzuna ematen dien lehen komunitate autotrofoa da (Paerl et al., 2003) eta, ekosistema urtarren elikadura-katean duen oinarrizko posizioa dela eta, mantenugai inorganikoen eta gainerako maila trofikoen arteko loturatzat hartzen da (Seoane et al., 2011). Ondorioz, aurretik azaldu bezala, estuarioetan ematen diren mantenugai inorganikoen aberasteak fitoplanktonaren hazkuntza sustatzen du eta komunitatearen osaera eraldatzen du, adierazle bikaina bihurtuz.

Europako Uraren Esparru Zuzentarauak uren egoera ekologia zehazteko adierazle gisa erabiltzen du fitoplanktona, ekosistema urtar kontinental, itsastar zein trantsiziokoetan. Bertan, fitoplanktonaren honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan ur-masa mota desberdinak sailkatu eta zehazten direnean: fitoplankton-komunitatearen osaera taxonomikoa eta ugaritasuna, ohiko baldintzekin alderatzean dagoen aldakortasun maila kontuan hartuz; fitoplanktonaren batez besteko ugaritasuna, komunitate-tipoaren baldintza fisiko eta kimikoekin alderatuz, eta biomasaren batez besteko kontzentrazioen aldaketa hauek bertan dauden organismoen orekan eta uren eta sedimentuen kalitate fisiko-kimikoetan izan dezaketen eragina; eta loraketen maiztasun eta intentsitatea, eta hauen koherentzia komunitate tipoaren baldintza fisiko eta kimiko espezifikoekin, udako hilabeteetan gerta daitezkeen loraketa iraunkorretan interes berezia erakutsiz. Gainera, Itsas Estrategiaren Esparru Zuzentarauak (IEEZ), lehen aldiz 2008an ezarri (2008/56/EC) eta 2017an eguneratu (2017/848/EU) zenak, "egoera ona" lortu beharreko 11 ingurumen deskriptoreez osatutako zerrenda bat ezartzen du eta fitoplanktona 1, 2, 3 eta 5 deskriptoreen parte da.

Estuarioetako fitoplanktonaren ekoizpena eta konposizioa kontrolatzen duten mantenugaien sarrerak identifikatu, karakterizatu eta kudeatzea zaila den arren, ikerketak eta jarraipenek ezinbesteko informazioa eskaintzen dute epe-ertain eta luzean eutrofizazioa kudeatzeko estrategiak ezarri eta uren kalitatea berreskuratu eta babesteko. Fitoplanktonari dagokionez, ekosistema urtarren elikadura-kateari eusteko ezinbestekoa den fitoplankton ekoizpena lortzea da helburua, gehiegizko loraketarik gabe, eta taxoi kaltegarrien agerpena eta loraketak saihestu edo, gutxienez, kontrolatzea. Gainera, mantenugaien eta fitoplanktonaren jarraipena egitea ekosistema urtarrek jasaten dituzten aldaketa antropikoen berehalako inpaktuak neurtzeko baliagarriak izateaz gain, aldaketa kaltegarri horiek arintzeko kudeaketa-estrategien eraginkortasuna ebaluatzeko ere balio du (adibidez, Eccles et al., 2020).

5. Fitoplanktonaren jarraipenerako teknikak

Aurreko ataletan azaldu bezala, fitoplanktonaren jarraipena ezinbestekoa da ekosistema urtarren funtzionamendua ulertu edo/eta uraren kalitatea ebaluatzeko. Honenbestez, asko dira helburu ekologikoekin (Mao et al., 2020; Diana et al., 2021; Dedman et al., 2022; Chen et al., 2023) edo uren kalitatearen ebaluaziorako (Cupertino et al., 2019; Amorim eta Nascimento, 2021; Kanboj et al, 2022; Chandel et al., 2023) ur gezetan, estuarioetan edo itsasoan egin diren fitoplanktonaren jarraipenak.

Fitoplanktonaren jarraipena egiterako orduan kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsu bat fitoplankton-komunitateen dinamismoa da, izan ere, sakabanatze espazial (mikrometroetatik metroetara) eta denbora-aldakortasun (minutuetatik egunetara bitarteko eskaletan) handia erakusten dute (Paerl eta Justic, 2013). Honek, ekosistemen berezko aldakortasun espazio-tenporal altuekin batera, fitoplanktonaren jarraipenerako teknikek lagin kopuru handiak azkar eta modu eraginkorrean, kostu minimoarekin, prozesatzeko beharra azaltzen du.

Asko dira gaur egun fitoplankton-komunitateen biomasa eta osaera ezagutzeko erabiltzen diren teknikak, hala nola (Kramer et al., 2023): mikroskopia (Karlson et al., 2010), errendimendu handiko kromatografia likido (HPLC) bidezko pigmentuen analisia (Mackey et al., 1996), teknika molekularrak (Jerney al., 2023), fluxu-zitometria (Sosik et al., 2010), *in situ* edo teledetekzio tekniketan oinarritutako estimazio optikoko metodoak (Uitz et al., 2015) edo zelula-eskaner kuantitatiboak (adibidez, Imaging FlowCytobot-arekin; Olson eta Sosik, 2007). Teknika hauetako bakoitzaren bereizmen-taxonomikoa ezberdina da eta, beraz, emaitzen zehaztasun maila ere ezberdina da. Honenbestez, teknikaren aukeraketa jarraipen-programaren xedearen araberakoa izango da. Hala ere, eskura dauden tresna guztien artean, ez dago indibidualki ekosistema bateko fitoplanktonaren benetako aniztasun guztia antzemateko eta zenbatzeko gai den teknikarik (Eriksen, 2021). Hori dela eta, posible izatekotan, fitoplankton-komunitateen jarraipenerako tekniken konbinazioa erabiltzea gomendatzen da, emaitza fidagarriagoak eta osatuagoak lortzeko (Huo et al., 2020; Pérez-Burillo et al., 2022).

Jarraian, fitoplankton ugaritasuna eta osaera aztertzeko gehien erabiltzen diren hiru metodoak garatuko dira: teknika mikroskopikoetan oinarritutakoak, pigmentuak erabiltzen dituztenak eta teknika molekularrak aplikatzen dituztenak.

5.1. Mikroskopia

XVII. mendean Anton van Leeuwenhoek mikroskopioa asmatzeak fitoplanktonaren behaketa zehatzagoa ahalbidetu zuen, Christian Gottfied Ehrenberg eta Ernst Heinrich Philipp August Haeckel mikroalgen behaketan aitzindari bihurtuz (Karlson et al., 2010). Ordutik, mikroskopio optikoan oinarritutako fitoplanktonaren analisirako hainbat teknika garatu dira eta, mende bat baino gehiagoan zehar, mikroskopia optikoa fitoplanktonaren azterketarako oinarrizko tresna izan da, gaur egun ere espezieen identifikaziorako metodo baliagarria eta erabilia izaten jarraitzen duelarik.

Metodo mikroskopikoetan, fitoplanktonaren identifikazioa espezieen morfologian eta ikusgai dauden bestelako irizpideetan oinarritzen da. Hori dela eta, ezinbestekoa da taxonomistek fitoplanktonaren identifikazioan trebetasun eta esperientzia maila handia izatea. Gainera, beharrezkoa da fitoplanktona identifikatzeko oinarrizko literatura erabiltzea, hala nola, Horner (2002), Tomas (1997) eta Throndsen et al.-ena (2003, 2007). Mikroskopioaren kalitatea ere funtsezkoa da espezieen identifikaziorako (Karlson et al., 2010).

Gaur egun, fitoplanktonaren azterketarako gehien erabiltzen den teknika mikroskopikoa Utermöhl metodoa da (Utermöhl, 1931, 1958). Teknika honek, fitoplanktonaren identifikazioaz gain, zelulen zenbaketa ere ahalbidetzen du, hau bere abantaila nagusia delarik. Gainera, honen bidez, zelula bakoitzaren tamaina, forma, biobolumena (Olenina et al., 2006) eta atseden fasea zehazteko aukera dago. Utermöhl metodoan (*5. irudia*), laginen analisirako, oro har Lugolez fixatuta dagoen ur laginaren alikuota bat (50 ml edo 10 ml, normalean) sedimentatzen da zenbaketa-kameraren gainean eta, bolumenaren araberako sedimentazio-denbora bat itxaron ondoren, grabitatearen ondorioz zelulak kameraren beheko partean geratu eta alderantzizko mikroskopioa erabiliz zelulak identifikatu eta zenbatu egiten dira (Edler eta Elbrächter, 2010) (*5. irudiak*). Utermöhl metodoa sedimentazioaren ostean zelulek zenbaketa-kameran poisson banaketa dutenaren ustean oinarritzen da, beraz, fitoplanktonaren zenbaketa eta identifikazioa kamera osoan zehar edo trantsektuka egin daiteke, azalera konkretu bat bakarrik aztertuz. Teknika honen bidez lortzen diren emaitzak zelula/bolumen unitateetan ematen dira.



5. irudia. *Fitoplanktonaren identifikazio eta zenbaketarako Utermöhl metodoaren materiala eta irudikapena: laginaren sedimentazioa (a), alderantzizko-mikroskopioa eta zenbaketa kameraren kokapena (b) eta laginaren analisia (c).*

Gaur egun Utermöhl metodoa fitoplankton-komunitateen jarraipenean asko erabiltzen den arren (adibidez, Barth et al., 2020; Chin et al., 2022; Abirhire et al., 2023), hainbat muga eta desabantaila ditu. Alde batetik, mikroskopio optiko bidezko fitoplanktonaren identifikazioa oso konplexua da, izan ere, espezieen arteko antzekotasun ugari daude eta ezaugarri diagnostikoak mugatuak dira askotan, espezie kriptikoak agertzen direnean bereziki. Beraz, mikroskopiak ezagutza taxonomiko zabala eskatzen du (Naik et al., 2011) eta, ondorioz, emaitzak gaitasun pertsonalen araberakoak dira (Muñiz et al., 2020). Gainera, laginen analisirako denbora dezente behar da (Edler eta Elbrächter, 2010), 2 eta 10 h bitartean laginaren eta analisiaren sakontasunaren arabera, eta sedimentazio denborak lagina berehala aztertzeko aukera eragozten du. Bestetik, Utermöhl metodoak ez du pikoplankton autotrofoa aztertzeko aukerarik ematen (Edler eta Elbrächter, 2010), ezta beste organismo txiki batzuk ere, tamaina txikiegia edo estruktura hauskorrak dituztelako eta beraz ezin direlako mikroskopio optikoarekin identifikatu ezta zenbatu. Honen ondorioz, askotan hainbat espezie edo genero baztertuak izan dira fitoplankton-komunitateen azterketetan, haien omisio edo identifikazio okerren bidez (Jeffrey et al., 1997; Agirbas et al., 2015). Horrez gain, emaitzen zehaztasuna onargarria izan dadin, gutxienez 500 zelula zenbatu beharko lirateke lagin bakoitzeko (Edler, 1979), honek daraman denbora eta ahaleginarekin, batzuetan (biomasa gutxi edo materia organiko gehiegi dagoenean, adibidez) ezinezkoa dena. Halaber, mikroskopioaren bidezko zenbaketarekin, ezin da populazioen egoera fisiologikoa zehaztu, ezta talde bakoitzak Chl *a* totalari egiten dion ekarpena ezagutu ere.

Utermöhl metodoaz gain, mikroskopiaren beste aldaera batzuk ere oso erabiliak dira fitoplanktonaren azterketan. Batetik, 1950. urtetik aurrera, identifikazio taxonomiko zehatzago bat egiteko helburuz, mikroskopia elektronikoaren erabilera ugaritzen hasi zen, bai ekorketa-mikroskopia baita transmisiokoa ere (Karlson et al., 2010). Teknika hauek, fitoplankton zelulen egitura xehetasun handiagoz ikusteko aukera ematen zuten, hala nola, horma-zelularra, gorputzeko ezkatak edo flageloaren oinarriaren egitura, baina ez dira zenbaketarako erabiltzen (Vaulot, 2001). Ekorketa-mikroskopia elektronikoa (EME), konkretuki, oso erabilia da diatomeoa espezie desberdinak identifikatzeko (adibidez, Li et al., 2019), diatomeoen frustuluek handipen handietan bakarrik ikusi daitezkeen espezie-espezifikoak diren mikro- eta nano-patroiak dituztelako (Soleimani et al., 2021). Bestetik, fluoreszentzian oinarritutako mikroskopia ere aplikatzen da fitoplanktonaren azterketan, izan ere, fitoplanktonaren pigmentu fotosintetikoek eta bestelako pigmentuek sortutako fluoreszentzia espezieen identifikazio eta zenbaketarako laguntza gisa erabil daiteke (Karlson et al., 2010). Hori dela eta, fluoreszentzia mikroskopia oso erabilia da pikoplankton espezieen ikerketarako, adibidez, *Synechoccocus* generoko zianobakterioa eta proklorofizeentzako (Di Tullio et al., 2003). Fluoreszentzia hau, gainera, bi modutara aplikatu daiteke (Karlson et al., 2010): naturala edo tindaketen bidezkoa. Fluoreszentzia naturalari dagokionez, organismo autotrofoen fluoreszentzia-gaitasun propioa baliatzean datza eta lagin biziekin edo formaldeido/glutaraldeidoz fixatutako laginekin egiten da, Lugolak ez du balio. Honek, zenbaketaz gain, organismo heterotrofoak eta autotrofoak bereizteko ere balio du. Bestetik, zelulen tindaketan oinarritutako floreszentzia teknikak ere badaude, hala nola kalkofluorra (Fritz eta Triemer 1985) edo DAPI (Porter eta Feig, 1980), non tindagai fluoreszentea (fluorokromoak) organismoen egituretan itsatsi eta haien identifikazioan laguntzen duen. Zehazki, kalkofluorra, dinoflagelatuen teken zelulosa tindatzeko erabiltzen da (Fritz eta Triemer 1985) eta DAPI-k azido nukleikoa tindatzeko balio du, zelulen DNA edo nukleoa tindatuz zelula guztien ikuspegi orokorra ahalbidetuz (Porter eta Feig, 1980). Hala ere, aipatutako teknika mikroskopiko hauek, normalean, ez dira fitoplanktonaren jarraipena egiteko erabiltzen, baizik eta teknika osagarri gisa, komunitate osoaren analisian zentratu beharrean organismo edo talde konkretuagoen azterketa sakonagoan laguntzen baitute.

5.2. HPLC bidezko fitoplankton pigmentuen analisia

Fitoplanktonaren jarraipenaren xedearen arabera, gerta daiteke espezie-mailako identifikazioa eta zenbaketa beharrezkoak ez izatea. Eskala handian fitoplanktonak ziklo biogeokimikoetan edo dinamika-trofikoetan duen inpaktua aztertzeko, adibidez, nahikoa da

fitoplanktonaren jarraipen teknikek maila taxonomiko altuetan (hau da, klase edo taldeak) identifikazio eta zenbaketa eraginkorrak izatea. Hori dela eta, pigmentu fotosintetikoen analisia funtsezko informazio iturri bilakatu da fitoplanktonaren azterketa ekologiko eta fisiologikoak egiteko. Azterketa pigmentarioek dituzten aplikazio zehatzen artean, fitoplanktonaren populazio aldaketak ikertzea (adibidez, aldaketa klimatikoarekin lotutakoak), sateliteetatik eratorritako alga-biomasa kalkuluen egiaztapenak egitea, uretako argi-aldaketen erantzun fotosintetikoak aztertzea edo ekoizle primarioen transferentzia trofikoa ezagutzea daude (Garrido eta Roy, 2015).

Fitoplanktonaren pigmentu fotosintetikoak hiru familia kimikotan banatzen dira: fikobiliproteinak, karotenoideak eta klorofilak (Wright eta Jeffrey, 2006). Gehienetan, "fitoplankton pigmentuen analisia"-ren bidezko fitoplankton-komunitateen azterketa aipatzen denean, klorofilen eta karotenoideen azterketa bateratuari egiten zaio erreferentzia, izan ere, bi konposatu hauek alga fotosintetiko guztietan agertzen dira, disolbatzaile organikoetan erraz erauzten dira eta sentikortasun handiz hauteman daitezke eremu ikuskorrean (Garrido eta Roy, 2015). Klorofila eta karotenoide hauek fitoplankton taxoi ezberdinetan agertzen dira espezifikotasun maila aldakorrarekin (Roy et al., 2011): batzuk fitoplankton talde ezberdinetan agertzen dira, izaera orokorragoa erakutsiz; eta beste batzuk fitoplankton talde bakarrera edo gutxi batzuetara mugatuta daude, "pigmentu diagnostiko" (PD) bezala jokatuz. Hori dela eta, klorofila eta karotenoideak markatzaile kimiotaxonomiko anbiguoak direla esan daiteke. Fitoplankton talde ezberdinen eredu-pigmentarioak *1. taulan* zehazten dira, pigmentu ezberdinek klase fitoplanktoniko nagusietan duten garrantzia irudikatuz.

60ko hamarkadatik, espektrofotometria edo fluorimetria bezalako teknikak ohikoak izan dira fitoplanktonaren azterketa pigmentarioan (Richards eta Thompson, 1952; Parsons eta Strickland 1963; Yentsch eta Menzel, 1963), baina teknika hauek muga anitz dituzte. Mugen artean, azpimarratzekoak dira, espektrofotometrian, argitaratutako ekuazio normalizatu eta xurgapen koefiziente anitzen artean aukeratzeko beharra eta, fluorimetrian, klorofila taldeen bereizmen txikia eta karotenoideak detektatzeko ezintasuna. Honen ondorioz, alternatiba bezala, fluoreszentziaren zuzeneko neurketa eta kromatografia likidoa bezalako tekniken erabilera asko areagotu da.

1. taula. *Fitoplankton klase nagusien pigmentu ugari eta taxonomikoki adierazgarrienen banaketa (Jeffrey eta Vesk, 1997-etik moldatua). Chl a: a klorofila; Chl b: b klorofila; Chl c_1: c_1 klorofila; Chl c_2: c_2 klorofila; Chl c_3: c_3 klorofila; Chl c_2-MGDG: c_2-MGDG klorofila; MgDVP: Mg-2,4-dibinil feoporfirin a5 monometil ester; DV Chl a: Dibinil Chl a; DV Chl b: Dibinil Chl b; βε–Car: α karotenoa; ββ–Car: β karotenoa; βγ–Car: γ karotenoa; εε–Car: ε karotenoa.*

Kodea: ●= pigmentu nagusia (>% 10); •= pigmentu minoritarioa (% 1-10); ⋅ = aztarna pigmentua (<% 1)

	Zianobakterioak I	**Zianobakterioak II**	**Errodofitoak**	**Kriptofizeoak**	**Klorofizeoak**	**Prasinofizeoak**	**Euglenofizeoak**	**Eustigmatofizeoak**	**Diatomeoak**	**Dinoflagelatuak**	**Primnesiofizeoak**	**Krisofizeoak**	**Rafidofizeoak**
I. Klorofilak													
Chl *a*	●		●	●	●	●	●		●	●	●	●	●
Chl *b*					●	●	●	●					
Chl c_1									●		●		●
Chl c_2				●					●	●	●	●	●
Chl c_3											●	●	
Chl c_2-MGDG											⋅		
MgDVP		⋅				●							
DV Chl *a*		●											
DV Chl *b*		●											
II. Karotenoak													
βε–Car				⋅						⋅			
ββ–Car	⋅	⋅			⋅	⋅	⋅		⋅	⋅	⋅	⋅	●
βγ–Car					⋅			●				⋅	
εε–Car				⋅								⋅	
Xantofilak													
Aloxantina				●									
Anteraxantina					⋅	⋅	⋅						
Biolaxantina					●	●		●					
19'-butanoiloxifukoxantina											●	●	
Diadinoxantina							●		●	●	●	●	●
Diatoxantina							⋅		⋅	⋅	⋅	⋅	⋅
Dinoxantina										●			
Fukoxantina									●		●	●	●
19'-hexanoiloxifukoxantina											●		
Krokoxantina				⋅									
Luteina					●	⋅							
Monadoxantina				⋅									
Neoxantina					●	●	⋅						
Peridinina										●			
Prasinoxantina						●							
Zeaxantina	●	●	●		⋅			●					

Gaur egun, bereizmen altuko kromatografia likidoa (HPLC) da fitoplanktonaren klorofila eta karotenoideen identifikazio eta kuantifikazio zehatza egiteko aukerazko teknika (Garrido eta Roy, 2015). Hala ere, hain erabilia den teknika honek, urteetan zehar, hainbat hobekuntza jasan ditu, fitoplankton-komunitatearen azterketa eraginkorra burutu ahal izateko (Garrido et al., 2011; Roy eta Garrido 2013). Metodo klasikoek fase alderantzikatuko C18 zutabea eta metanol (Gieskes eta Kraay, 1983) edo azetonitriloa (Wright eta Shearer, 1984) bezalako disolbatzaileak erabiltzen zituzten. Mantoura eta Llewellynek (1983) eta Zapata et al.-ek (1987) klorofila polarrenen erretentziorako hobekuntzak egin zituzten eta, beranduago, aurreko metodoek zituzten abantailak konbinatuz, Wright et al.-ek (1991) nazioarteko ozeanografia programetan protokolo gisa erabili zen metodo bat garatu zuten, ozeanoen ikerketarako batzorde zientifikoak (SCOR) gomendatzen zuena (Wright eta Jeffrey, 1997). Hala ere, metodo honek ez zuen Chl *c*-en banaketa behar bezala egiten, ezta Chl *a* eta Chl *b*-ren mono-dibinil bikoteena ere. Honen harira, Rodriguez et al.-ek (1998) C8 zutabean oinarritutako metodo bat aurkeztu zuten, aurretik aipatutako arazoak ebazten zituena kultibo monoalgaletan, baina ur lagin arruntekin ordea ez. Zapata et al.-ek (2000), fase mugikorrari piridina gehituz, bereizmen eta errepikakortasun handiko metodoa aurkeztu zuten, gutxienez 20 klorofila eta 34 karotenoide bereizteko gai zena. Gaur egun, HPLC bidezko fitoplankton pigmentuen analisian gehien erabiltzen diren metodoek (Zapata et al., 2000; Van Heukelem eta Thomas, 2001) C8 zutabean oinarritzen dira, Chl c_1/c_2 eta Chl *a*/DVChl *a* bikoteen bereizmen ona lortuz, baina ez dira Chl *b*/DVChl *b* bikotearen banaketa egokia egiteko gai (Wright eta Jeffrey, 2006). Hori dela eta, azken urteetan zutabe ezberdinen erabilera proposatzen duten metodo alternatibo batzuk garatuz joan dira, hala nola, Jayaraman et al.-ek (2011) (C16-Aminda zutabea) edo Sanz et al.-ek (2015) (Silize-pentafluorofeniloctadecil zutabea) proposatutakoa.

Edonola ere, gaur egun, HPLC-ak fitoplankton talde ezberdinek dituzten 50 pigmentu baino gehiago identifikatzeko eta kuantifikatzeko aukera ematen du (adibidez, Zapata et al., 2000). Teknika honek, Chl *a*-ren kuantifikazioa zehaztasun handiz egiteko aukera ematen du, fitoplankton talde guztietan dagoen pigmentua eta, ondorioz, fitoplanktonaren biomasa totalaren estimaziorako erabiltzen dena (Jeffrey et al., 1997). Gainera, fitoplankton-komunitatearen osaera zehazteko balio duten pigmentu diagnostiko anitzen identifikazio eta kuantifikazioa ahalbidetzen du (Barlow et al., 2008). Honenbestez, HPLC bidezko pigmentuen analisia, mikroskopiaren alternatiba baliagarria izan daiteke, fitoplanktonaren biomasa totala eta komunitatearen konposizioa zehazteko helburuak betez, aztertutako bolumen handiago batean oinarrituta (Agirbas et al., 2015). Gainera, mikroskopiak ez bezala,

pigmentuen analisiak, piko- eta nano-fitoplanktonaren kuantifikazioa ahalbidetzen du, populazioen egoera fisiologikoa balioztatzeko aukera ematen du, analisia azkarra da eta teknikaren errepikakortasuna eta objetibotasuna altua da (Wright eta Jeffrey, 2006; Barlow et al., 2008; Roy eta Garrido, 2013). Ondorioz, pigmentuen analisia asko erabiltzen da fitoplanktonaren jarraipenerako (Damar et al., 2020; Miranda-Alvarez et al., 2020; Mudakikwa et al., 2021; Cereja et al., 2022; Lee et al., 2022). Hala ere, metodo honek muga garrantzitsu bati aurre egin behar dio fitoplankton-komunitatearen osaera aztertzeko erabiltzen denean: fitoplankton talde batzuek PD esklusiborik ez izateak eta zenbait PD hainbat taldetan agertzeak hauen bereizketa-ahalmena murrizten du (Latasa, 2007; Nunes et al., 2018).

Muga honi aurre egiteko asmoz, pigmentuen datu multzoen interpretazio taxonomikorako (kimiotaxonomia) tresna matematiko desberdinak garatu dira urteetan zehar (Letelier et al., 1993; Mackey et al., 1996; Uitz et al., 2006; Latasa, 2007; Van den Meersche, et al. 2008; Kramer eta Siegel, 2019; Hayward et al., 2023). Tresna hauek, PDak eta fitoplankton taldeak erlazionatzeko eta talde horietako bakoitzak fitoplanktonaren biomasa totalean (Chl *a*) duen ekarpena zehazteko, PD:Chl *a* ratioen erabileran oinarritzen dira (Higgins et al., 2011). Gieskes eta Kraay-k (1983) erregresio lineal anitz proposatu zituzten PD espezifikoen eta Chl *a*-ren arteko erlazioa zehazteko, baina ez zuten kontuan hartu zenbait PD hainbat talderen artean partekatzen direla. Partekatutako PD-en arazoari aurre egiteko, hainbat autorek (adibidez, Letelier et al., 1993; Vidussi et al., 2001) alderantzizko aldibereko ekuazioak (ISE) erabiltzea proposatu zuten, DPen kontzentrazioen kenketak eginez, fitoplankton talde bakoitzak Chl *a* totalari egindako ekarpena kalkulatuz. ISE metodoaren antzeko oinarriarekin, Mackey et al. (1996) CHEMTAX softwarea garatu zuten, erabilera errazagoa zuena (Higgins et al., 2011). Kasu honetan, ekuazioak eraiki beharrean, erabiltzaileak pigmentu:Chl *a* ratio matrize bat eraikitzen du espero den fitoplankton talde guztiak biltzen dituena. Horren ondoren, Bayesian Compositional Estimator (BCE) (Van den Meersche et al., 2008) eta Phytoclass (Hayward et al., 2023) bezalako metodo kimiotaxonomiko alternatiboak proposatu dira pigmentuen bidez fitoplankton-komunitateen osaera deskribatzeko. Gainera, pigmentuen interpretazio ez-taxonomikoak ere proposatu dira, Vidussi et al-ek (2001) eta, geroago, Uitz et al.-ek (2006) deskribatutakoak esaterako, fitoplankton-komunitatearen tamaina-klaseak zehaztea helburu dutenak.

Pigmentuen datuetatik abiatuta fitoplankton-komunitateen osaera eta talde bakoitzak fitoplanktonaren biomasa totalari egiten dion ekarpena kalkulatzeko aipatutako tresnak oso

erabiliak dira fitoplanktonaren jarraipenetan (adibidez, Uitz et al., 2009; Chase et al., 2020; Flander-Putrle et al., 2021), batez ere CHEMTAX-a (adibidez, Miranda-Alvarez et al., 2020; Wang et al., 2021; Hyun et al., 2022). Hala ere, kontuan hartu beharreko eragozpen komun batzuk partekatzen dituzte, hala nola, PD bat taxoi fitoplanktoniko batekin zuzenean lotzeak dakarren gehiegizko sinplifikazioa (PD batzuk hainbat taldek elkar banatzen dituztelako) eta tresnak modu egokian aplikatzeko komunitatearen osaeraren aurretiazko ezagutzaren beharra.

5.3. Teknika molekularrak – DNA metabarcoding-a

70eko hamarkadatik aurrera, errendimendu altuko sekuentziazio (High-Throughput Sequencing, HTS; edo Next-Generation Sequencing, NGS) teknologien garapenari esker, metodo molekularrak fitoplankton taxoiak identifikatzeko aukerazko teknika bihurtzen ari dira dibertsitatearen ezagutza helburu duten jarraipen-lanetan (Trebitz et al., 2017; Rimet et al., 2021). Teknika molekular anitz daude, nukleotido sekuentziak aztertuz, komunitate biologikoen karakterizazio taxonomiko eta metabolikoa egiteko, espezie toxikoak edo inbaditzaileak azkar detektatzeko, populazioen arteko konektibitatea zehaztu edo gizabanakoei populazioak esleitzeko gai direnak (Bourlat et al., 2013). Teknika genomiko hauen artean barcoding-a, metabarcoding-a, metagenomika, metatranskriptomika, qPCR eta SNP genotyping-a daude, baina itsasoan zein trantzisio uretan fitoplanktonaren dibertsitatea eta banaketaren jarraipena egiteko teknikarik erabiliena eDNA metabarcoding-a da (Jerney et al., 2023).

Alde batetik, ingurumen DNA (eDNA) biodibertsitatearen karakterizaziorako tresna indartsua da, izan ere, komunitateen detekzio sentikorra eta erresoluzio altukoa eskaintzen du eta eraginkorra da gutxi aztertutako edo arraroak diren espezieak aztertzeko (Bunholi et al., 2023). Bestetik, "barcoding"-a, DNA zati estandarizatu labur baten (barcode) sekuentziazioaren bidez ale bati taxoi bat esleitzeko metodoa da (Bucklin et al., 2011). *Barcode*-a, espezie bakoitzarentzat esklusiboa da, beraz, espeziaren identifikazio eta diskriminaziorako balio du. Metodo hau, espezie bakar batentzat izan beharrean, komunitate oso bat barne hartzen duen laginetan aplikatzen denean, "DNA metabarcoding" izenez ezagutzen da (Bourlat et al., 2013) (*6. irudia*). Beraz, eDNA metabarcoding-a, DNA eskualde laburren sekuentziazioan oinarritutako lagin naturalen komunitate osoaren aldibereko analisi molekularra da (Jerney et al., 2023). Teknika honetan, *6. irudian* ikusten denez (Corell eta Rodriguez-Ezpeleta, 2014), *barcode*-aren albo bietan kokatzen diren *primer*-ak (DNAa

sekuentzia laburrak) erabiltzen dira DNA genomikotik abiatutako *barcode*-aren anplifikaziorako, PCR (Polymerase Chain Reaction) bidez egiten dena (Green eta Sambrook, 2012). Metabarcoding-aren kasuan, DNA lagin osotik erauzten denez, PCRak ez du produktu bakarra anplifikatzen, lagineko espezie ezberdinei dagozkien produktuen nahasketa baizik. Metabarcoding-etik lortutako produktuen sekuentziaziorako, errendimendu handiko sekuentziazio teknologiak (edo NGS) erabiltzen dira (hala nola, Illumina edo 454) produktu nahasketen sekuentziazio zuzena ahalbidetzen baitute (Nowrousian, 2010). Amaitzeko, metabarcoding-a (baita barcoding-a ere) aurretik eraikitako erreferentziazko datu-baseetan oinarritzen da sekuentzien eta espezieen arteko loturak zehazteko (Bourlat et al., 2013).



6. irudia. *Barcoding (ezker) eta metabarcoding (eskuin) tekniken urratsen irudikapen eskematikoa. Corell eta Rodriguez-Ezpeleta-tik (2014) moldatua.*

Mikroskopia bezalako metodo tradizionalekin konparatuz, metabarcoding-a komunitateen biodibertsitatearen azterketarako metodo eraginkorragoa da, izan ere, edozein bizitza-fasetan dauden espezieak, espezie kriptikoak eta hauskorregiak edo txikiegiak izateagatik baztertuak izan diren espezieen identifikazioa ahalbidetzen du (Comtet et al., 2015; Jerney et al., 2023). Gainera, datu-multzoak osoagoak dira, bizkorrago eskuratu daitezke eta ez daude trebetasun taxonomikoaren menpe (Penna et al., 2017; Trebitz et al., 2017). Era berean, barcoding-arekin konparatuz, prozesu neketsua dena espezie bakoitza bakarka prozesatu behar delako (Stein et al., 2014), metabarcoding-ak lagin osoak aztertzea ahalbidetzen du, organismoak isolatu beharrik gabe. Horrek, lagin kopuru handiagoak denbora tarte txikiagoan aztertzeko aukera

ematen du, eta ondorioz, jarraipenen kostuak murriztu eta eskala handiagoko jarraipenak egitea ahalbidetzen du (Jerney et al., 2023). Hau guztia kontuan hartuz, eta azken urteotako errendimendu altuko sekuentziazio teknologien garapenari esker, fitoplankton-komunitateen jarraipena egiteko metabarcoding-a erabiltzen duten ikerketa asko daude gaur egun (adibidez, Chen et al., 2019a; Liu et al., 2020; De Luca et al., 2021; Pérez-Burillo et al., 2022; Zhang et al., 2023), mikroskopia bezalako metodo tradizionaletan oinarritutako komunitateen azterketetan aurkitutako mugak gaindituz (adibidez, Gran-Stadniczeñko et al., 2019). Gainera, munduan zehar egiten diren itsas-ingurumeneko proiektu askotan aplikatzen da metabarcoding-a fitoplanktona aztertzeko, hala nola, Tara Oceans Expedition (Malviya et al., 2016) eta Ocean Sampling Day (Kopf et al., 2015). Honek, metabarcoding-a fitoplankton-komunitateen dibertsitate espezifikoaren informazioa eskaintzeko eta fitoplanktonaren jarraipen-programetan erabiltzeko teknika aproposa dela frogatzen du.

Hala ere, metabarcoding teknikaren erabilera eraginkorra izan dadin eta emaitza fidagarriak lortu ahal izateko, hainbat premisa esperimental eta analitiko bete behar dira: "barcode"-aren aukeraketa egokia, datu-baseen osotasuna eta protokolo estandarizatuen erabilera. Lehenik eta behin, aztergai diren organismo guztietan dagoen DNA zati ("barcode") bat aukeratu behar da, espezieen arteko bereizketa ahalbidetzeko nahikoa sekuentzia-aldakortasuna duena (Hebert et al., 2003) eta, PCR bidezko anplifikazioan parte hartuko duten *primer* unibertsalen diseinua errazteko, alboetan kontserbatutako eskualdeak dituena (Leray et al., 2015). Gainera, "barcode" eta taxonomiaren arteko lotura egin ahal izateko datu-base osatuak eta zehatzak egon behar dira (Zepeda-Mendoza et al., 2015), izendapen taxonomikoa datu-basea bezain zehatza eta fidagarria baita. Azkenik, laginak prozesatzeko, baita datuak aztertzeko, protokolo estandarizatuak erabili behar dira, aztergai den komunitatearen karakterizazio fidagarria bermatu eta emaitza erreproduzigarriak eta konparagarriak sortzea ahalbidetuz (Creer et al., 2016).

Gaur egun, ingurumen laginetan metabarcoding bidez mikroorganismo itsastar eukariotoen aniztasuna eta komunitate-egiturak zehaztasunez aztertzeko markagailurik erabiliena 18S rRNA genea da (Martin et al., 2022). Gene honetan, fitoplankton biodibertsitatea aztertzeko balio duten oso aldagarriak diren hainbat eskualde daudela ikusi da (V1-3, V4 edo V9, adibidez), eta hauen hautaketak eztabaidagai izaten jarraitzen duen arren, eskualde erabilienak V4 (450 base-pare [bp] inguru) eta V9 (150 bp inguru) dira (Dos Santos et al., 2022). Hasieran, Illumina teknologiak sekuentzia-tamainan mugatua zuenez, V9-aren erabilera nagusitzen zen (Amaral-Zettler et al., 2009), baina Illumina MiSeq-aren garapenak

V4 bezalako eskualde luzeagoen sekuentziazioa ahalbidetu zuen (van Dijk et al., 2014). Ordutik, hainbat ikerketek V4 eta V9-ak eukarioto urtarren dibertsitatea aztertzeko duten eraginkortasuna alderatu dute (Traging et al., 2018; Zhang et al., 2019), eskualdearen aukeraketa aztertu nahi den maila taxonomiko edo organismo taldearen araberakoa izan behar dela ondorioztatuz (Tragin et al., 2018). Hala ere, orokorrean, fitoplankton-komunitatearen osaera aztertzeko, 18S rRNA V4 eskualdea da gehien erabiltzen dena (adibidez, Piredda et al., 2017; Gran-Stadniczeñko et al., 2019; Liu et al., 2020; Wang et al., 2022), luzeagoa eta aldakorragoa delako, eta bere datu-baseak osatuagoak direlako (Dos Santos et al., 2022). Aipatu behar da, berriki, V7 eskualdea erabiltzen duen ikerketa bat argitaratu dela (Huo et al., 2020) eta 18S ez den beste markatzaile batzuk ere erabiliak direla fitoplankton-komunitateen ikerketetan, adibidez ITS (Zhang et al., 2019), 16S (Eiler et al., 2013; Esenkulova et al., 2019) eta 23S (Yoon et al., 2016).

Bestalde, *primer*-en hautaketa ere funtsezkoa da fitoplankton-komunitateen identifikazio taxonomiko zehatza lortu ahal izateko (Vaulot et al., 2021), baita tratamendu bioinformatikoa ere (Pauvert et al., 2019). Metabarcoding-en bidezko espezieen hautematea PCR *primer*-en aukeraketaren araberakoa da, hauek taxoi guztiak anplifikatzeko nahikoa generiko eta aldi berean espezieak bereizteko adina espezifikoa izan behar dutelarik (Jerney et al., 2023). Fitoplanktonaren kasuan, bi baldintza hauek betetzen dituen *primer* bakarra aukeratzea zaila da, izan ere, fitoplanktonak elkarrengandik urrun dauden talde taxonomiko ugari biltzen ditu. Fitoplankton eukariotoaren dibertsitatea aztertzeko *primer* unibertsalen erabilera oso hedatua dago (adibidez, Stoeck et al., 2010; Hadziavdic et al., 2014; Tanabe et al., 2016), eta aukera onenaren inguruko adostasunik egon ez arren, 18S rRNA V4 markagailuarekin lan egiterako orduan gomendagarrienak Balzano et al. (2015)-ena (Latz et al., 2022) edo Stoeck et al. (2010)-ena dira (Vaulot et al., 2022). Hala ere, ohikoa da aniztasun handiagoa detektatzeko helburuz markatzaile eta *primer* bikote anitzak erabiltzea (Smith et al., 2017; Alberdi et al., 2018; Zhang et al., 2018; Choi eta Park, 2020). Metabarcoding-aren tratamendu bioinformatikoari dagokionez, kanalizazio konputazionalen (*computational pipeline*-en) bidez burutzen da eta hurrengo pausuak biltzen ditu: luzera eta kalitatean oinarritutako sekuentzia gordinen iragazketa, sekuentziak Unitate Taxonomiko Operatiboetan (*Operational Taxonomic Unit*; OTU) edo Anplikon Sekuentziaren Aldaeretan (*Amplicon Sequence Variants*; ASV) taldekatzeko algoritmo eta baldintzak ezartzea eta datu-baseetan oinarritutako identifikazio-taxonomikoen esleipena (Tragin et al., 2018; Mortagua et al., 2019). Kanalizazio softwar-aren artean erabilienetakoa DADA2 (Callahan et al., 2016) da, R softwar-aren bitartez edo QIIME2 (Boylen et al., 2019) softwar-aren parte bezala, baina

Mothur (Schloss et al., 2009) edo PEMA (Zafeiropoulos et al., 2020) bezalako "pipeline"-ak ere erabiliak dira. Datu baseei dagokienez, NCBI GenBank (Benson et al., 2012) da informazio gehien biltzen duena, baina badaude fitoplanktonarentzat zehatzagoak diren eta adituek osatuak diren datu base eraginkorragoak, hala nola, SILVA (Quast et al., 2013), PR2 (Guillou et al., 2013) eta GTDB (Parks et al., 2022). Gainera, datu molekularrak taxon-inbentario ekologikoetan eraldatzea ahalbidetzen duten software hauek eta izendapen taxonomikoa baldintzatzen duten datu-baseak etengabe hobetzen ari dira (Brandt et al., 2021; Jenreyet al., 2023).

Hala ere, metabarcoding-a fitoplankton-komunitateen biodibertsitatea aztertzeko gero eta aukera hobea bihurtzen ari den arren, hainbat muga ditu. Alde batetik, emaitzen eraginkortasuna eta zehaztasun-maila, hein handi batean, oinarrizko hautaketa metodologikoen (gene markagailua, *primer* bikotea edo bioinformatika erabakiak) menpe dago (Santoferrara, 2019). Gainera, metabarkoding-aren lan-fluxuan zehar gerta daitezkeen alborakuntza teknikoek ere eragin negatiboa izan dezakete emaitzetan (Taberlet et al., 2012; Martin et al., 2022), hala nola, kutsadura edo/eta laginen kontserbazioan (Mäki et al., 2017), DNA erauzketan (Van der Loos eta Nijland, 2017) eta anplifikazioan (Latz et al., 2022) gerta daitezkeen aldakortasunak. Emaitzen aldakortasun eta arazo tekniko hauetako asko, ordea, protokolo estandarizatuak jarraituz ekidin daitezke (Bunholi et al., 2023), izan ere, eDNA metabarcoding-a burutzeko gida eta protokolo batzuk eskuragarri daude jada, hala nola, Elersek et al.-ek (2021) ur gezako fitoplanktona aztertzeko egindakoa edo Jerney et al.-ek (2023) fitoplankton itsastarrarentzako egindakoa. Bestetik, fitoplankton espezie asko mikroskopiaren bidez identifikatzeko edo/eta isolatzeko zailak dira, eta, beraz, ez dago hauen erreferentzia molekularrik eskuragarri eta zaila da datu-base osatuak sortzea. Hori dela eta, datu baseen osotasun falta de teknika honen mugarik handienetako bat (Rimet et al., 2021). Azkenik, DNA metabarcoding-aren muga nabarmenena eta fitoplanktonaren jarraipen metodo eraginkorra izatea ekiditen duena kuantifikazio gaitasun eza da. 18S rRNA-ren multikopia izaerak eragin zuzena dauka metabarcoding bidez identifikatutako taxoien ugaritasun emaitzetan, izan ere, fitoplankton espezie, genero eta talde bakoitzaren gene kopia kopurua aldakorra da (Santi et al., 2021; Martin et al., 2022). Honen ondorioz, metabarcoding-ren bidez taxoien ugaritasun erlatiboak kalkulatu daitezke, baina ez dago taxoien ugaritasun absolutua zehazteko aukerarik (Jenrey et al., 2023), metodo erdi-kuantitatiboa izatera mugatuz (Albaina et al., 2016). Hala ere, hainbat ikertzailek (Martin et al., 2022; Piwosz et al., 2020) defendatzen dute eDNA metabarcoding bidez zehazten diren

komunitate ugaritasun erlatiboak erabilgarriak eta fidagarriak direla interpretazio ekologikoen testuinguruan.

II. IKERKETA EREMUA

Urdaibai estuarioa, Oka, Mundaka edo Gernikako estuarioa bezala ere izendatua izan dena, Oka ibaiaren bokalean eratutako eremu naturala da, Urdaibai Biosfera Erreserbaren ardatz zentrala. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE-ko) mendebaldeko kostaldean kokatua dago, Bizkaian, Busturialdeko eskualdean hain zuzen ere (*7. irudia*). Honenbestez, estuarioa Kantauri itsasoan itsasoratzen da, Bizkaiko golkoan, Matxitxako eta Ogoño lurmuturren artean konkretuki (43º 22´ I, 2º 40´ M).

Kantauri itsasoko kostalde osoa bezala, Urdaibaiko eskualdea klima ozeanikoaren menpe dago, honen ezaugarri nagusiak aldaketa termiko txikiak, hezetasun erlatibo altua, urtean zeharreko euri-jasen ugaritasuna eta hauen banaketa homogeneoa eta izozteen urritasuna dira. Honenbestez, eremu honetan, prezipitazioak ugariak izaten dira (1000-1200 mm, urtean 180-200 egun), maximoak udaberri/udazkenean eta minimoak udan izanik, eta eguzki-erradiazioaren balioak nahiko baxuak (urteko batez bestekoa 3,8 kWh m^{-2} baino txikiagoa). Tenperaturari dagokionez, Mexikoko Golkotik iristen den ur korronte beroa (Gulf Stream) aipatu behar da, kostalde honetako urak nabarmen epeltzen baititu, baita troposferaren erdialde eta goiko aldeko mendebaldeko haize (Westerlies) atmosferikoek duten eragina ere (Usabiaga et al., 2004).



7. irudia. *Ikerketa eremuaren kokapena. Ezkerraldean, Busturialdea eskualdearen eta Urdaibai estuarioaren kokapena, Bizkaiko golkoaren (goian) eta Kantauriar kostaldearen (behean) baitan. Eskuinaldean, estuarioaren kokapena Urdaibai Biosfera Erreserbaren barruan.*

Estuariora urak isurtzen dituen ibai nagusia Oka da. Ibai honek Zugaztietan du iturburua, Oiz, Gorroño eta Bizkargai mendietatik datozen errekastoak elkartzen diren lekuan. Kantauriar isurialdeko gainerako ibaiak bezala, Oka ibaia, laburra, malda handikoa eta izaera torrentzialekoa da, eta 3,6 m^3 s^{-1}-ko batez besteko emaria dauka (Monge-Ganuzas, 2019; Barroeta et al., 2023), urtaroaren arabera nahiko aldakorra dena, udako lehorte garaietan 0 m^3 s^{-1}-koa izatetik neguko garai euritsuenetan 17 m^3 s^{-1}-koa izatera arte (Madariaga eta Orive, 1995). Guztira, Okaren ibai-arroak 183,21 km^2 inguruko azalera drainatzen du (Barroeta et al., 2023). Gainera, Oka-z gain, badira estuariora urak zuzenean isurtzen dituzten beste hainbat ibai ere (*7. irudia*), hala nola, Golako ibaia (eskuineko isurialdean, Gernika parean), Mape ibaia (ezkerreko isurialdean, Forua parean), eta beste zenbait errekasto (adibidez, Amunategi, Busturian). Hauen artean, Golako ibaia da, Oka ibaiaren atzetik, estuarioari ekarpen handiena egiten diona. Horrez gain, Urdaibaiko lur azpiko baliabide hidrikoak ere aipatzekoak dira (Santa Eufemia-Ereñozar unitate karstikoa eta Gernikako unitate detritikoa), gainazaletik doazen urekin batera sistema hidrodinamiko bakarra eratzen baitute, zeinetan batzuen eta besteen fluxuak elkar eragiten duten eta elkarren menpekoak diren.

2. taula. *Urdaibai estuarioko ezaugarri nagusiak (Villate et al., 1989[a]; Valencia et al., 2004[b]; Monge-Ganuzas et al., 2019[c]; Barroeta et al., 2023[d]).*

Parametro hidromorfometrikoak	
Estuarioaren luzera (km)[d]	13,7
Bokalaren sekzioa (m^2)[a]	1.286
Estuarioaren batez besteko sakonera (m)[a,d]	2,59
Estuarioaren sakonera maximoa (m)[b]	10
Urteko batez besteko ibaiaren emaria ($m^3\ s^{-1}$)[b,c,d]	3,6
Arroaren azalera (km^2)[d]	183,21
Estuarioaren azalera (km^2)[a,d]	1.89
Estuarioaren batez besteko bolumena (m^3)[b]	$3{,}29 \times 10^6$
Estuarioaren batez besteko marea prisma (m^3)[a,d]	$4{,}86 \times 10^6$
Estuarioaren bolumena/Ibaiaren emaria (egunak)[b]	10,6
Prisma mareala/Bolumena[d]	1,47

Estuarioaren berezko ezaugarri fisikoei eta geomorfologikoei dagokienez (*2. taula*), estuarioaren goiko mugatik (Gernikan) kanpoko mugaraino (Mundakan) estuarioak 13,7 km inguruko luzera dauka, zabalera maximoa 1 km-koa da eta, guztira, 1,89 km^2-ko azalera hartzen du (Barroeta et al., 2023). Sakonera txikiko estuarioa da, batez besteko sakonera 2,6 m ingurukoa izanik, baina hau estuarioaren kanpoaldean asko handitzen da, Astilleros Murueta S.A. ontziolak itsasontziak atera ahal izateko egin diren dragatze lanen ondorioz. Geomorfologia kontuan hartuz, Pritchard-ek (1952) proposatutako sailkapenaren arabera, Urdaibaiko estuarioa urperatutako ibai-harana da eta hiru zati ezberdinetan banatua izan da (Villate et al., 1989) (*8. irudia*): kanpoaldeko eremua edo itsastarra, Mundakatik Kanala hondartzaraino (3,5 km-ra), zabalera handieneko eremua da eta itsasbeheran agerian geratzen diren harea eta limozko sedimentuez osatutako mareartеko eremuak dira nagusi; erdiko eremuan, Muruetatik ubide-artifizialeraino, estuarioaren zabaleraren murrizketa nabarmena dago, sedimentuak buztinez, hondarrez eta legarrez osatuta daude (proportzio aldakorretan) eta kanal nagusiaren inguruan kanal bihurgunetsuen sare konplexua eta padura garatuagoa agertzen da; eta barruko eremua, Gernika herriraino heltzen den 15 m inguruko zabalera eta 4 km-ko luzera duen ubide artifiziala, eremu erabat eraldatua da, limoz eta lokatzez osatutako sedimentuak ditu eta espezie inbaditzaile zuhaixkarez (*Baccaris halimifolia)* inguratuta dago. Geologiari erreparatuz, estuarioa txangatik hautsitako tolestura antiklinal batean zehar luzatzen den ibai-harana da, eta Gernikako antiklinalaren bi aldeetan azaleratutako kareharrizko materialek estuarioaren inguruan dauden mendilerroak osatu dituzte. Oka ibaiaren arroa material sedimentarioek (hareharriak, tupak…) osatzen dute batez ere, nahiz eta basaltozko azaleramenduak aurki daitezkeen (Irabien eta Velasco, 1999).

***8. irudia**. Urdaibai estuarioaren ikuspegi orokorra (goian, ezkerrean), estuarioaren kanpoaldeko eremua (goian, eskuinean), estuarioaren erdiko eremua (behean, ezkerrean) eta barrualdeko eremu kanalizatua (behean, eskuinean).*

Urdaibaiko estuarioaren ezaugarri hidrografikoei dagokienez, estuarioa sistema meso-makromareala da, izan ere, marea bitartea metro bat baino gutxiago izatetik (marea hilenetan) 4,5 m izatera (marea bizietan) hel daiteke (Villate et al., 1989). Mareen erregimena egun-erdikoa da, euskal kostalde osoan bezala, egunean bi itsasgora eta bi itsasbehera inguru daudelarik, eta 15 egunetik behin marea hil-bizi zikloa gertatzen da. Estuario laburra denez, itsasoarekin ondo komunikatua dagoenez (ez dago oztoporik) eta hondoan frikzio ezberdintasunik ez dagoenez (Eusko Jaurlaritza, 1985), marea uhin egonkor bat eratzen da, hau da, ur mailaren igoera eta jaitsiera aldi berean gertatzen da estuarioaren puntu guztietan (Ketchum, 1983). Hala ere, estuarioak desfase txikiak aurkezten ditu itsasbehera gertatzen den denborak aztertzerakoan, estuarioaren geomorfologiak eragindako hustutzea atzeratzen duen inbutu-efektuagatik. Estuarioaren batez besteko bolumena 3,3 x 10^6 m^3–koa da eta urak denbora gutxi irauten du sisteman (10 egun inguru estuarioaren bolumena berriztatzeko), batez besteko 4,8 x 10^6 m^3-ko marea-prismarekin (Valencia et al., 2004). Geruzapenari dagokionez, orokorrean, estratifikazioa estuarioaren barruko eremuan ematen da bakarrik, kanal artifizialean. Estuarioaren kanpoaldeko eremuak fluxu-mareal handiak eta ondo nahastutako ur-zutabea izatea du ezaugarri, erdialdeko eta barrualdeko eremuetan ordea, gazitasun-gradiente horizontal nabarmenak eta partzialki estratifikatutako ur zutabea aurkitu daitezke (Villate et al., 2017). Gainera, estuarioaren kanpoko aldean uraren iraunkortasun-

denbora egun 1 baino laburragoa da, baina, erdiko eta barruko eremuek ibaiaren ur-emariaren eragin handiagoa jasaten dutenez, bertako ur masek 3 eta 83 egun tartean iraun dezake, deskarga flubialen arabera aldatzen dena (Franco, 1994; Sarobe, 2009).

Estuarioak duen garrantziari dagokionez, Urdaibaiko estuarioa EAE-ko Biosfera Erreserba bakarraren (Urdaibaiko Biosfera Erreserba) ardatz zentrala da, UNESCO-k 1984an "Man and Biosphere" programaren barruan izendatua, eremuaren balio paisajistiko, faunistiko, floristiko, sozial eta kulturalari esker (Castillo-Eguskitza et al., 2017). Gainera, estuarioa, EAEko eta Iberiar Penintsulako iparraldeko hezegune garrantzitsuenetakoa da, bere hedapen eta kontserbazio mailaren ondorioz, baita hegazti-migratzaileen dibertsitate handiko eremua izateagatik ere, hauen atseden eta negu-pasa gunea delarik (Arizaga et al., 2014), bertan lertxun hauskara (*Ardea cinerea*), ubarroia (*Phalacrocorax* sp.), txenada (*Sternidae* sp.) eta mokozabala (*Platalea leucorodia*) bezalako espezieak aurkituz. Hori dela eta, Biosfera Erreserba izateaz gain, 1993an Ramsar Hitzarmeneko nazioarteko garrantzia duten hezeguneen zerrendan sartu zen eta Europar Batasuneko Natura 2000 Sarearen parte ere bada, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) bezala (Castillo-Eguskitza et al., 2017). Hainbat ikerketek iradoki dute estuarioak eskaintzen duen balio ekologikoa eta bere zerbitzu-ekosistemikoak positiboki erlazionatuta daudela (Onaindia et al., 2013), eta horrek onura ekonomikoak eragiten ditu, (eko)turismoa eta aisialdia baitira eskualde honetako ekarpen ekonomiko nagusia (Castillo-Eguskitza et al., 2017). Gainera, biztanleria elikagaiez hornitzeko zerbitzua ere eskaintzen du estuarioak, itsaski-bilketa eta arrantza-jarduerak egiten baitira (Onaindia et al., 2011). Horrez gain, bere balio naturalistiko handia dela eta, Urdaibaiko estuarioa oso ekosistema ikertua da eta, beraz, zientzia/dibulgazioari loturiko zerbitzu garrantzitsua ere ematen du estuarioak eskala globalean (Onaindia et al., 2011). Estuarioko fitoplankton-komunitateen inguruan ere ikerketa ugari egin dira, 1980ko hamarkadaren amaieratik, fitoplanktonaren ekoizpen primarioan (Iriarte et al., 1997), ezaugarri fotosintetikoetan (Revilla et al., 2000), komunitateen dinamikan (adibidez, Madariaga, 1995; Orive et al., 1998; Trigueros et al., 2000) edo pigmentuen analisian (Ansotegui et al., 2003) oinarrituak. Hala ere, azken 20 urteotan, Urdaibai estuarioko fitoplanktona UEZ-ak ezarritako laginketen bidez (urtean 4 laginketa, estuarioko 2 puntuan) bakarrik ikertu da, komunitatearen azken ikerketa intentsiboak 90eko hamarkadako amaieran egin zirelarik.

Biosfera Erreserban giza jardueren eta natura-ingurunearen arteko oreka mantentzen saiatzen den arren, Urdaibaiko estuarioak, hainbat inpaktu eta presio jasaten ditu. 45.000 biztanle

inguru bizi dira Biosfera Erreserbaren baita, honen % 80a Gernika edo Bermeo bezalako hiriguneetan biltzen delarik, eta, gainerakoak, eskualdean zehar banatutako hainbat landa-eremuko edo kostaldeko giza-kokaleku txikiagoetan. Eskualdeko jarduera sozioekonomiko nagusia zerbitzuetan oinarritzen den arren, nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, eta industria jarduerak (metalurgia, ontziolak, etab.) ere aurkitu daitezke estuarioaren inguruan. Giza-karga altu eta lurren erabilera honek estuarioak hainbat presio antropogenikoren menpe egotea eragin du (Monge-Ganuzas et al., 2017), hauen artean garrantzitsuena Gernikako Hondakin Uren Araztegiak eragindako kutsadura izanik.

9. irudia. *Gernikako Hondakin Uren Araztegiaren kokapena Urdaibai estuarioko barrualdean (ezkerraldea) eta isurketen iturburua (eskuinaldean).*

Gernikako araztegia estuarioaren barruko eremuan kokatuta dago eta, 1972tik, bertan tratatutako urak estuarioaren barnealdeko eremura isuri dira (*9. irudia*). Arazoa da, araztegiak lehen eta bigarren (2001-etik aurrera) mailako tratamenduak burutu arren, hondakin organiko, bakterio eta mantenugai ez-organiko kopuru handiak isuri dituela urte askoan zehar, estuarioko uren kalitatearen degradazioa eraginez (Revilla et al., 2000; Franco et al., 2004). Araztegiak ez duenez nitrogeno eta fosforoaren desagertze eraginkorra bermatzen, Urdaibai estuarioa da, normalean, EAE-n UEZ-aren jarraipenetan ikertzen diren estuarioen artean (12) mantenugai kontzentrazio altuena duena (adibidez, Borja et al. 2021), estuarioaren barrualdea eutrofizazioarekiko sentikorra bihurtuz (Revilla et al., 2017). Gainera, isurketa hauen ondorioz, Urdaibai estuarioaren barruko eremuak ez ditu UEZ-aren ingurumen-helburuak betetzen, gutxienez 2008-tik 2020-ra arte, egoera ekologiko “urria” edo “txarra” erregistratuz (adibidez, Borja et al., 2021). Honen arrazoi nagusia amonioa edo fosfatoa bezalako adierazle fisiko-kimikoek sistematikoki helburuak ez betetzea da, kontzentrazio altuegiak izateagatik, izan ere, honek fitoplanktona bezalako adierazle biologikoek ere kontzentrazio altuegiak (eutrofizazioa) izatea, eta beraz, helburuak ez betetzea, eragiten du. Horrez gain, araztegiaren

isurketek estuarioaren barruko uretan bakterio fekalen ugaritasuna areagotu dute. Uraren kalitatearen degradazio honek ondorio zuzenak izan ditu eremu honetako giza-baliabideen erabilgarritasunean, adibidez itsaski-bilketa debekatuz edo bainua "ez-gomendagarria" izendatuz.

Honi guztiari erantzuna emateko, 2004an, Urdaibaiko Saneamenduaren Plan Orokorra abian jarri zen, arroan sortutako industria eta hiri hondakin-uren bilketa eta tratamendua barne hartzen dituena, Urdaibaiko uraren egoera ekologikoa babestu eta saneamendu eraginkorra lortzeko helburuarekin. Ideia nagusia estuarioaren bi alboetako hondakin-urak bildu eta Bermeoko Lamiaran araztegira eramatea zen, handik itsaspeko hustubide baten bidez itsaso zabalera isurtzeko. 2007-2014 urteen bitartean, Gernikatik Bermeora doan kolektore nagusiaren tarte ezberdinen lanak egin ziren, 2014ean, Lamiaran araztegia martxan jarri eta Mundaka eta Bermeoko hondakin-urak bertara lotu ziren eta, 2018an, Sukarrieta eta Busturiakoak (Revilla et al., 2017). Azkenik, 2021eko uztailean, Gernikako kolektorea martxan jarri eta, ordutik, Lamiaranera bideratzen dira hondakin-urak, estuarioaren barrualdera egiten ziren isurketekin amaituz.

III. HIPOTESIA ETA HELBURUAK

Tesi hau Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitatea hobeto ezagutzeko asmoz burutu da, estuarioak, Euskal Herriko Biosfera Erreserba bakarreko parte izanik, duen balio naturalistiko handiagatik, 90eko hamarkadatik egon den ikerketa faltagatik eta, batez ere, inguruan egin diren saneamendu lanek izan dezaketen efektuagatik.

Hipotesia

Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitateak (i) gazitasun eta mantenugai gradienteek eragindako denboran eta espazioan zeharreko aldakortasuna aurkezten du, bai biomasan baita osaketan ere, eta (ii) aldaketak jasango ditu Gernikako araztegiko hondakin-urak estuariotik kanpo desbideratzearen ondorioz; hauek (iii) jarraipen-tekniken konbinazioari esker hobeto ulertuko direlarik.

Helburuak

Hipotesia egiaztatzeko, Tesiak honako helburu orokor hau jorratzen du:

"Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitatea deskribatzea, teknika desberdinak erabiliz, (i) honen denboran eta espazioan zeharreko aldakortasuna ezagutu eta hau kontrolatzen duten faktoreak zehazteko (ekologikoa), (ii) saneamendu lanek estuarioan duten eragina aztertzeko (aplikatua), eta (iii) jarraipen-tekniken erabilgarritasuna ebaluatzeko (metodologikoa)."

Helburu nagusi hau, Tesiaren kapitulu ezberdinetan jorratzen diren eta jarraian azaltzen diren helburu zehatzetan banatu da:

- Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitatearen karakterizazioa, Gernikako araztegiko hondakin-uren isurketak egon bitartean eta saneamendu lanen ondoren. (*1. Kapitulua* eta *4. Kapitulua*)
- Urdaibai estuarioko baldintza fisiko-kimikoen eta fitoplankton-komunitatearen arteko erlazioa zehaztea, biomasari eta komunitatearen osaerari dagokionez. (*1. Kapitulua* eta *4. Kapitulua*)
- Fitoplanktonaren jarraipenerako mikroskopia eta eDNA metabarcoding tekniken konparaketa. (*1. Kapitulua*)
- Gernikako araztegiaren hondakin-uren isurketen desbideratzeak Urdaibai estuarioko uraren kalitatean eta fitoplankton-komunitatean duen berehalako eragina ebaluatzea. (2. Kapitulua)
- Saneamendu lanek, epe-ertainean, Urdaibai estuarioan izandako eragina ebaluatzea, fitoplankton biomasan eta komunitatearen osaeran izandako aldaketak aztertuz eta aldaketa hauen eta eremuko aldaketa fisiko-kimikoen arteko erlazioa zehaztuz (*4. Kapitulua*).
- Pigmentuen analisiaren bidez fitoplankton-komunitatearen deskribapen kualitatibo eta kuantitatiboaren hurbilketa lortzea. (*3. Kapitulua*)
- HPLC bidezko pigmentuen *PIGMENTUM* analisiak fitoplankton-komunitatea eta haren denboran eta espazioan zeharreko aldakortasuna deskribatzeko duen eraginkortasuna frogatzea. (*4. Kapitulua*)

III. HYPOTHESIS AND OBJECTIVES

This thesis aims to obtain a better understanding of the phytoplankton community of the Urdaibai estuary, part of the only Biosphere Reserve of the Basque Country, considering the significant naturalistic value of the system, the lack of research since the late 90s and, above all, the potential effect of the sewerage improvement works carried out in the area.

Hypothesis

The phytoplankton community of the Urdaibai estuary (i) shows spatio-temporal variability in both biomass and composition prompted by salinity and nutrients and (ii) will undergo changes in response to the diversion of the wastewater discharges of the Gernika WWTP outside the estuary, which (iii) will be better understood due to the combined application of different monitoring techniques.

Objectives

In order to test the hypothesis, the Thesis addresses the following general objective:

"The general objective is to describe the phytoplankton community of Urdaibai estuary using different techniques, (i) to determine its spatio-temporal dynamics and the factors controlling them (ecological), (ii) to evaluate the effect of the sewerage works on the estuary (applied), and (iii) to provide insight into the usefulness of different monitoring techniques (methodological)."

This general objective has been subdivided in a series of operational objectives that are shown below and are addressed in the different Chapters of the Thesis:

- Characterization of the phytoplankton community in the Urdaibai estuary, during the wastewater discharges from Gernika WWTP and after the sewerage works. (*Chapter 1 and Chapter 4*)
- Determination of the relationship between the physicochemical conditions of the Urdaibai estuary and the phytoplankton community, in terms of biomass and community composition. (*Chapter 1 and Chapter 4*)
- Comparing microscopy and eDNA metabarcoding for phytoplankton monitoring. (*Chapter 1*)
- Assessment of the immediate effect of the cessation of wastewater discharges from Gernika WWTP on the water quality and the phytoplankton community in the Urdaibai estuary. (*Chapter 2*)
- Evaluation of the medium-term effect of the cessation of the wastewater discharges on the phytoplankton community of the Urdaibai estuary, analysing the biomass and community composition changes as well as the relationship between these changes and the local environmental alterations. (*Chapter 4*)
- Obtaining an approximation for the qualitative and quantitative description of the phytoplankton community through pigment analysis. (*Chapter 3*)
- Proving the efficiency of *PIGMENTUM* analysis of HPLC pigments to describe the phytoplankton community and its spatio-temporal variability. (*Chapter 4*)

Chapter 1

Phytoplankton community composition in relation to environmental variability in the Urdaibai estuary: Microscopy and eDNA metabarcoding

Accepted as: **Bilbao, J.**, Pavloudi, C., Blanco-Rayón, E., Franco, J., Madariaga, I., and Seoane, S. (2023). Phytoplankton community composition in relation to environmental variability in the Urdaibai estuary (SE Bay of Biscay): Microscopy and eDNA metabarcoding. *Marine Environmental Research*, 191, 106175.

Abstract

The present research studies the phytoplankton community of the Urdaibai estuary, combining microscopy and eDNA metabarcoding for the first time in the area. The main aims were to describe the phytoplankton community composition in relation to the environmental conditions of the estuary, and to compare the two methods used. Diatoms *Minutocellus polymorphus* and *Chaetoceros tenuissimus* dominated the outer estuary, being replaced by *Teleaulax acuta* (cryptophyte), *Kryptoperidinium foliaceum* (dinoflagellate) and *Cyclotella* spp. (diatom) towards the inner area. This change was mainly prompted by salinity and nutrients. Metabarcoding revealed the presence of 223 species that were not observed by microscopy in previous studies in the estuary. However, several characteristic species (e.g., *K. foliaceum*) were only detected with microscopy. Additionally, microscopy covered the limitations of eDNA metabarcoding concerning quantification. Thus, to give a full insight, a combination of techniques is recommended.

1. Introduction

Estuaries are known as dynamic ecosystems where major changes occur along numerous environmental gradients (e.g. salinity, temperature, nutrients and turbulence) associated with the mixing of freshwater and seawater during tidal cycles (Muylaert et al., 2000; Cloern et al., 2017). The biological communities inhabiting these systems are subject to high spatial and temporal contrasts: spatial variations depending on the tidal and river influence; and very high temporal variability at different scales, from daily (mainly due to tidal fluctuations) to seasonal (fluctuations in river discharge and meteorology) (McLusky and Elliot, 2004).

In these ecosystems, the structure and biomass of phytoplankton communities vary continuously, mainly because of their adaptation to the environmental gradients caused by the tidal water circulation and the influence of the river (Jouenne et al., 2007; Lee et al., 2020). More precisely, phytoplankton communities in estuaries respond to environmental changes related to runoffs, water surface temperature, salinity, light availability and resuspension induced by waves and winds (e.g. Wells et al., 2015; Vajravelu et al., 2018). Freshwater inflows are also known to be a key determinant of phytoplankton abundance and community structure in estuaries, due to their influence on the water retention time and degree of stratification (e.g. Lemley et al., 2018; Nunes et al., 2018). Additionally, the inputs of inorganic nutrients (nitrogen:N, carbon:C, phosphorus:P, oxygen:O, iron:Fe, silicon:Si) on estuarine surface waters stimulate phytoplankton growth and modulate community composition, increasing the growth rates of certain taxa and leading to harmful algal blooms that can affect ecosystems negatively (Pincknet et al., 2001; Anderson et al., 2002; McCabe et al., 2016; Wells et al., 2015; Vajravelu et al., 2018). Phytoplankton is known to be the first autotrophic community showing response to nutrient availability variations (Paerl et al., 2003) and, due to its basal position in the food chain, it is considered the link between inorganic nutrients and the rest of the trophic levels (Seoane et al., 2011).

Light microscopy has been traditionally the most used technique to assess phytoplankton biomass and diversity (e.g. Aktan et al., 2005; Agirbas et al., 2015; Lee et al., 2020). The main strength of this method is that it enables both phytoplankton identification and enumeration at the same time, providing cell counts, size measurement and taxonomic information to genus or species level (Edler and Elbrächter, 2010). However, it is highly dependent on individual researcher's skills (Muñiz et al., 2020), since it requires extensive taxonomic knowledge (Naik et al., 2011) and it is time-consuming (Wang et al., 2018). In

addition, fragile and small cells (i.e., picophytoplankton cells) are difficult or impossible to identify, usually leading to omissions or errors in taxonomic identifications (Jeffrey et al., 1997; Agirbas et al., 2015). Many studies (e.g. Penna et al., 2017; Huo et al., 2020) assume that morphological analyses alone cannot provide a complete description of the huge phytoplankton diversity. The use of molecular tools, like DNA metabarcoding, can be an alternative to overcome the limitations associated with microscopy-based diversity monitoring, especially after the development of high-throughput sequencing (HTS) technologies (Trebitz et al., 2017; Rimet et al., 2021).

Metabarcoding enables the simultaneous identification of taxa from environmental samples based on their DNA by sequencing specific marker genes (barcodes) (Zimmermann et al., 2015; Keck et al., 2017). This method generates large amounts of biodiversity information, as it is able to identify species at any life stage, as well as cryptic species and those overlooked by traditional methods (Comtet et al., 2015). The data sets obtained from this approach are more complete, quickly available, cost-effective and are less dependent on taxonomic expertise (Penna et al., 2017; Trebitz et al., 2017). Consequently, metabarcoding has been applied successfully in phytoplankton research (e.g. Chen et al., 2019b; Mortagua et al., 2019; Liu et al., 2020; De Luca et al., 2021; Muhammad et al., 2021; Pérez-Burillo et al., 2022) and in many global marine environment projects, including the Tara Oceans Expedition (Malviya et al., 2016) and the Ocean Sampling Day (Kopf et al., 2015). However, it is known that the copy number variation (CNV) could affect the abundance estimates when using metabarcoding (Kembel et al., 2012), which explains the lack of correlation between this approach and microscopy in some cases (e.g. Stoeck et al., 2014). Additionally, the accuracy and coverage of the reference barcode database also influences the correlation between this method and traditional microscopy (e.g. Rimet et al., 2021).

The Urdaibai estuary (southeastern Bay of Biscay) constitutes the central area of the only Biosphere Reserve of the Basque Country, declared by UNESCO in 1984 because of its high naturalistic and cultural value (Castillo-Eguskitza et al., 2017). This estuary represents one of the main tidal marshes along the coast of northern Iberia and hosts an especially relevant richness of water birds (Arizaga et al. 2014), being added to the list of Ramsar Wetlands in 1993 and the network of the European Union Natura 2000 (Castillo-Eguskitza et al., 2017). Previous studies in the area suggested that biodiversity and ecosystem services provided by the estuary are positively correlated (Onaindia et al., 2013), which in turn, results in economic benefits, since (eco)tourism and recreation are the main economic motor and attraction in the

region (Castillo-Eguskitza et al., 2017). Nevertheless, the estuary has been receiving direct discharges from the Gernika wastewater treatment plant (WWTP) since 1972 in the inner area, as this is the principal source of pollution of the estuary.

Due to its high naturalistic value, the Urdaibai estuary is a widely studied ecosystem and the phytoplankton community of the estuary has been the subject of numerous studies since the late 1980s. Several of these were centred on primary production, respiration and photosynthetic characteristics of phytoplankton (Madariaga and Orive, 1989; Madariaga et al., 1989; Iriarte et al., 1997; Revilla et al., 2000), while others described the communities and their dynamics in different time scales, based on microscopy identification and enumeration (Madariaga, 1995; Orive et al., 1995, 1998; Trigueros and Orive, 2000, 2001; Trigueros et al., 2000a, 2000b) or pigment analysis (Ansotegui et al., 2001, 2003).

The latest intensive studies on the phytoplankton community of the estuary were performed in the late 90s, and for the last 20 years, the study of the phytoplankton community of the Urdaibai estuary has been reduced to quarterly samplings carried out to comply with the requirements of the EU Water Framework Directive (WFD; Directive, 2000/60/EC). Knowing that sewerage system renovations were planned in the area in the near future, to divert the effluent of Gernika WWTP outside the estuary, an updated description of the phytoplankton community was needed before it, in order to evaluate the future effect of these works on the biomass and community composition. Additionally, to the best of our knowledge, no previous studies targeting phytoplankton have been carried out in the Urdaibai estuary based on molecular techniques, and therefore, there is limited phytoplankton identification at the species level, especially for pico- and nano-phytoplankton.

The present study has two main aims: (i) the description of the phytoplankton community composition, by combining microscopy and V4 18S rDNA metabarcoding, in relation to the environmental conditions of the Urdaibai estuary with fortnightly samplings for an entire year, and (ii) the comparison of the two methods used for the phytoplankton community characterisation. Regarding the former, strong correlations between salinity and/or nutrients and the dominant phytoplankton taxa are expected, due to the marine influence and the presence of the WWTP in the estuary. For the latter, differences in taxa richness and abundance estimations are presumed, due to the limitations of both techniques.

2. Materials and methods

2.1 Study area

This study was performed at the Urdaibai estuary (also known as Gernika estuary, Mundaka estuary or Oka estuary), a meso-macrotidal system located in the southeastern Bay of Biscay (43°22'N, 2°43'W) (*Figure 1.1*). The climate of the area is temperate-oceanic, with moderate winters and warm summers, and it is under the influence of the Gulf Stream and the atmospheric westerlies in the middle and upper troposphere (Usabiaga et al., 2004).

The Urdaibai estuary is short (13.7 km long) and shallow, and it is formed by the tidal part of the Oka River (Barroeta et al., 2023). The total estuarine area (1.89 km^2) is big when compared to its drainage basin (183 km^2), and therefore, the contribution of freshwater (mean flow of 3.6 $m^3\ s^{-1}$) is small compared to the total volume of the estuary (3293100 m^3) (Valencia et al., 2004; Barroeta et al., 2023). In addition, river discharge is usually low in relation to the tidal prism (Villate et al., 2017). Consequently, tidal cycles have a great impact and most of the estuary is marine dominated at high tide (Valencia et al., 2004). The water residence time is short (days), and the stratification varies within the system, with partially stratified conditions in the middle and inner area and a well-mixed water column in the outer zone, due to the high tidal flushing (Villate et al., 2017; Barroeta et al., 2020). However, this estuarine system can vary considerably in its volume and flushing rates, owing to its geomorphology and, mainly, due to the torrential nature of the Oka River, since large flows that change the typical pattern appear occasionally (Madariaga et al., 1994). This has a direct effect on the physicochemical and biological properties of the estuary, causing changes in the phytoplankton communities on a short time scale (Madariaga et al., 1994; Uriarte, 2001) as well as the proliferation of particulate matter with a high proportion of inorganic materials (Ruiz, 1998).

Based on morphology, the estuary is divided in three main areas (*Figure 1.1*) (Villate et al., 1989). The outer estuary is a zone with sandy beaches and extensive intertidal flats, which extends from the outer limit of the system (Mundaka) to Murueta. The middle area (i.e., intermediate estuary), from Murueta to the start of the artificial channel, consists of a central channel bordered by shalt-marshes and a complex system of interlaced secondary channels. The inner estuary is formed by a 4 km long and 15 m wide artificial channel built in the beginning of the 20th century that reaches the town of Gernika and is bordered by reed beds.



Figure 1.1. *Study area and sampling stations. On the left, the location of the Urdaibai estuary and the Urdaibai Biosphere Reserve in the Bay of Biscay and the Basque coast is shown. On the right, the Urdaibai estuary is divided into the outer estuary (sampling station URD1), intermediate estuary (station URD2) and inner estuary (stations URD3, URD4, URD5 and URD6). The discharge point of the wastewater treatment plant (WWTP) and the sampling station at Oka River (Oka) are also located in the inner estuary.*

2.2 Sampling and data acquisition

Sampling was conducted every 15 days from September 2019 to September 2020, at six permanent sampling stations located within the longitudinal axis of the estuary (*Figure 1.1*) to cover the entire salinity gradient: one in the outer part (URD1), one in the middle area (URD2) and four in the inner estuary (URD3, URD4, URD5 and URD6). The last sampling station (URD6) was located in the WWTP of Gernika and is near the inner limit of seawater penetration. An additional sampling station was set up in the Oka River to monitor the physicochemical properties of the river. Therefore, a total of 161 samples were collected, corresponding to 23 sampling days for each of the 7 sampling stations. Only two samplings were cancelled along the year: the first of November (due to prolonged adverse climatic conditions) and the first of April (due to COVID-19 prohibitions).

Estuarine water samples were always collected at high tide with a 2.5 L plastic Niskin bottle, 0.75 m below the surface in an hour long transect from URD1 to URD6. Only subsurface

samples were considered in this study because bottom samples could have been affected by sediment resuspension processes (Madariaga and Orive, 1989). The collected water was used for the analysis of inorganic nutrients, phytoplankton abundance and composition and the determination of photosynthetic pigments. At each station, salinity, temperature, conductivity, pH, dissolved oxygen, oxygen saturation and turbidity were measured *in situ*, using the multi-parameter water quality metre EXO2 (YSI). Water transparency was estimated using a Secchi disc, and water column depth was registered with the GPS sounder of the boat. In the Oka River station, the water was collected from the surface directly, due to the very low depth present at this station, for the analysis of inorganic nutrients, together with the *in situ* measurement of the above-mentioned physicochemical parameters using the EXO2 (YSI).

The dissolved inorganic nutrients analysed were ammonium, nitrite, nitrate (calculated from the total oxidised nitrogen), orthophosphate and silicate. The analyses were carried out using VIS/UV colorimetry in an automatic 5-channel analyser with segmented flow at the Chemical Laboratory of the Marine Research Unit of the AZTI Foundation in Pasaia (Gipuzkoa). The individual determinations of these dissolved inorganic nutrients were based on methods that apply classical and widely used colorimetric reactions, both for inland and marine waters (GO-SHIP manual by Hydes et al., 2010). The quantification limit for ammonium, nitrate and silicate was 1.6 μmol L^{-1}, 0.4 μmol L^{-1} for nitrite and 0.16 μmol L^{-1} for phosphate. For measurements below the quantification limit, a concentration equal to 50% of the limit was assumed for the estimation of median values.

The data on daily-accumulated rainfall, temperature and hours of sunshine were provided by the Basque Agency of Meteorology (Euskalmet). For accumulated rainfall and temperature, data were available from two nearby meteorological stations: Muxika (43°17'N, 2°41'W, 16 m height) and Arteaga (43°20'N, 2°39'W, 19 m height). Therefore, the average values from both stations were taken. As for the number of hours of sunshine, data were available from Bilbao Airport (20 km from the estuary). The Provincial Council of Bizkaia provided Oka River flow data, corresponding to the Muxikas' gauging station.

2.2.1 Microscopy

Water samples used for the study of the phytoplankton community by microscopy were fixed with acidic Lugol's solution (0.4% v/v) right after collection and stored until analysis in dark

and cool (4 ºC) conditions, in 125 ml topaz borosilicate bottles. Taxonomic identification and cell counts were performed following the Utermöhl sedimentation method (Edler and Elbrächter, 2010) under a Nikon diaphot TMD inverted microscope, for subsamples of 10 or 50 ml depending on the density. Transects at different magnifications (100×, 200× or 400×) were carried out depending on the taxa's abundance and size. In order to count the larger and less abundant taxa, the whole chamber was analysed at low magnifications (200×). Most of the taxa were identified to the genus level, and the nomenclature of the identified taxa was standardised according to AlgaeBase (Guiry and Guiry, 2018).

2.2.2 Phytoplankton biomass

Taking into account the limitations that the different techniques present to express the phytoplankton biomass, two different approaches were applied for its estimation: carbon content (which is based on the microscopy cell counts) and the chlorophyll *a* (Chl *a*) concentration.

For the calculation of carbon content, first, the biovolume was determined by assigning each taxon a mean equivalent spherical diameter (ESD), based on Olenina et al. (2006), which takes into account cell shape and size. Afterwards, the biomass was calculated using the equation as reported for marine phytoplankton by Montagnes et al. (1994): Carbon content = $0.109 \times \text{Volume}^{0.991}$, where carbon content is expressed in pg C $cell^{-1}$ and volume in μm^3.

Measurement of Chl *a* concentration in water samples is commonly used (e.g. the WFD) as a direct proxy for total phytoplankton biomass. For its determination, samples collected with the Niskin bottle and stored in opaque plastic bottles were filtered (0.4–4 L) with gentle vacuum (< 150 mm Hg) onto Whatman GF/F glass-fibre filters (47 mm diameter, Whatman International Ltd.) in dark conditions. Filters were immediately frozen in liquid nitrogen and stored at -80 ºC until pigment extraction, which was always less than 15 days after filtration. Chl *a* was extracted, under low light, with 5 ml of 90% acetone, using a glass rod for grinding, and the extracts were then filtered through syringe filters (Millex, 0.22 µm pore size) to remove cell and filter debris. The analysis was carried out by high performance liquid chromatography (HPLC), following the method described by Zapata et al. (2000), with a modification in solvent A and the equipment explained in Seoane et al. (2009b).

2.2.3 eDNA Metabarcoding

Water samples for eDNA analysis were pre-filtered *in situ* through a 200 µm mesh (Millipore Nylon Nets) and subsequently stored in opaque plastic bottles. Once in the laboratory, samples were filtered (0.2–3.5 L) through a 0.8 µm MCE-membrane filter (MF-Millipore) with gentle vacuum (< 150 mm Hg). The filter was then kept in PowerWater DNA Bead Tubes (QIAGEN) and frozen at -80 ºC, until further use for metabarcoding.

DNA extraction, amplification and sequencing of the 18S rRNA V4 region was carried out at the Sequencing and Genotyping Unit of Genomics Facilities from the University of the Basque Country (SGIker – UPV/EHU). The DNA was extracted from the filters with the DNeasy Power Water Kit (QIAGEN), following the kits´ specific protocol. In order to account for contaminations, an extraction negative control (EXT-C) was included, obtaining a quantification value below the detection threshold (< 2 ng μL^{-1}). As indicative data, the mechanical lysis for the extraction was carried out on a flat-bottom vortex, at 3000 rpm for 5 minutes, and the volume of the elution buffer was decreased to 60 µL. The primers used for amplification of V4 18S rRNA were TAReuk454FWD1 and TAReukREV3 (Stoeck et al., 2010), modified by Piredda et al. (2017) (*5'-CCAGCASCYGCGGTAATTCC-3'* and *5'-ACTTTCGTTCTTGATYRATGA-3'*), to which the necessary tails for later insertion of the adapters and indices compatible with the Illumina platform were added (*5'TCGTCGGCAGCGTCAGATGTGTATAAGAGACAGCCAGCASCYGCGGTAATTCC-3'* and *5'GTCTCGTGGGCTCGGAGATGTGTATAAGAGACAGACTTTCGTTCTTGATYRATGA-3'*).

Amplification was carried out following the protocol described by Piredda et al. (2017) but with certain modifications. More specifically, KAPA HiFi Hotstart ReadyMix (Roche Kapa Biosystems) was used, and the activation time and temperature of the thermocycler programme were adapted: an initial 4 min at 95 °C, followed by 10 cycles at 95 °C for 10s, 44 °C for 30s, 72 °C for 15s; a second step by 15 cycles at 95 °C for 10s, 62 °C for 30s, 72 °C for 15s; and a final cycle of 7 min at 72 °C. 2 µL of DNA at stock concentration were added between 15 and 80 ng μL^{-1} by nanodrop. 1 µL of each primer (10 µM) was added to the total reaction volume (25 µL). Both extraction (EXT-C) and amplification (NTC) negative controls were included. After electrophoresis to assess PCR product yield, purification was carried out by beads (CleaNNA NGS kit), followed by the subsequent indexing reaction with the Illumina Nextera XT v2 set A and set B kit (following the standard protocol of the commercial house). Indexed products were checked by electrophoresis, and purified with beads was carried out in pool. Final library quantification was carried out by Qubit. The

sequencing was performed on an Illumina MiSeq instrument with a 300-bp paired-end protocol (MiSeq v3 chemistry). The loading library concentration was 6 pM, and 10% PhiX was used as an internal control. Obtained quality control values for the sequencing run were > Q30 = 76,53% and %PF: 91.65. After post-filtering, 2 x 17,753,716 reads assigned to marker 18S rRNA V4 were obtained. The average coverage of the samples was 120,000. Less than 1,100 and 500 reads were assigned for both extraction and amplification negative controls, respectively. All raw sequence files have been submitted to the European Nucleotide Archive (ENA) (Cummins et al., 2022) with the study accession number PRJEB48801 (available at http://www.ebi.ac.uk/ena/data/view/PRJEB48801).

species of the benthic substrate from intertidal mudflats (Adlmiraal et al., 1984; Haubois et al., 2005) and from oligo and mesohaline areas of estuaries (Underwood et al., 1998). The ability of these small fast growing diatoms to move in the sediment allows them to migrate to the surface for receiving higher light intensity, which at the same time increases the possibility of their resuspension to the water column. The resuspension rates of these benthic diatoms are greater in shallow waters of well mixed estuaries (Baillie and Welsch, 1980), such as the Urdaibai estuary, due to the higher influence of wind action, tidal currents and convective currents on theses ecosystems in comparison to deeper estuaries with marked halocline (Anderson, 1973). This explains the high abundance in which both *N. phyllepta* and *N. gregaria* were found in the waters of the inner Urdaibai estuary. Regarding the centric diatoms, the genus *Cyclotella* was the main representative of the inner Urdaibai estuary. *Cyclotella* is a common genus from the inner areas of temperate estuaries, due to its oligo or mesohaline character. This genus has been previously recorded in high abundances in several estuaries, such as the Schelde estuary (Muylaert et al., 2009), Bahía Blanca estuary (Popovich and Marcovecchio, 2008) and the nearby Bilbao estuary (Seoane et al., 2005).

4.2. Comparison of the community characterization methods

Both microscopy and eDNA metabarcoding revealed similar trends in phytoplankton community composition along the Urdaibai estuary, especially on the dominance of phytoplankton groups, spatio-temporal variations of the community composition and relationship between relevant taxa and environmental conditions. However, most of these analyses were done with the aim of obtaining a general image of the community composition, which was based on the whole data set (nMDS and PERMANOVA) or centred in high taxonomic levels. The present study revealed that the lower the taxonomic level, the higher the inconsistency between microscopy and metabarcoding when describing the community (e.g. taxa richness or SIMPER analysis). Several studies, focused on the comparison of morphological and molecular methodologies for freshwater (MacKeigan et al., 2022), estuaries (Abad et al., 2016; Nunes et al., 2019) and marine waters (Gran-Stadniczeñko et al., 2019; Santi et al., 2021; Wang et al., 2022), have enumerated possible reasons to explain the discrepancies between the two approaches, uncovering the strengths and weaknesses of each approach, that were also detected in the present study.

Differences in the identification capacity of molecular and morphological data sets could be one of the main causes of dissimilarity between the two methods (Zimmermann et al., 2015;

Kim et al., 2019; Santi et al., 2021). In the present study, DNA metabarcoding showed pronounced differences with microscopy when comparing the number of species/genera identified, the number of identified taxa (to, at least, the genus level) being 3 times higher in eDNA metabarcoding. Overall, metabarcoding revealed the presence of 349 phytoplankton taxa that were not identified by microscopy, among which 276 taxa were not previously recorded for the Urdaibai estuary (*Annexes, Table A1.5* and *Table A1.6*). Among these, 223 reached the species level, registering 77 new diatom species, 50 dinoflagellates, 40 green algae (mostly chlorophytes), 15 cryptophytes, 13 haptophytes, 7 dictyochophyceans, 7 chrysophyceans, 4 bolidophyceans, 4 pelagophyceans, 3 rhodophyceans, 2 synurophyceans and 1 raphidophycean for the first time in the Urdaibai estuary. The reason for the omission or misidentification of the phytoplankton taxa by microscopy varies depending on characteristics of the phytoplankton groups. In the case of green algae and haptophytes, their small cell size and fragility may be the main reason for their misidentification (Agirbas et al., 2015; Lee et al., 2020), since pico- and nanoplanktonic organisms require electron microscopy or molecular methods for identification (Gran-Stadniczeñko et al., 2019). As an example, 6 haptophyte taxa were identified by microscopy (3 species), while 19 taxa (14 species) were identified by molecular techniques, some of them being especially recurrent in the outer estuary, such as *Chrysochromulina scutellum* and *Chrysochromulina rotalis*. Many of them were previously identified in the nearby Nervion estuary (Seoane et al., 2009a) from natural samples and uni-algal cultures using light and mainly electron microscopy; however, this procedure is unfeasible for regular phytoplankton monitoring. The difference was even bigger for green algae, since the number of taxa identified increased from 12 to 61, as represented by *Picochlorum* spp., *Ostreococcus* spp. (*O. mediterraneus*, *O. lucimarinus* and *O. tauri*) and *Micromonas* spp. (mainly *M. bravo* and *M. commoda*), some of the most frequent taxa of the estuary according to metabarcoding, and were reported for the first time in the Urdaibai estuary in this study. This limitation was previously described in nearby estuaries (Abad et al., 2016) and marine areas (e.g. Gran-Stadniczeñko et al., 2019). Diatom misidentification, which was notable in the present study, can be due to the presence of cryptic species that cannot be identified. Additionally, the lack of resolution of the microscopy method used to identify diagnostic morphological characters may have resulted in overly coarse or erroneous taxonomic identification optically (Kim et al., 2019; Santi et al., 2021). In the present study, eDNA metabarcoding helped improving the resolution in the "unidentified centric" and "unidentified pennate" diatoms groups. Among the unidentified centric diatoms, we could determine the presence of three different *Cyclotella* species (*C. atomus*, *C. choctawhatcheeana* and *C. striata*), 2 *Minidiscus* (*M. spinulatus* and *M.*

variabilis), 12 *Thalassiosira* species, *Mediolabrus comicus* and *Stephanocyclus meneghinianus,* among others, by molecular techniques. As for unidentified pennate diatoms, 11 *Nitzschia* species, 10 *Navicula* species and 2 *Haslea* (*H. nipkowii* and *H. pseudostrearia*) were identified by eDNA metabarcoding. Scanning electron microscopy (SEM) is commonly used (e.g. Li et al., 2019) to allow a more detailed view at a higher magnification of many of the previously mentioned diatom species, since the diatom frustule, composed of two valves and a number of overlapping girdle bands, possesses a species-specific morphology of micro- and nanopatterns (Soleimani et al., 2021). In order to observe these patterns, in addition to the higher magnification provided by the SEM in comparison to the inverted microscope, diatom cells must overcome a digestion process to eliminate their intra-celular organic material, which is not part of the Utermöhl method followed in most of the phytoplankton monitoring programmes and the present study. In addition, as mentioned in several similar studies (e.g. Gran-Stadniczeñko et al., 2019), an important aspect in this comparison is that eDNA metabarcoding results are based on a bigger sample volume analysed (0.2–3.5 L) in comparison to microscopy (50 ml), which has also helped to reach a higher taxonomic richness. This proficiency of metabarcoding over phytoplankton for identifying phytoplankton taxa makes it a more accurate tool for monitoring rare and endangered species or detecting invasive species (Keck et al., 2022).

Nevertheless, among the 615 phytoplankton taxa identified in the Urdaibai estuary, only 407 were identified to the genus or species level, which leaves a high number of sequences with an incomplete taxonomic assignment. There are several causes behind these incomplete identifications (Santoferrara et al., 2019): insufficient marker resolution (e.g. not variable and/or long enough), unsuitable method or parameters (e.g. BLAST assignments based on suboptimal sequence similarity/coverage) or incomplete or inaccurate databases. Although the 18S rRNA gene is the most widely used marker for group and species detection within marine eukaryotic microorganisms (Martin et al., 2022), in some taxonomic groups (e.g. diatoms and haptophytes) the V4 18S rRNA gene, the one applied in the present study and many others (e.g. Piredda et al., 2017; Wang et al., 2022), shows identical sequences for different species, leading to incomplete identifications (Gran-Stadniczeñko et al., 2019). Not only the marker gene used, but also the primer choice can be crucial for an effective taxonomic assignment, since its amplification and binding affinity are critical factors to bring about taxonomic biases in eDNA metabarcoding identification (Kim et al., 2019; Van der Loos and Nijland, 2021). However, primer efficiency is highly species-specific, which would prevent straightforward assessments of species abundance (Elbrecht and Leese, 2015) and

might imply group-specific primer choice to obtain a higher rate of taxonomic assignment. Indeed, it is believed that a multimarker approach, using several primer sets, will result in a more reliable estimation of species richness (Alberdi et al., 2018). As for the bioinformatics decisions, its flexibility makes it an important source of variability of the final results obtained, and therefore, data sharing is key to enhancing result reproducibility and information discoverability, in order to develop community standards for bioinformatics methods (Santoferrara, 2019). In addition, many phytoplankton taxa are difficult to cultivate and/or identify through microscopy, and therefore, no molecular references are available, resulting in poor taxonomic coverage and data quality of reference libraries, which might also explain a high number of unclassified taxa obtained in the study (Gran-Stadniczeñko et al., 2019). Thus, species identification varies with accuracy and coverage of reference databases (Kim et al., 2019), which is considered one of the main drawbacks of the DNA metabarcoding approach (e.g. Weigand et al., 2019; Rimet et al., 2021).

This incomplete identification of ca. 200 unique phytoplankton taxa detected by metabarcoding leads to some "false negatives" when comparing it with microscopic identification. Among the species identified by microscopy that were not part of the metabarcoding results (*Annexes, Table A1.5* and *Table A1.7*), the dinoflagellate *K. foliaceum* must be highlighted. *K. foliaceum* was present in almost all the samples of the inner Urdaibai estuary and has been recorded in previous studies in the areas as well (Trigueros et al., 2001); however, molecular techniques did not identify it, with Kryptoperidiniaceae being the lowest identified taxonomic level. In addition, *K. foliaceum* is included in the database used in the present study (PR2 4.13.), and the sequence corresponds to the same region of 18S rRNA of the target of the primer used in the present study. Thus, this "false negative" may be caused by technical biases introduced throughout the DNA metabarcoding workflow (Martin et al., 2022): sample preservation (Mäki et al., 2017), DNA extraction (Van der Loos and Nijland, 2021) and/or PCR (Latz et al., 2022). The same may have happened with *Prorocentrum micans* and *Gephyrocapsa huxleyi*, which are both available in the PR2 database, but were not detected in our samples by molecular techniques, even if they were observed by microscopy. Several options for mitigating these false negatives are the optimisation of nucleic acid extraction and storage, improving primers and sequence processing and the adequate biological and technical replication (Santoferrara, 2019). Moreover, and in accordance with what Gran-Stadniczeñko et al. (2019) described, the molecular techniques almost overlooked the Euglenophyceae of the Urdaibai estuary, which are relevant and frequent green algae according to microscopy, but register much lower relative abundances

and presence for metabarcoding. However, this can be partly explained by the V4 18S rRNA gene PCR primers used that seem to be poor in amplifying members of Euglenophyta compared to amplification using chloroplast gene targeting primers (Amaral-Zettler et al., 2011).

Additionally, besides the inherent technical biases, the major source of bias causing discrepancies between both approaches is the 18S rRNA gene copy number variation within species, genera and plankton groups (Santi et al., 2021; Martin et al., 2022). This variation of gene copy numbers can be substantial (ranging from tens to thousands), affecting the proportion of reads found for each species present in complex environmental assemblages and leading to misinterpretation of relative abundances when comparing to microscopic counts (Santi et al. 2021). In the present study, even if the relative abundance results for both techniques were quite similar in some cases (e.g. defining the dominant phytoplankton group), in most of the cases, these results differed (*Figure 1.5*). As an example, the median relative abundance of dinoflagellates and green algae within the Urdaibai estuary was two times higher according to metabarcoding when compared to microscopy. This is similar to the findings of Piredda et al. (2017) and Santi et al. (2021), which registered higher percentages of dinoflagellate contribution produced by metabarcoding. The main reasons for this frequent difference might be that, compared to taxa with similar cell size, dinoflagellates have large genomes and putatively high rRNA gene copy number, thus, an overrepresentation may be expected by molecular techniques (Martin et al., 2022). However, another reason for the discrepancies between techniques may be that the broadly used fixatives (e.g. Lugol) cannot preserve the morphology of unarmoured dinoflagellates and might lead to misidentification or omission by microscopy (Santi et al., 2021), decreasing their contribution to the total abundance. Therefore, although several authors (Piwosz et al., 2020; Martin et al., 2022) agree that community relative abundances determined by eDNA metabarcoding are useful and reliable in the context of ecological interpretations (like in the present study), microscopy cell counts are still essential when studying bloom-forming taxa and/or toxic species in the community.

Thus, the present study underlines that, while metabarcoding is a more accurate approach for the assessment of the phytoplankton taxonomic richness of an aquatic ecosystem like the Urdaibai estuary, it may under- or overestimate the abundance of the identified taxa, making the combination with microscopy necessary for obtaining reliable quantitative results. Therefore, each approach answers different ecological questions, and the combined use of the

two methods provides a much more complete image of the phytoplankton abundance and community composition and its spatio-temporal variability of the Urdaibai estuary.

5. Conclusion

The present study investigated the phytoplankton abundance and community composition of the Urdaibai estuary at a fine-scale resolution during a 12-month period. Results determined that Chl *a* increased towards the inner estuary and spring/summer seasons, showing a significant positive relationship with nutrients and temperature. As for community composition, diatoms like *M. polymorphus* and *C. tenuissimus* dominated the outer and middle area of the estuary and were replaced mostly by cryptophytes, like *T. acuta* and *U. complanatus*, together with the dinoflagellate *K. foliaceum* and diatoms like *Cyclotella* spp. towards the inner area. These changes in dominant taxa were promoted mainly by the strong longitudinal gradients of salinity and inorganic nutrient concentrations of the Urdaibai estuary, but other factors such as light availability and mixotrophy may also explain the taxa distribution.

Both microscopy and eDNA metabarcoding revealed similar patterns within the Urdaibai estuary regarding dominance of phytoplankton groups, spatial and temporal differences of the community composition and influence of the main environmental factors with the most relevant taxa. Nevertheless, both approaches were also complementary, since metabarcoding was able to overcome the lack of taxonomic resolution of microscopy, especially for picoplankton, and revealed the presence of 223 species that had not been previously recorded in the Urdaibai estuary, providing new information on the species richness of this protected area. On the other hand, the microscopic analysis of the community was useful to cover the gaps that still exist in eDNA metabarcoding, since cell counts are essential when studying bloom-forming taxa and/or toxic species in the community. Thus, considering the different characteristics of microscopy and DNA metabarcoding, this work emphasizes that the choice of the approach should be based on the objective of the research, and if possible, a combination of techniques is recommended to obtain more reliable and accurate results of the phytoplankton community.

2. Kapitulua

Gernikako araztegiko isurketen desbideratzeak Urdaibai estuarioko fitoplanktonean eta baldintza fisiko-kimikoetan izandako berehalako eragina

(*Chapter 2: Immediate effect of sewerage improvement on the phytoplankton and physicochemical conditions in the Urdaibai estuary*)

Argitaratua / Published as: **Bilbao, J.**, Larreta, J., Franco, J., and Seoane, S. (2022). Immediate effect of sewerage improvement on the phytoplankton and physicochemical conditions in the Urdaibai estuary (southeastern Bay of Biscay). *Regional Studies in Marine Science*, 56, 102707.

Laburpena

Mantenugaien aberaste antropikoa ingurumen-arazo nagusia bihurtu da mundu osoko estuarioetan, hondakin-uren araztegien (HUA) isurketak honen erantzule nagusietako bat izanik. Fitoplanktona, mantenugaien kontzentrazioarekin batera, estuarioen egoera ekologikoaren ebaluaziorako adierazle erabilienetako da, kate-trofikoan duen oinarrizko posizioaren ondorioz. Ikerketa honek, Gernikako HUAren isurketak Urdaibai estuariotik kanpo desbideratzeak sistemaren ingurumen baldintzetan eta fitoplankton komunitatean izandako berehalako eragina ebaluatzea zuen helburu. Horretarako, saneamendu lanak burutu baino lehen eta lanak amaitu osteko baldintza fisiko-kimikoen eta fitoplankton biomasa eta komunitatearen osaeraren (pigmentuen analisi eta mikroskopia bidez) konparaketa egin zen, epe laburrean. Emaitzek, saneamendu lanek estuarioan berehalako eragina izan zutela baieztatu zuten, bereziki estuarioaren barrualdeko eremuan nabaritu zena. Amonio (72,3 μmol L^{-1}-tik 18,2 μmol L^{-1}-ra) eta fosfato (3,5 μmol L^{-1}-tik 2 μmol L^{-1}-ra) kontzentrazioek bat-bateko jaitsierak pairatu zituzten, uraren kalitatea hobetzea eragin zuena, estuario osoan zehar egoera “ona” lortuz, gutxienez. Fitoplankton-komunitatearen osaerak ere berehalako erantzuna erakutsi zuen araztegiaren inguruan, saneamendu lanen ondoren *b* klorofila (Chl *b*) pigmentu diagnostiko ugariena bihurtu baitzen, *Eutreptiella* sp.-ren hazkuntza azkarraren ondorioz. Hala ere, ikerketa honen iraupena hilabete bakarrekoa izan da eta, beraz, denbora gehiago behar da Urdaibai estuarioan egindako saneamendu-lanek sisteman duten benetako eragina frogatzeko.

Abstract

Anthropic nutrient enrichment has become a major environmental issue in estuaries around the world, being the effluents of wastewater treatment plants (WWTPs) one of the main causes. Phytoplankton is, together with nutrients, a useful indicator for the ecological status assessment of estuaries due to its basal position in the food chain. The present study aims to evaluate the immediate effect of the cessation of the wastewater discharges on the environmental conditions and phytoplankton community along the eutrophicated Urdaibai estuary. Thus, a short-term comparison of the physicochemical conditions and the phytoplankton abundance and community composition (by pigment analysis and microscopy) was carried out before and after the sewerage works. Results confirmed that the cessation of wastewater discharges had an immediate effect in the estuary, mainly noticed in the inner part. The abrupt decrease of ammonium (from 72.3 to 18.2 μmol L^{-1}) and phosphate (from 3.5 to 2 μmol L^{-1}) concentrations led to the improvement of the water status, reaching values lower than the ‘‘good’’ status threshold along the whole estuary. The phytoplankton community composition also showed and immediate reaction in the surroundings of the WWTP, with the chlorophyll *b* (Chl *b*) becoming the dominant secondary pigment in the area after the diversion due to the immediate and rapid increase of *Eutreptiella* sp. However, since the sampling-period of this study did not exceed a month after the cessation, a longer study-period is necessary, including interannual studies, to test the real effect of the sanitation works in the Urdaibai estuary.

1. Sarrera

Estuarioak, ibai batetik edo gehiagotik isurketak jasotzen dituzten eta, batzuetan partzialki itxita egon daitezkeen arren, itsasora konektatuta dauden kostaldeko ur-masak dira, ibai- eta itsas-ekosistemen arteko trantsizio guneak alegia (Zambrano-Monserrate eta Ruano, 2021). Sistema hauek betidanik izan dira erakargarriak gizakiontzat, eskaintzen dituzten zerbitzu-ekosistemikoengatik, hala nola, ur eta elikagaien hornidura, uholdeen aurkako babesa, hondakin-uren jasotzea, garraiorako aukera edo/eta kultura eta aisialdi zerbitzuak (Beaumont et al., 2007). Ondorioz, estuarioen inguruan hiri-eremu handiak garatu dira mundu osoan zehar (Boerema eta Meire, 2017) eta horrek eragindako biztanleria-dentsitate handiek eta jarduera antropikoek presio handia eragiten dute sistema hauetan (Rodrigues et al., 2021).

Azkenaldian, mantenugaien aberaste antropikoa ingurumen-arazo nagusia bihurtu da mundu osoko estuarioetan eta, estuario hauetako askotan, hondakin-uren araztegiak (HUA) dira fosforo (P) eta nitrogeno (N) isurketa puntualen erantzule nagusiak (Silva et al., 2016). Honenbestez, askotan HUAk giza kokalekuen inpaktuak arintzeko egitura garrantzitsuak diren arren (Cloern et al., 2016), kutsatzaileen kontzentrazioa murriztuz eta hondakin-urak zuzenean ibaietara isurtzea saihestuz (Pascual-Benito et al., 2020), kutsadura iturri bihurtu daitezke tratamenduen eraginkortasun faltaren ondorioz.

Estuarioetan, mantenugai kontzentrazio handiek eutrofizazioa eragin dezakete (Eccles et al., 2020), honek dakartzan ondorio biologiko negatiboekin, hala nola, fitoplankton biomasaren hazkundea eta alga loraldi kaltegarriak ugaritzea; izan ere, organismo hauen hazkuntza-tasa oinarrizko mantenugaien (N, C, P, O, Fe, Si) kontzentrazioen hazkuntzarekin handitzen da (Wells et al., 2015; Vajravelu et al., 2018). Ekoizpenaren gorakada honek eta materia organikoaren metaketak baldintza hipoxikoak eragin ditzakete, biodibertsitatearen galera eta komunitatearen egitura-aldaketarekin batera (Scherner et al., 2013).

Testuinguru honetan, mantenugaien kontzentrazioa eta fitoplanktona dira estuarioak bezalako azaleko uren egoera ekologikoaren ebaluaziorako adierazlerik erabilienetakoak (adibidez, Europako Uraren Esparru edo Itsas Estrategiaren Esparru Zuzentarauetan; UEZ eta IEEZ) (Seoane et al., 2011). Mantenugaien kasuan, hauen jarraipenak isurketek estuarioaren ezaugarri fisiko-kimikoetan dituzten ondorio zuzenen kontrola ahalbidetzen du, ez bakarrik isurketak jasotzen dituzten eremu puntualetan, baizik eta isurketa eremuetatik haratago ere, orokorrean sistema osoan zehar nabaritzen baitira ondorioak (Poikane et al., 2019).

Fitoplanktona, bestalde, kate-trofikoan duen oinarrizko posizioa dela eta, mantenugai ez-organikoen eta gainerako maila trofikoen arteko loturatzat hartzen da (Seoane et al., 2011) eta mantenugaien eskuragarritasun aldaketei erantzuten dien lehen komunitate autotrofoa dela uste da (Paerl et al., 2003). Hori dela eta, mantenugaien eta fitoplanktonaren jarraipena egitea lagungarria da aldaketa antropikoen berehalako eraginak hauteman eta/edo aldaketa kaltegarri horiek arintzeko kudeaketa-estrategien eraginkortasuna ebaluatzeko (Li et al., 2018; Eccles et al., 2020).

Fitoplanktonaren jarraipena, tradizionalki, mikroskopia optiko bidezko identifikazio eta zenbaketaren bidez egin da (adibidez, Córdoba-Mena et al., 2020). Hala ere, metodo honek denbora asko (Wang et al., 2018) eta ezagutza taxonomiko zabala (Naik et al., 2011) eskatzen ditu, emaitzek gaitasun pertsonalen menpekotasun handia izatea eraginez (Muñiz et al., 2020). Bereizmen altuko kromatografia likido (High Performance Liquid Chromatography; HPLC) bidezko pigmentuen analisia fitoplanktonaren jarraipena egiteko alternatiba bilakatzen ari da (adibidez, Chai et al., 2016; Damar et al., 2020). Teknika honek, 50 pigmentu fitoplanktoniko baino gehiago modu erraz eta azkarrean identifikatu eta kuantifikatzeko aukera ematen du (Zapata et al., 2000), mikroskopian baino bolumen handiagoa aztertuz (Agirbas et al., 2015). Pigmentuak biomarkatzaile gisa erabiliz, fitoplankton-komunitatearen osaera zehaztu (pigmentu diagnostikoekin) eta biomasa totalaren kuantifikazioa (*a* klorofila erabiliz) egin daiteke (Chai et al., 2016; Nunes et al., 2018). Hala ere, teknika honek zenbait muga ere baditu, adibidez, hainbat fitoplankton taldek pigmentu diagnostikoak partekatzea, honek hauen bereizmen-ahalmena mugatzen baitu, eta identifikazioa talde mailaraino baino ez dela heltzen (Latasa, 2007; Nunes et al., 2018). Ondorioz, tekniken konbinazioa (mikroskopia eta pigmentuen analisia) da komunitatearen irudi osatuena lortzeko aukerarik erabiliena (adibidez, Dursun et al., 2020; Lee et al., 2020).

Urdaibai estuarioak, Euskal Autonomia Erkideko (EAEko) Biosfera Erreserba bakarraren parte izan arren, presio antropogeniko nabarmena jasaten du, alderdi natural, ekonomiko eta kulturalaren arteko oreka lortzea zaila izanik (Monge-Ganuzas et al., 2017). Presio eragileen artean, estuarioaren barruko eremuan kokatua dagoen Gernikako HUA nabarmentzen da. Araztegiak lehen eta bigarren mailako tratamenduak burutzen zituen, baina ez zen P eta N eraginkortasunez ezabatzeko gai, mantenugai horiek eutrofizazioaren eragile nagusiak izanik. Ondorioz, 1972az geroztik, Gernikako HUAtik estuariora egin diren isurketa zuzenak sistemaren kutsadura- eta ingurumen-arazoen iturri nagusia izan dira eta estuarioaren barruko

eremuak ez ditu UEZ-ak ezarritako ingurumen-helburuak bete azken urteotan (Borja et al., 2021), mantenugai eta fitoplanktonaren gehiegizko ugaritasunagatik.

Estuarioak Gernikako araztegiaren isurketak jaso bitartean, hainbat izan dira sistemaren ezaugarri fisiko-kimikoen (adibidez, Iriarte et al., 2016) edo giza inpaktuen (Castillo-Eguskitza et al., 2017) inguruan egin diren ikerketak, baita fitoplanktonaren ingurukoak ere (adibidez, Ansotegui et al., 2001; Trigueros eta Orive, 2001). Hala ere, azken urteotan saneamendu-lanak egin dira eremuan eta, 2021 uztailaren hasieran, Gernikako araztegiaren isurketak estuariotik kanpo desbideratzea lortu zen. Gaur egun, isurketak, kolektore baten bidez, Lamiarango HUAra (Bermeora) bideratzen dira eta, handik, araztutako efluenteak kostaldera isurtzen dira. Honenbestez, 2021an, 50 urtetan zehar Urdaibai estuarioko barnealdera isuritako Gernikako araztegiaren mantenugai-karga antropikoak eten egin ziren.

Ikerketa honek Gernikako HUAren isurketen eteteak Urdaibai estuarioaren ur-kalitatean eta fitoplankton-komunitatean duen berehalako eragina ebaluatzea du helburu, epe laburrean (asteak), estuarioko baldintza fisiko-kimikoak eta fitoplankton biomasa eta osaera desbideratzea baino lehen eta ostean alderatuz. Ikerketaren hipotesia mantenugai kontzentrazioaren berehalako jaitsiera egongo dela da, eta honek estuarioko fitoplankton-komunitatean aldaketak eragingo dituela.

2. Material eta metodoak

2.1. Ikerketa eremua

Urdaibaiko estuarioa Bizkaiko Golkoko hego-ekialdean kokatutako (43°22'N, 2°41'W) sistema meso-makromareala da (*2.1. irudia*). Eremuko klima epel-ozeanikoa da, uda epel eta negu leunekin, eta Golkoko Korrontearen eta trosposferaren erdialde eta goialdeko mendebaldeko haize atmosferikoen eraginpean dago (Usabiaga et al., 2004). Estuarioak Oka ibaiaren itsasoratze eremua hartzen du, sistema laburra (13,7 km) eta sakonera txikikoa (Barroeta et al., 2023) izanik. Ur gezak sistemari egiten dion ekarpena txikia da estuarioaren guztizko bolumenarekin alderatuta eta ibaiaren isurketa txikia izan ohi da marea-prismarekin alderatuta (Villate et al., 2017). Ondorioz, itsasgoran zehar, estuarioaren gehiengoa itsasoaren eraginaren menpe dago eta marea zikloek eragin handia dute sisteman (Valencia et al., 2004). Ur zutabearen estratifikazioa estuarioan zehar aldatuz doa, kanpoaldean ur-zutabea guztiz nahastuta egotetik, erdiko eta barruko eremuan geruzatuta egotera pasatuz (Barroeta et al., 2020). Hala ere, estuarioaren geomorfologia eta Oka ibaiaren izaera torrentziala dela eta,

estuarioaren bolumena eta hustuketa tasak oso aldakorrak dira (Madariaga et al., 1995). Honek eragin zuzena du estuarioaren ezaugarri fisiko-kimiko eta biologikoetan, denbora eskala laburrean fitoplankton-komunitatearen osaera eta ugaritasunean aldaketak sustatuz (Madariaga et al., 1995).

Morfologian oinarrituta, estuarioan hiru gune nagusi identifikatu daitezke (*2.1. irudia*) (Villate et al., 1989). Kanpoko eremua, sistemaren kanpo-mugatik (Mundaka) Muruetaraino hedatzen dena, marearteko lautada zabalak eta hondartza hareatsuak dituen eremua da. Erdialdeko eremua, Muruetan hasi eta kanal artifizialaren hasieraraino doana, nabarmen estutzen da kanpoaldeko eremuarekin alderatuz eta kanal bihurgunetsuen sare konplexu batez eta padura garatuz inguraturiko kanal zentral batek osatzen du. Barrualdeko eremua, 4 km-ko luzera eta 15 m-ko zabalera duen ubide artifizial bat da, Gernikako herrira iristen dena eta lezkadiz inguratuta dagoena.

2.2. Laginketa eta datuen bilketa



2.1. irudia. *Ikerketa eremua eta laginketa puntuak. Ezkerrean, Urdaibai estuarioaren kokapena, Bizkaiko Golkoan (goian) eta Euskal kostaldean (behean). Eskuinean, laginketa puntuen kokapena estuarioan zehar eta Gernikako HUA.*

Urdaibai estuarioko egoera Gernikako HUAaren isurketak gelditu aurretik eta ostean konparatu ahal izateko, sei laginketa burutu ziren 2021an, bi isurketak egon bitartean, eta lau desbideratzearen ondoren. Lehenengo laginketa eguna ekainaren 30a izan zen eta, bigarrena, uztailaren 6a, hondakin-uren isurketak behin-betiko gelditu ziren eguna. Ekainaren 30etik uztailaren 6ra bitartean isurketen tartekako mozketak egon ziren, hobekuntza lanen azken frogen ondorioz. Horren ostean, hilabete baten buruan, beste 4 laginketa egin ziren: desbideratzetik 48 h-ra, aste batera, bi astera eta hilabete batera. Laginketak itsasgoran burutu ziren beti.

Laginak estuarioan zeharreko lau laginketa-puntu egonkorretan bildu ziren (*2.1. irudia*), estuarioko gazitasun-gradiente osoa hartzen zutenak: bat kanpoaldeko eremuan (URD1), bat erdiko eremuan (URD2) eta bi barneko eremuan (URD4 eta URD6). Azken laginketa-puntua (URD6) Gernikako HUAren aurrean kokatua zegoen, efluentea estuariora isurtzen zen lekuan. Horrez gain, Oka ibaian beste laginketa puntu bat ezarri zen, HUAren isurketak jaso baino lehen ibaiaren propietate fisiko-kimikoak kontrolatzeko helburuarekin. Uraren gazitasunaren arabera, URD1 eremu euhalinoa da, URD2 polihalinoa eta URD4 eta URD6 mesohalinotzat hartzen dira (*1. Kapituluko* datuen arabera).

Laginketa puntu bakoitzean, hainbat parametro fisiko-kimiko (gazitasuna, tenperatura, konduktibitatea, pH-a, disolbaturiko oxigenoa, oxigeno saturazioa eta uhertasuna) neurtu ziren *in situ* EXO2 (YSI) zunda multiparametrikoa erabiliz. Horrez gain, Plastimo Echotech II zundarekin, ur-zutabearen sakonera erregistratu zen eta Secchi diskoaren sakonera neurtu zen uraren gardentasunaren estimazio gisa. Ur laginen bilketari dagokionez, 2,5 L-ko plastikozko Niskin botila bat erabili zen 0,75 m-ko sakonerara ura biltzeko. Bildutako ura mantenugai ez-organikoen analisirako eta fitoplanktonaren biomasa eta komunitatearen osaera aztertzeko erabili zen.

Aztertutako mantenugai ez-organiko disolbatuak amonioa, nitritoa, nitratoa (nitrogeno oxidatu osotik kalkulatua), ortofosfatoa eta silikatoa izan ziren. Analisia, Pasaiako (Gipuzkoa) AZTIn, Itsas Ikerketa Unitateko Kimika Laborategian, egin zen. Erabilitako teknika UV/VIS kolorimetria izan zen, fluxu segmentatua duen 5 kanaleko analizatzaile automatiko batekin (BRAN-LUEBBE, AXFLOW). Mantenugai bakoitzaren analisi indibidualak klasikoak eta oso erabiliak diren erreakzio kolorimetrikoak aplikatzen dituzten metodoen bidez burutu ziren (GO-SHIP eskuliburua, Hydes et al., 2010). Amonio, nitrato eta silikatoaren kuantifikazio-muga 1,6 μmol L^{-1} zen, nitritoarena 0,4 μmol L^{-1} eta fosfatoarena

0,16 µmol L^{-1}. Kontzentrazio balioak kuantifikazio-mugaren azpitik zeudenean, analisi estatistikoak eta irudikapen grafikoak egiteko, mugaren % 50eko kontzentrazio balioa ezarri zitzaien.

Fitoplankton-komunitatearen azterketa HPLC bidezko pigmentuen analisian oinarritu zen nagusiki. Hala ere, emaitza osoagoak lortzeko asmoz, mikroskopia optiko bidez laginak behatuz taxon nagusien identifikazioa ere burutu zen. Pigmentuak aztertzeko ur laginak plastikozko botila opakuetan biltzen ziren eta laginketa egunean bertan iragazten (0,4-4 L) ziren. Iragazketa ilunpetan egin zen, presio leunarekin (<150 mm Hg), Whatman GF/F beira-zuntzezko iragazkiak (47 mm-ko diametroa, Whatman International Ltd.) erabiliz. Iragazi eta berehala, iragazkiak nitrogeno likidoan izoztu eta, erauzketa egin arte, -80 ºC-tan gordetzen ziren. Pigmentuen erauzketa ere ilunpetan burutu zen, saiodi laburretan, % 90 azetona 5 ml-rekin, beirazko barra batez filtroa puskatuz. Jarraian, erauzketan lortutakoa xiringa-iragazkien (Millex, 0,22 µm-ko poro-tamaina) bidez iragazi zen, iragazki-hondakinak kentzeko. Pigmentuen analisia HPLC bidez egin zen, Zapata et al.-ek (2000) deskribatutako metodoa jarraituz eta Seoane et al.-en (2009b) ekipoekin, pigmentuak xurgapen espektroen eta atxikipen denboren arabera identifikatuz (Jeffrey, 1997; Zapata et al., 2000). HPLC-aren kalibrazioa DHI-ren klorofila (*a*, *b* eta c_2) eta karotenoide (fukoxantina, 19'-hexanoiloxifucoxantina, luteina, zeaxantina, peridinina, biolaxantina, aloxantina eta β-karoteno) estandarrak erabiliz egin zen. Estandar komertzialekin kalibratu ez ziren pigmentuen kuantifikaziorako, Jeffrey-k (1997) lortutako desagertze-koefiziente molarrak aplikatu ziren.

Mikroskopia bidezko identifikaziorako erabilitako ur-laginak 125 ml-ko topazio borosilikatoko botiletan gorde ziren. Laginak bildu eta berehala, Lugol disoluzio azidoarekin (% 0,4 v/v) fixatu eta hotzean (4 °C) eta ilunpetan gorde ziren, aztertuak izan arte. Fitoplankton taxon nagusien identifikazio taxonomikoa Utermöhl sedimentazio metodoan oinarritu zen (Edler eta Elbrächter, 2010) eta Nikon diaphot TMD alderantzizko mikroskopioarekin egin zen, laginen dentsitatearen arabera 10 edo 50 ml-ko azpi-laginak aztertuz. Zelula handiak identifikatzeko plaka osoa handipen baxuetan (100× eta 200×) aztertu zen eta, zelula txikiagoentzako, 400× handipenarekin transektuak egin ziren. Orokorrean, taxon nagusiak genero edo espezie mailan identifikatu ziren, hauen nomenklaturaren estandarizaziorako AlgaeBase erabiliz (Guiry eta Guiry, 2018).

2.3. Datuen analisia

Laginketa-puntu bakoitzerako parametro estatistiko nagusiak (tartea, mediana eta/edo batezbesteko aritmetikoa) kalkulatu eta aldagai fisiko-kimikoen, fitoplankton biomasa totalaren eta komunitatearen osaeraren irudikapen grafikoak egin ziren, Windows Excel 2016 bidez.

Mann-Whitney U proba erabili zen, lagin independenteentzako proba ez-parametrikoa, desbideratze lanen aurretik eta lanen ostean aztertutako parametroen mediana-balioen artean desberdintasun adierazgarriak (alfa: 0,05) zeuden zehazteko. Emaitzak fidagarriagoak izan zitezen, datu osagarriak erabili ziren proba honetan, desbideratzearen "aurreko" egoerari 2020ko uztailaren 17ko eta 29ko bi laginketa gehituz (*1. Kapituluko* datuak). Gehitutako laginketa hauen aukeraketa datetan oinarritu zen. 2020ko uztaileko datuak gehitzea erabaki zen desbideratzearen "ondoren" egindako laginketak 2021ko uztailean burutu zirelako (urteko sasoi berdinean) eta, bi urte hauen artean, estuarioan egondako aldaketa nabarmen bakarra hondakin-uren desbideratzea izan zelako. Proba estatistikoa laginketa puntu bakoitzean burutu zen, independenteki, PAST 4.05 (Paleontological STatistics) erabiliz (Hammer et al., 2001).

3. Emaitzak

Gazitasunaz eta tenperaturaz gain, estuarioetako ur-masak deskribatzeko ezinbesteko aldagai ozeanografikoak direnak, atal honetan HUAren isurketen gelditzearen ondorioz aldaketak pairatu ditzaketen aldagaiak deskribatu eta irudikatuko dira. Aztertutako gainerako parametroak material osagarrian aurki daitezke (*Annexes, A2.1. taula* eta *A2.2. taula*).

Egindako sei laginketen emaitzak bi taldetan banatzen dira: hondakin-uren desbideratzearen aurreko laginketak (2021/06/30 eta 2021/06/07) eta desbideratze osteko laginketak (2021/07/09, 2021/07/14, 2021/07/19 eta 2021/08/05).

3.1. Ingurumen baldintzak

Gazitasunak zonifikazio argia erakutsi zuen Urdaibaiko estuarioan zehar, estuarioaren kanpoko eremutik barrurantz joan ahala gutxituz. Baliorik altuenak (34,1eko batez bestekoa) eta egonkorrenak (33,8–34,3 bitartekoak) kanpoko eremuan (URD1) ikusi ziren. Erdiko eremuan (URD2) batez besteko gazitasuna 28,3koa izan zen azterketa-aldian, 26,5–30

bitartekoa. Estuarioaren eremu kanalizatuan batez besteko gazitasun-balioak 18,5 eta 11,5 izan ziren URD4n eta URD6an, hurrenez hurren. Gainera, gazitasunari dagokionez, hau izan zen eremurik aldakorrena, 16,6–20,9 bitarteko balioekin URD4n eta 9,3–14,1 bitarteko balioekin URD6n.

Estuarioan, ikerketan zehar, batez besteko tenperatura 21,6 ºC-koa izan zen, 18,3–25,3 ºC bitarteko balioekin. Gainera, batez besteko tenperatura handituz joan zen ikerketaren hasieratik (18,5 ºC ekainaren 30ean) amaierara arte (24 ºC abuztuaren 5ean). Oka ibaiaren tenperaturari dagokionez, estuarioan aurkitutakoa baino baxuagoa izan zen (16,8–19,3 ºC artean), 18,1 ºC-ko batez besteko balioarekin.



2.2. irudia. *Disolbaturiko oxigeno kontzentrazioa (DO) Urdaibai estuarioko laginketa puntu desberdinetan. Marradun zutabeek saneamendu lanen aurreko laginketak irudikatzen dituzte eta betegarri homogeneodun zutabeek desbideratzearen osteko laginketak.*

Hondakin-uren desbideratzearen ondorioz berehalako aldaketak pairatu zitzakeen aldagaietako bat disolbaturiko oxigeno (DO) kontzentrazioa da (*2.2. irudia*). Kanpoko estuarioan (URD1), DO kontzentrazioa egonkorra izan zen ikerketaren denbora-tartean zehar, 7,2–7,6 mg L^{-1} arteko balioekin. Hala ere, balioak aldakorrago bihurtuz joan ziren barne-estuariorantz hurbildu ahala: URD2n batez besteko balioa 7,2 mg L^{-1} (6,9-7,9 mg L^{-1}) izan zen, URD4n 6,7 mg L^{-1} (6,4-7,2 mg L^{-1}) eta URD6n 7,1 mg L^{-1} (5,8-8,1 mg L^{-1}). Saneamendu-lanen ondoriozko aldaketei dagokienez, estuarioko erdiko eta barneko eremuek DO balio arinki altuagoak erregistratu zituzten hondakin-uren isurketak gelditu ondoren. Hau bereziki nabarmena izan zen estuarioaren erdiko eremuan, Mann-Whitney-ren probak hondakin-uren

isurketak eten osteko DO kontzentrazio-igoera adierazgarria zela zehaztu baitzuen (p balioa 0,03).

Uhertasunak, gazitasunak bezala, zonazio argia erakutsi zuen Urdaibaiko estuarioan, uhertasun-gradientea estuarioaren barrualderantz handitzen zelarik (*2.3. irudia*). URD1en batez besteko uhertasuna 0,3 NTU-koa izan zen ikerketan zehar, eta batez bestekoa 4,4 NTU-ra igo zen HUAren inguruan (URD6). Saneamendu-lanen ondoriozko uhertasunaren berehalako aldaketari dagokionez, HUAren inguruan bakarrik nabaritu zen. URD6n uhertasunaren beherakada azkarra egon zen hondakin-uren isurketak eten ondoren, batez besteko uhertasuna 5,4 NTU izatetik (aurretik) 3,9 NTU izatera (ondoren) pasatuz. Gainera, desbideratzearen ondoren, uhertasun balioak 4,5 NTU baino txikiagoak izan ziren. Hala ere, Mann-Whitney probaren arabera, aldaketa horiek ez ziren adierazgarriak izan. Oka ibaian uhertasun mediana 1,6 NTU izan zen ikerketan zehar.



2.3. irudia. *Uhertasun balioak Urdaibai estuarioko laginketa puntu desberdinetan. Marradun zutabeek saneamendu lanen aurreko laginketak irudikatzen dituzte eta betegarri homogeneodun zutabeek desbideratzearen osteko laginketak.*

3.2. Mantenugai ez-organikoen kontzentrazioa

Estuarioko mantenugai ez-organikoen kontzentrazioak esperotako gradiente espaziala erakutsi zuen, estuarioaren barneko eremuan kontzentrazio altuagoak aurkituz. Gainera, aztertutako mantenugai horietako batzuek, berehalako beherakada jasan zuten hondakin-urak estuariotik kanpo desbideratu ostean, eragina HUAren inguruan bereziki nabarmena izanik.

Amonioa izan zen hondakin-urak desbideratzearen eragina gehien pairatu zuen aldagaia (*2.4. irudia*). Orokorrean, ikerketan zehar, estuarioaren kanpoko eremuan (URD1) batez besteko amonio kontzentrazioa 2,3 µmol L^{-1}-koa izan zen, hau estuarioren barrualdera hurbildu ahala handituz joan zelarik, HUAren inguruan (URD6) 36,2 µmol L^{-1}-ko batez besteko kontzentraziora helduz (maximoa 89,6 µmol L^{-1}). Oka ibaian, ordea, batez besteko amonio kontzentrazioa 3,3 µmol L^{-1} zen. Honek argi utzi zuen estuarioko amonioak jatorri antropikoa zuela, iturri nagusia HUA zelarik. Ondorioz, HUAren hondakin-urak estuariotik kanpo desbideratzerakoan, amonio kontzentrazioak beherakada azkarra eta adierazgarria (p balioa 0,03) jasan zuen estuarioaren erdiko eta barruko eremuetan. URD2n, batez besteko amonio kontzentrazioa 14,8 µmol L^{-1} (aurretik) izatetik 4,3 µmol L^{-1} (ondoren) izatera pasa zen. Kanalean (URD4), batez besteko kontzentrazioaren jaitsiera 47 µmol L^{-1}-tik 16,8 µmol L^{-1}-ra izan zen eta, araztegiaren inguruan (URD6), 72,3 µmol L^{-1}-tik 18,2 µmol L^{-1}-ra.



2.4. irudia. *Amonio kontzentrazioak Urdaibai estuarioko laginketa puntu desberdinetan eta Oka ibaian. Marradun zutabeek saneamendu lanen aurreko laginketak irudikatzen dituzte eta betegarri homogeneodun zutabeek desbideratzearen osteko laginketak.*

Fosfato kontzentrazioak amonioaren antzeko jokaera erakutsi zuen, baina berehalako aldaketak ez ziren hain esanguratsuak izan (*2.5. irudia*). Estuarioko fosfato kontzentrazioa amonioarena baino askoz baxuagoa zen, URD1n 0,1 µmol L^{-1}-ko batez besteko balioak erregistratuz eta URD6n 2,5 µmol L^{-1} (gehienez 3,8 µmol L^{-1}-ra iritsiz). Gainera, amonioarekin gertatzen zen bezala, Oka ibaiaren batez besteko fosfato kontzentrazioa (0,7 µmol L^{-1}) araztegiaren ingurukoa baino askoz txikiagoa zen, bere jatorri antorpikoa agerian utziz. Hondakin-uren isurketak estuariotik kanpo desbideratzearen berehalako eragina barneko eremuan nabaritu zen nagusiki, kontzentrazioak URD4n 1,9 µmol L^{-1} (aurretik) izatetik 1,2 µmol L^{-1} (ondoren) izatera jaitsiz eta URD6n 3,5 µmol L^{-1}-tik 2 µmol L^{-1}-ra jaitsiz. Mann-Whitney-ren probaren arabera, URD4n eta URD6n ikusitako fosfato kontzentrazio jaitsiera hau esanguratsua (p balioa 0,03) izan zen.



2.5. irudia. *Fosfato kontzentrazioak Urdaibai estuarioko laginketa puntu desberdinetan eta Oka ibaian. Marradun zutabeek saneamendu lanen aurreko laginketak irudikatzen dituzte eta betegarri homogeneodun zutabeek desbideratzearen osteko laginketak.*

Nitratoak eta silikatoak ordea, portaera desberdina erakutsi zuten estuarioan zehar (material osagarriak; *Annexes, A2.2. taula*). Hauen kontzentrazioak handituz joan ziren estuarioaren barrualderantz hurbildu ahala, amonio eta fosfatoarekin gertatzen zen bezala, URD1n kuantifikazio-muga azpiko nitrato kontzentrazioak eta batez besteko 1,3 µmol L^{-1} silikato kontzentrazioak aurkituz eta URD6n, ordea, batez besteko 20 µmol L^{-1} nitrato eta 76,6 µmol L^{-1} silikato kontzentrazioekin. Hala ere, bai nitrato baita silikatoaren kasuan ere, Oka ibaian kontzentrazio altuagoak aurkitu ziren, batez besteko 45 µmol L^{-1} nitrato eta 94,2 µmol L^{-1} silikato kontzentrazioak hain zuzen ere, hauen jatorri naturala islatuz. Ondorioz, hondakin-uren isurketak estuariotik kanpo desbideratzeak ez zuen ondorio argirik izan mantenugai hauen kontzentrazioetan. Nitratoaren kasuan, kontzentrazioek behera egin zuten orokorrean, URD2n 8,1 µmol L^{-1} (aurretik) izatetik 2,7 µmol L^{-1} (ondoren) izatera pasa zen eta URD6n 23,4 µmol L^{-1}-tik 18,5 µmol L^{-1}-ra jaitsi zen. Silikatoari dagokionez, ez zen berehalako aldaketarik hauteman. Are gehiago, Mann-Whitney probaren arabera, desbideratzearen ondoren ez zen aldaketa esanguratsurik egon estuarioko ez nitrato ezta silikato kontzentrazioetan ere.

3.3. Fitoplankton biomasa eta komunitatearen osaera

Biomasa fitoplanktoniko totala *a* klorofila (Chl *a*) kontzentrazioarekin zenbatetsi da (*2.6. irudia*). Ikerketan zehar, biomasak zonazio argia erakutsi zuen Urdaibaiko estuarioan, balioak barruko eremura hurbildu ahala handituz, honako batez besteko Chl *a* balioekin: URD1 1,9 µg L^{-1}, URD2 7,2 µg L^{-1}, URD4 9,3 µg L^{-1} eta URD6 26,6 µg L^{-1}. Gainera, ikerketan zehar estuarioan erregistratutako Chl *a* maximoa (55,9 µg L^{-1}) ere URD6n aurkitu zen. Saneamendu lanen ondoren ikusitako biomasa fitoplanktonikoaren bilakaerari dagokionez, aldaketa nabarmenak antzeman ziren, aldakortasun espaziala (laginketa puntuak) eta denborazkoa (laginketa egunak) erakutsiz, baina ez zuten eredu zehatzik jarraitu hondakin-uren desbideratzearekin erlazionatu ahal izateko.



2.6. irudia. *Fitoplankton biomasa totala (Chl a kontzentrazioa) Urdaibai estuarioko laginketa puntu desberdinetan. Marradun zutabeek saneamendu lanen aurreko laginketak irudikatzen dituzte eta betegarri homogeneodun zutabeek desbideratzearen osteko laginketak.*

Komunitatearen osaerari dagokionez, aitzitik, estuarioaren luzetarako ardatzean fitoplankton-komunitate desberdinak aurkitu ziren eta, zenbait eremutan, berehalako aldaketak hauteman ziren hondakin-urak estuariotik kanpo desbideratu ostean (*2.7. irudia*). Kanpoko eremuan (URD1), komunitatearen osaerak ez zuen berehalako aldaketa nabarmenik jasan hondakin-urak estuariotik kanpo bideratu ostean. Eremu honetan, pigmentu diagnostiko nagusia fukoxantina (Fuco) zen, *b* klorofila (Chl *b*) eta 19'-hexanoiloxifukoxantina (Hex) atzetik zituelarik. *Minutocellus polymorphus* eta *Chaetoceros tenuissimus* diatomeoak (fukoxantina-dunak) izan ziren eremu horretako taxon nagusiak, *Tetraselmis* spp. klorofitaren (Chl *b*-duna) eta *Gephyrocapsa huxleyi* eta Prymnesiales bezalako haptofitoen agerpen garrantzitsuarekin batera. Kanpoko estuarioko komunitatean antzemandako desberdintasun bakarrak Chl *b*-aren ugaritasunaren handipen arina izan zen, *Eutreptiella* sp. -en presentzia handiagoagatik eta *Chamydomonas* sp. eta *Pyramimonas* sp.-ren agerpenaren ondorioz.

Erdialdeko eremuko fitoplankton-komunitatearen osaera kanpoko eremuaren antzekoa izan zen ikerketan zehar, eta honek ere ez zuen aldaketa adierazgarririk pairatu hondakin-uren desbideratzearen ondorioz. Fukoxantina izan zen eremu honetako pigmentu diagnostiko ugariena eta Chl *b* bigarrena, hondakin-uren isurketak gelditu ondoren bere garrantzia areagotuz. Gainera, kanpoaldeko eremuan ez bezala, aloxantina ugaritzen hasi zen, 19'-hexanoiloxifucoxantina (Hex) ordezkatuz. Komunitatearen taxon gainartzailea *C.*

tenuissimus diatomeoa izan zen, nahiz eta saneamendu lanen ostean *Tetraselmis* spp.-ren garrantzia handitu. Gainera, *Plagioselmis* spp. eta *Teleaulax* spp. bezalako kriptofitoen (aloxantina-dunak) agerpena URD1ean baino handiagoa zen, eta haptofitoena txikiagoa.



2.7. irudia. *Pigmentu diagnostikoen proportzioak (batez besteko balioak) Urdaibai estuarioko laginketa puntu ezberdinetan HUAren isurketak desbideratu aurretik (ezkerreko zutabea) eta desbideratu ondoren (eskuineko zutabea).Fuko: fukoxantina; Allo:aloxantina, Chl b: b klorofila; Pras: prasinoxantina; Hex: 19'-hexanoiloxifucoxantina; Peri: peridinina; Zea: zeaxantina.*

Barrualdeko eremuan (URD4 eta URD6), kanpoaldeko eta erdiko eremuetan ez bezala, fitoplankton-komunitatearen osaeraren aldaketa azkar eta adierazgarria ikusi zen hondakin-urak estuariotik kanpo bideratu ostean. Alde batetik, URD4n, saneamendu lanak burutu baino lehen, aloxantina zen pigmentu diagnostiko ugariena, baina, lanak burutu eta berehala, aloxantinaren garrantzia gutxitu eta Chl *b* kontzentrazioa handitu egin zen. Aldaketa hori eremuko taxon nagusietan ere islatu zen. Desbideratzea baino lehen, *Plagioselmis* spp., *Teleaulax* spp. eta *Urgorri complanatus* kriptofitoak ziren nagusi URD4n. Saneamendu lanen ostean, ordea, *Tetraselmis* spp. eta *Eutreptiella* sp. bezalako alga berdeen presentzia handitu eta *Urgorri complanatus* desagertu egin zen.

Araztegiaren inguruan, URD6n, araztegiko urak estuariora isuri bitartean, fukoxantina eta aloxantinaren arteko nagusitasun partekatua zegoen. Isurketak eten zirenean, aldiz, Chl *b*

kontzentrazioak igoera bortitza pairatu zuen, eremuko pigmentu diagnostiko nagusia bihurtuz. Nagusitasun-aldaketa hori komunitatearen osaera taxonomikoan ere ikusi zen. Saneamendu lanak burutu baino lehen, *Kryptoperidinium foliaceum* dinoflagelatuak (fukoxantina-duna) eta kriptofitoak (batez ere *Teleaulax* spp. eta *Urgorri complanatus*) ziren URD6ko fitoplankton-komunitatean garrantzi handiena zuten organismoak. Hala ere, hondakin-uren isurketak eten eta berehala, *Eutreptiella* sp.-ren hazkuntza azkarra ikusi zen, URD6ko taxon gainartzailea bihurtuz.

4. Eztabaida

Among the Pras containing prasinophytes (PrCA taxa), which comprise the Prasinophyceae orders Mamiellales, Pseudoscourfieldiales (Pycnococcaceae), and Prasinococcales (Latasa et al., 2004), the most commonly and abundantly reported in the estuary in 2020 were *Bathycoccus prasinos*, *Micromonas* spp. (*M. bravo*, *M. commoda* and *M. pusila*), and *Ostreococcu*s spp. (*O. lucimarinus*, *O. mediterraneus*, and *O. tauri*) (*Chapter 1*), corresponding to Mamiellophyceae (Lopes dos Santos et al., 2017). Additionally, some of these were previously reported in the Urdaibai estuary and other nearby systems like the Nervion Estuary (Ansotegi et al., 2003; Seoane et al., 2005; Laza-Martinez et al., 2007). These, and most of the organisms belonging to PrCA, belong to the picoplanktonic fraction (cells < 3 μm in diameter) (Guillou et al., 2004) and, therefore, it is hard or impossible to identify and quantify them by microscopy due to their small size (e.g., Ansotegui et al., 2003). Nevertheless, in the present study, pigment analysis enabled the determination of a significant increase of PrCAs' contribution to the total biomass of the Urdaibai estuary after the sewerage

works, being two times higher in URD1, five times in URD2, three times in URD3 and six times in URD4, although it was not possible to identify the organisms responsible for it. Research has shown that PrCA are typical in coastal waters (Not et al., 2004; Collado-Fabri et al., 2011) and open ocean (Treusch et al., 2012; Vaulot et al., 2012), being one of the major contributors to marine picophytoplankton (Lohrenz et al., 2003; Wu et al., 2017b). This explains their distribution in many estuarine systems, like the Pearl River Estuary (Chai et al., 2016), tropical estuaries in Indonesia (Damar et al., 2020), and several European estuaries (Lemaire et al., 2002), where the presence of PrCA (determined through Pras) is limited to the outermost estuarine areas and is generally recorded in low concentrations and frequencies. Due to their high surface:volume ratio, efficient growth rates, and enhanced nutrient uptake rates (Paerl et al., 2003), PrCA are more competitive than other phytoplankton functional groups when nutrients are not so abundant (Glibert et al., 2010), which might explain their increase from URD1 to URD4. An increase of PrCA after the sewerage works (and reduction of anthropogenic inputs of N and P) was also described by Leruste et al. (2016) in Mediterranean lagoons, where prasinophytes in the 3–6 μm size range replaced small diatoms. Nevertheless, this significant change registered in Urdaibai should be further studied, to determine if PrCA will continue having an important contribution to the total phytoplankton biomass of the estuary and which are the taxa responsible for this, or if it was just a mid-term effect of the sewerage works.

Regarding the community composition shift in the inner estuary, with the increase of FCA (mainly diatoms) over the decrease of ACA (cryptophytes) and CbCA (green algae except for Pas containing prasinophytes), it might be interpreted as recovery of the system after years of anthropogenic nutrient enrichment by the WWTP. The community composition of the inner Urdaibai estuary during the WWTP discharges (2020) was the expected for human impacted estuaries, with a high contribution of flagellates to the total biomass, due to the dominance of ACA and the high presence of CbCA and *K.foliaceum*. Smayda (1990) suggested that the elevation of inorganic N:Si ratios in coastal areas might affect species dominance within the phytoplankton assemblage, prompting the growth of flagellates over diatoms (Sommer, 1994; Roberts et al., 2003). Indeed, a shift in phytoplankton assemblage composition has been observed in many estuarine ecosystems related to anthropogenic N and P enrichment, most of them reporting that diatoms were replaced by smaller phototrophs, such as cyanobacteria and various flagellates (Glibert et al., 2011; Dutto et al., 2012; Jiang et al., 2014; Liu et al., 2022). Thus, from a nutrient composition perspective, in Urdaibai estuary, during 2020, non-siliceous phytoplankton groups (e.g. ACA and CbCA) probably used the

excess of N and P coming from the WWTP, while the Si limited diatoms could not use it, and thus with increasing DIN:Si these non-siliceous algae gradually became more dominant and influenced the phytoplankton assemblage composition (Tréguer and De La Rocha, 2013; Jiang et al., 2014). In fact, cryptophytes (ACA) are known to dominate the inner area of many eutrophicated estuaries other than Urdaibai (Adolf et al., 2006; Valdes-Weaver et al., 2006; Santos et al., 2022), where their success over other groups like diatoms is explained, among others, by their ability to adapt to turbid environments by photoacclimation to low light intensities (Weng et al., 2009; Collini, 2022). Additionally, they respond rapidly to nutrient loads due to their high growth rate (Paerl et al., 2003), have higher advantage in ammonium-enriched waters (Horner and Thompson, 2001), and show a mixotrophic character, which allows them to utilise dissolved organic carbon for growth if necessary (Johnson et al., 2013). As for the green algae (CbCA) in the inner Urdaibai estuary in 2020, the main taxa were euglenoids like *Eutreptiella* spp. and chlorophytes, such as *Tetraselmis* spp. and several unidentified picoplanctonic coccoids (*Chapter 1*). Euglenoids are known to thrive in shallow, nutrient rich, and low light waters (Poniewozik and Juráň, 2018), where they coexist with other flagellates like cryptophytes (Jeong et al., 2021), sharing features such as fast reproduction and mixotrophy, which explains their presence in the inner Urdaibai estuary during the wastewater discharges. As for small (<5 μm) chlorophytes, being *Picochlorum* spp. and *Nannochloris* sp. the most representatives in the area (*Chapter 1*), they have particularly high affinity for ammonium uptake compared to diatoms and dinophytes (Litchmann et al., 2007; Laruste et al., 2016), which was in high concentrations during the discharges and might explain the frequent presence of these non-siliceous algae. In *Chapter 2*, an immediate increase of CbCA was recorded after the sewerage works in 2021, due to the increase of *Eutreptiella* spp. However, the present study revealed that, in the mid-term, there has been an overall decrease of the contribution to total biomass of this group in the inner estuary (e.g. from 25% to 5% in URD6), together with the decrease of cryptophytes (e.g., from 54% to 27% in URD4), being replaced by a higher presence FCA (*Figure 4.5*).

The FCA group of the inner Urdaibai estuary is mostly comprised of small diatoms and the Fuco-containing dinoflagellate *K. foliaceum*. However, the higher contribution of FCA to the total phytoplankton biomass during 2022 (form URD3 to URD6), being two times higher in URD4 and three times higher in URD5, was mostly caused by the higher diatom abundance, with the increase of taxa like *Cyclotella*, *M. polymorphus*, *Skeletonema*, and *Thalassiosira*. The increase of diatom contribution to total phytoplankton biomass can be easily explained by the cessation of wastewater discharges to the Urdaibai estuary and the consequent change

in nutrient loadings. In general, diatoms show high maximum nutrient uptake rates and high growth rates, being favoured under high or fluctuating nutrients (Litchman et al., 2007; Laruste et al., 2016), which explains their presence in 2020 and 2022. However, the lower diatom presence in 2020 might be associated with the elevated levels of ammonium coming from the WWTP rather than with nutrient limitation or stoichiometry (varying nutrient ratios) (Glibert et al., 2011). Many organisms prefer ammonium as an N source because it is already in reduced form, being easily assimilated (e.g., McCarthy et al., 1997), however, some diatoms physiologically prefer, and sometimes require, nitrate over ammonium (Lomas and Glibert, 1999). Additionally, this is accentuated when cells are in an energy-imbalance state, such as in situations involving fluctuating light conditions like in the inner Urdaibai estuary, when nitrate serves not only as a nutrient, but also contributes to maintaining the cellular energy balance (Lomas and Glibert, 1999). In the present study, during WWTP discharges, ammonium was the main component of DIN throughout the entire estuary, but this changed after the sewerage works, when ammonium concentrations decreased and nitrate became the main component of DIN in the inner area (at least 50%, and 65% in URD5 and URD6). Thus, the increase of the FCA contribution to total phytoplankton biomass in the inner estuary in 2022 could be explained by the lower ammonium concentrations and higher availability of nitrate for diatom growth resulting from sewerage works in the Urdaibai estuary. Indeed, declines in diatoms were significantly correlated with the increase in ammonium concentration in the San Francisco Estuary (Glibert et al., 2011), and several studies have confirmed the favoured growth of diatoms under nitrate enrichment (Dominges et al., 2011; Glibert et al., 2014). Apart from this, Si was no longer the limiting nutrient in URD6 in 2022, since after sewerage works the innermost estuary was P-deficient. Consequently, the growth of non-siliceous phytoplankton groups (ACA and CbCA, or *K.foliaceum*) was not favoured over diatoms anymore. Taking all this into account, the higher contribution of FCA to total phytoplankton biomass in 2022 might be considered a recovery sign of the Urdaibai estuary.

The mid-term changes recorded in nutrient concentrations and phytoplankton community after sewerage works in the Urdaibai estuary might have resulted in a change of the ecological status of the estuarine waters as well. In coastal and transitional waters of Basque Country, the water quality and ecological status assessment criteria are stablished by Royal Decree 817/2015, as part of the Eastern Cantabrian Hydrographic Demarcation. Previous studies showed that ammonium, phosphate, and phytoplankton (Chl *a*) have registered "deficient" or "bad" statuses in the inner estuary from at least 2008 and until 2020 (Borja et al., 2021). In the present study (*Annexes*, *Table A4.16* and *Table A4.17*), in accordance with it, ammonium

concentrations were below the "moderate" status from URD3 to URD6 in 2020, registering higher concentrations than the reference "very bad status" in the innermost station. Phosphate registered a "good" status throughout the estuary except in the innermost area, where concentrations were also higher than the reference "very bad status". In 2022, however, due to the significant differences registered in nutrient concentrations, "very good" status was achieved for ammonium and phosphate concentrations throughout the estuary. As for phytoplankton, in 2020 there were "good" or "moderate" statuses in the outer and middle estuary, but "deficient" in URD5 and URD6. In 2022, the decrease of biomass in the outer estuary led to "very good" and "good" statuses in URD1 and URD2, respectively, but the increase in the inner estuary caused "bad" statuses in URD5 and URD6. Therefore, an improvement was registered after the sewerage works in the inner Urdaibai estuarine water status for nutrient concentrations, confirming what *Chapter 2* anticipated, but not for phytoplankton.

These results are a clear example that although phytoplankton biomass (Chl *a*) is commonly employed (e.g., WFD or MSFD) as an indicator of eutrophication (Bricker et al., 1999) because it provides consistent insights on a stressed area, it should be monitored with phytoplankton assemblage changes (Niveditha et al., 2022). If the mid-term effect of the sewerage works in the Urdaibai estuary on phytoplankton had been evaluated just based on biomass, the results would have been negative due to the Chl *a* increase in the inner estuary, although this increase was the result of a community composition shift that might indicate recovery. The study of phytoplankton assemblages by microscopy might be too time-consuming (Wang et al., 2018), dependent on personal taxonomic skills, and difficult to intercalibrate (Muñiz et al., 2020) to be applied in international monitoring programs with intensive samplings together with Chl *a*. Nevertheless, pigment analysis was proven efficient for studying phytoplankton community composition (e.g., Chai et al., 2016; Damar et al., 2020). Indeed, in the present study, the use of diagnostic pigments through *PIGMENTUM* was found to be very useful for estimating the impacts of nutrient loading changes on the phytoplankton community composition of the Urdaibai estuary, including groups containing small and fragile cells underestimated by other procedures (Jeffrey et al.,1997) and based on a larger volume analysed (Agirbas et al., 2015). This provided insights into the potential ecological implications that this sewerage works could have, which would not have been possible with Chl *a* concentrations only, since alterations in phytoplankton community structure may have cascading effects on higher trophic levels (Baum and Worm, 2009). Thus, as stated by several previous authors (Ferreira et al., 2011; Van Meerssche and Pinckney,

2019), water quality criteria based on phytoplankton abundance should also include consideration of community composition.

5. Conclusion

Overall, the cessation of wastewater discharges coming from Gernikas' WWTP to the Urdaibai estuary had significant medium-term effects on the system. Ammonium and phosphate concentration decreased significantly, achieving "very good" statuses throughout the entire estuary (Royal Decree 817/2015) and leading to changes in nutrient ratios. These loading changes had a direct effect on phytoplankton biomass and community composition. In the outer and middle estuary, phytoplankton biomass decreased significantly due to lower nutrient concentrations, while in the surroundings of the WWTP, biomass increased after the sewerage works, probably because the excessive ammonium loadings coming from the WWTP discharges might have been causing phytoplankton growth suppression in the area. This biomass increase led to the deterioration of the waters in URD5 and URD6, recording "bad" ecological statuses according to phytoplankton (Royal Decree 817/2015). As for community composition, two significant changes were recorded after the sewerage works: PrCA contribution to total phytoplankton biomass increased from URD1 to URD4 and, in the inner Urdaibai estuary (especially URD5–URD6), there was a shift from mainly flagellates (ACA and CbCA) to diatoms (FCA) that might indicate the recovery of the area. These changes might have potential ecological implications in the near future, since phytoplankton community composition changes may have effects throughout the trophic chain. Thus, phytoplankton dynamics in the Urdaibai estuary should be further studied to determine whether the medium-term changes detected will remain over time or if, on the contrary, new alterations will appear in the future. Additionally, *PIGMENTUM* was proven a useful tool for studying community composition and its variability, recording contribution changes of groups like PrCA, contain picoplanktonic organisms, that would have been ignored with microscopy.

V. EZTABAIDA OROKORRA

Ikerketa honek, Gernikako araztegiaren hondakin-urak Urdaibai estuariora isuri bitarteko fitoplankton-komunitatearen jarraipen intentsibo baten datuak (2019-2020) eta saneamendu lanen osteko datu eguneratuagoak (2021 eta 2022) biltzen ditu. Gainera, fitoplankton jarraipen hauetan, teknika ezberdinak aplikatu ziren komunitatearen biomasa eta osaera ezagutzeko (mikroskopia, pigmentuen analisia eta DNA metabarcoding-a, hain zuzen ere), fitoplankton-komunitatearen deskribapen osoagoa eskainiz eta teknika hauen erabilgarritasunaren konparazioa ahalbidetuz.

Jarraipen hauek izan ditzaketen mugak alde batera utziz (saneamendu lanak amaitu eta urtebete osteko datuak soilik daude eskuragarri eta ez da bestelako aldagai biotikoen inguruko daturik kontutan hartzen), ikerketa honek funtsezko informazioa lortzeko aukera eman du. Lortutako fitoplankton-komunitatearen inguruko datuek, honen aldakortasunaren eta estuarioaren baldintza fisiko-kimikoen arteko harremanen deskribapenak eta saneamendu lanek estuarioan izandako eraginaren inguruko informazioak, Urdaibai estuarioan aurretik egindako lanak osatu eta eguneratzen lagundu dute. Hori dela eta, ikerketa hau oso erabilgarria izan daiteke etorkizunean egingo diren ikerketen oinarri gisa, batez ere helburu ekologikoetara zein saneamendu lanen eragina aztertzera bideratutako fitoplanktonaren inguruko ikerketentzako, baina baita bestelako diziplinarteko ikerketentzako ere. Gainera, tesi honek, Urdaibai estuarioaren fitoplankton espezie-aberastasunaren inguruko informazio berria eskaintzen du, eremuan eDNA metabarcoding-a lehendabiziko aldiz erabiltzearen ondorioz, eta pigmentuen analisian oinarritutako fitoplanktonaren azterketarako tresna berri

bat (*PIGMENTUM*) proposatu eta aplikatzen du, tesian zehar aurkitutako beharrak asetzeko helburuz garatu zena baina eremu itsastar zein ur gezetan erabiltzeko balio duena.

1. Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitatea

Estuarioko fitoplankton-komunitateek, mareen zikloetan zehar gertatzen den itsasoko uraren eta ur gezaren nahastearekin lotutako denboran eta espazioan zeharreko aldakortasuna pairatzen dute (Cloern et al., 2017). Estuario batzuetan, Urdaibain adibidez, neurri batean aurreikus daitezkeen aldakuntza zikliko hauek, giza jardueren (estuariora hondakin-urak isurtzea, esaterako) ondorioz aldaketak jasan ditzakete. Orokorrean, Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitatean ikusitako aldakortasuna, mareen eraginak eta Gernikako araztegiko hondakin-uren isurketek eragindako estuarioan zeharreko gazitasun gradiente handiek eta mantenugai ez-organikoen eskuragarritasun-aldaketek azaltzen dute, urtarokotasunarekin batera (*1. Kapitulua*, *2. Kapitulua* eta *4. Kapitulua*).

Urdaibai estuarioko fitoplankton biomasak, espero zen urtarokotasuna eta aldakortasun espaziala erakutsi zuen 2019-2020 bitartean (adibidez, Ansotegui et al., 2001). Urtean zeharreko biomasaren aldakortasunari dagokionez, Bizkaiko Golkoko estuarioetan (Seoane et al., 2005) eta beste gune epeletan (Domingues et al., 2007) aurkitzen den ohiko zikloa jarraitu zuen, udazkenean eta neguan biomasa balio baxuak eta udaberrian eta udan balio altuak lortuz. Eskualde honetan, udaberrian eta udan ur-tenperatura altuagoak, eguzki-erradiazio (eta argi-eskuragarritasun) handiagoa eta ibai-emari txiki edo moderatuak egon ohi dira, estuarioetako fitoplanktonaren hazkundea erraztuz. Biomasa baliorik baxuenak, ordea, prezipitazio eta ibai emari handieneko sasoietan erregistratu ziren, baldintza hauek Chl *a*-ren diluzioa eragiten baitute (Du et al., 2017), bereziki, Oka ibaiaren izaera torrentzialaren ondorioz eurite puntualen ondoren estuarioa ia erabat hustu egiten dela kontuan izanda. 2019-2020 bitartean ikusitako biomasaren urtarokotasun hau hurrengo fitoplanktonaren jarraipenen plangintzarako kontuan hartu zen, azterketa-aldia martxotik urrira arte murriztuz, biomasa altuko sasoia hartzeko asmoz.

Estuarioko biomasaren aldakortasun espazialari dagokionez, 2019-2020an ikusitako ereduak 90eko hamarkadan deskribatutakoa bezalakoa izaten jarraitzen zuen (adibidez, Orive et al., 1998; Ansotegui et al., 2001), kanpoaldean balio baxuenak erregistratuz eta estuarioaren barrualdera hurbildu ahala handituz. Hau, estuario askoren ohiko Chl *a* banaketa-eredua da (McGarrigle et al., 2001; Santos et al., 2022), fitoplanktonaren hazkuntza arautzen duten

faktoreek (adibidez, mantenugaiak eta argi eskuragarritasunak edo bazkak) eraginda. Araztegiak hondakin-urak (eta mantenugaiak) isuri arren, mantenugai falta izan liteke Urdaibai estuarioko kanpoaldeko eremuan biomasa balio baxuak aurkitzearen arrazoi nagusia, mareek eragindako diluzio-efektuagatik eta Euskal Kostaldearen izaera oligotrofikoagatik (Muñiz et al., 2019). Estuarioaren barrualdeko mantenugaien kontzentrazio altuagoek (araztegitik zein Oka ibaitik etorritakoak), ordea, fitoplanktonaren hazkundea suspertu eta bertan aurkitutako biomasa balio altuagoak azaltzen ditu (McCabe et al., 2016; Vajravelu et al., 2018). Gainera, 2019-2020 artean ikusitakoaren arabera (*1. Kapitulua*), estuarioaren barrualdean aurkitutako uhertasun handiagoak ez zuen fitoplanktonaren hazkuntza oztopatzen.

Komunitatearen osaerari dagokionez, oro har, 2019-2020an deskribatutako Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitatea (*1. Kapitulua* eta *4. Kapitulua*) 90eko hamarkadan deskribatutakoaren antzekoa da (Madariaga et al., 1989, 1994; Orive et al., 1995, 1998; Trigueros eta Orive, 2001). Estuarioaren kanpoko eremua zen taxon-aberastasun handieneko eremua eta komunitatean diatomeoak ziren nagusi, dinoflagelatuen eta haptofitoen ohiko agerpenarekin, eta barrualderantz joan ahala flagelatuen nagusitasuna areagotzen zen, batez ere kriptofitoena, baita alga berdeena eta *Kryptoperidinium foliaceum*-ena ere. Gainera, ikerketa honek, estuarioko organismo nano- eta pikoplanktonikoen ugaritasuna eta dibertsitatea agerian utzi du, DNA metabarcoding-a jarraipen-teknika gisa aplikatzeari esker, aurretik Urdaibai estuarioan identifikatuak izan ez diren tamaina txikiko espezie askoren presentzia ezagutzera eman baitu (*1. Kapitulua*).

Saneamendu lanak burutu baino lehen (2019-2020), Urdaibai estuarioko kanpoko eta erdiko eremuan fukoxantinadun algak (FCA), batez ere diatomeoak, ziren nagusi, hau munduan zeharreko estuario askotan ohikoa izanik, hala nola, Rio de la Platan (Gómez et al., 2004) eta Sadoko estuarioan (Santos et al., 2022). *Minutocellus polymorphus* eta *Chaetoceros tenuissimus* izan ziren eremu honetan loraketak sortzen zituzten diatomeorik garrantzitsuenak (*4. Kapitulua*), Mediterraneo Itsasoko eta Ozeano Atlantikoko estuarioetan eta kostaldeko uretan egon ohi diren organismo kosmopolita txikiak (Walsh et al., 1988; De Luca et al., 2019). Gainera, teknika molekularrek laginketa guztietan agertzen ziren beste diatomeo batzuen presentzia agerian utzi zuten, hala nola *Minidiscus variabilis* eta *Mediolabrus comicus* URD1-en eta *Thalassiosira profunda* URD2-n, estuarioan lehen aldiz identifikatu zirenak (*1. Kapitulua*). Kanpoko eremuan, diatomeoez gain, dinoflagelatuen eta haptofitoen ugaritasuna ere nabarmena izan zen, estuarioko handiena izatez, eta PeCAk (peridininadun

algak) eta HCAk (19'-hexanoiloxifukoxantinadun algak) fitoplankton biomasa totalari egindako ekarpen balio handienak ere eremu honetan aurkitu ziren, *Warnowia* sp., *Heterocapsa* spp. (bereziki *H. pygmaea* eta *H. rotundata*) eta *Gyrodinium* spp. (*G. fusiforme, G. dominans* eta *G. spirale*) bezalako dinoflagelatuen eta *Chrysochromulina* spp. (batez ere *C. scutellum* eta *C. rotalis*), *Prymnesium* spp. and *Phaeocystis* spp. (*P. cordata* nagusiki) bezalako haptofitoen etengabeko agerpenarekin. Hau, bi talde hauek osatzen dituzten espezie gehienen izaera itsastarrak eta mixotrofikoak azaltze du, azken honek mantenugai gutxiko eskualdeetan hazteko gaitasuna eskaintzen dielarik (Unrein et al., 2014; Zhang et al., 2013). Estuarioaren erdialdeko eremuan, ordea, hondakin uren isurketak egon bitartean, diatomeoekin batera kriptofitoak ugariak ziren (aloxantinadun algak, ACA), *Plagioselmis* spp. eta *Teleaulax* spp. bezalako taxoiak garrantzitsu bihurtuz.

Estuarioaren erdiko eremutik barrualderantz hurbiltzerakoan, ACA zen 2019-2020an fitoplankton biomasa totalari ekarpen handiena egiten zion taldea, kriptofitoen ugaritasunaren gorakadagatik. Estuarioan aurkitutako kriptofitoen artean, batzuek gazitasun altuko eremuekiko lehentasuna erakutsi zuten, hala nola, *Teleaulax amphioxeia* eta *Teleaulax gracilis*, eta beste batzuen agerpena estuarioaren barrualdeko eremura mugatu zen, *Hemiselmis cryptochromatica*, *Teleaulax acuta* eta, batez ere, *Urgorri complanatus* bezalakoak. Jakina da kriptofitoak eutrofizatutako estuario askoren barne-eremuko talde nagusia direla (adibidez, Valdes-Weaver et al., 2006; Santos et al., 2022), non argi intentsitate baxuetan (ur uherretan) fotoaklimatatzeko duten gaitasunagatik (Collini, 2022), hazkunde-tasa altuak izateagatik (Paer et al., 2003), amonioz aberastutako uretan erraz hazteagatik (Horner eta Thompson, 2001) eta izaera mixotrofikoa izateagatik (Johnson et al., 2013) diatomeoak bezalako beste talde batzuk baino arrakasta handiagoz hazten diren. Kriptofitoek Urdaibai estuarioko barruko eremuan duten nagusitasun hau eremuan egindako aurreko ikerketetan jasota zegoen arren (Madariaga, 1995; Orive et al., 1998; Ansotegui, 2001), 2019-2020an talde honek erakutsitako nagusitasuna 90eko hamarkadan ikusitakoa baino nabarmenagoa izan zen, horrek estuarioaren eutrofizazio maila handitu dela adierazi dezakeelarik.

Kriptofitoez gain, saneamendu lanen aurretik, estuarioaren barrualdeko eremuan, CbCA taldeak (prasinoxantinarik gabeko alga berdeak) fitoplankton biomasa totalari egindako ekarpena ere aipatzekoa da, batez ere uda garaian eta URD5 eta URD6 eremuetan. Bertan, *Eutreptiella* spp. bezalako euglenoideak eta hainbat klorofita, *Tetraselmis* spp. edo *Picochlorum* spp. eta *Nannochloris* sp. bezalako organismo picoplanktoniko kokoideak

esaterako (*1. Kapitulua*), izan ziren Chl *b*-aren ekarpen handiena egiten zuten organismoak. Euglenoideak mantenugaietan aberatsak diren sakonera gutxiko eta argi gutxiko uretan hazteko gai dira (Poniewozik eta Juráň, 2018), duten ugalketa azkarragatik eta izaera mixotrofoagatik. Klorofito txikiei dagokienez (<5 μm), amonioa hartzeko afinitate bereziki handia dute (Litchmann et al., 2007; Laruste et al., 2016), eremu horretan hondakin uren isurketak egon bitartean oso ugaria zena. Gainera, araztegiaren inguruan, FCA zen biomasa totalari ekarpen handiena egiten zion hirugarren taldea, *Kryptoperidinium foliaceum* fukoxantinadun dinoflagelatuaren eta diatomeo txikien agerpenagatik. *K. foliaceum*-ek, Urdaibai estuarioaren barnealdeko espezie bereizgarrienetakoa (Ansotegui et al., 2001; Trigueros et al., 2000b), Si-aren sarrerarik gabeko N-aren aberasteari positiboki erantzuten dio (Domingues et al., 2011) eta, beraz, eremu honetan aurkitzen zen bere ugaritasun altua estuarioak jasaten zuen mantenugaien aberaste antropogenikoaren adierazlea da. Barrualdeko eremuan agertzen ziren diatomea txikiei dagokienez, *Navicula phyllepta* eta *Navicula gregaria* pennatu epipelikoak eta *Cyclotella* spp. bezalako diatomeo zentrikoak esaterako, FCAri egindako ekarpena mugatua zen saneamendu lanen aurretik (2019-2020).

Honenbestez, orokorrean, Urdaibai estuarioko kanpoaldeko eta erdialdeko fitoplankton-komunitateak ez zuen, itxuraz, Gernikako araztegiaren isurketen ondoriorik pairatzen, 2019-2020an estuario epeletan ohikoak diren biomasa eta osaera erakutsiz, ziurrenik isurketa-eremutik dagoen distantziagatik eta horren ondoriozko diluzio-efektuagatik. Aitzitik, estuarioaren barrualdeko komunitatearen osaera (kriptofitoak bezalako organismo flagelatu txikien nagusitasunarekin), presio antropogenikoen ondorioz eutrofizatuta dauden estuarioetan ohikoak diren komunitateen antzekoa zen (e.g., Smayda, 1990; Glibert et al., 2011). Kanpoaldean diatomeoak egotetik barrualdean flagelatuen nagusitasuna izatera (ACAen nagusitasuna, CbCA eta *K.foliaceum*-en presentzia altuarekin batera) pasatzearen arrazoi nagusienetako bat araztegiaren isurketek eragindako mantenugai ratioen aldaketak izan daitezke. Isurketek, DIN:Si eta DIN:P erlazioak handitzen zituzten eta, ziurrenik, N eta P aberasteak aprobetxatuz alga ez-silizikoak pixkanaka nagusitzen joan ziren (Tréguer eta De La Rocha, 2013; Jiang et al., 2014), diatomeoek ordea, ez zuten mantenugai aberaste hau erabiltzeko aukerarik, haien hazkuntza Si-agatik mugatuta egoteagatik, bereziki URD6n, non saneamendu lanen aurretik Si eskasi nabarmena zegoen (*4. Kapitulua*).

2021eko uztailean, 50 urtez Urdaibai estuarioaren barruko eremura hondakin-urak isuri ostean, Gernikako araztegiko efluentea estuariotik kanpo desbideratu zen, kolektore baten bidez Bermeoko Lamiaran araztegira eramanez. Ikerketa honen bidez, saneamendu lanek

Urdaibai estuarioko fitoplankton biomasan eta komunitatearen osaeran izandako berehalako (*2. Kapitulua*) eragina eta, batez ere, epe-ertaineko (*4. Kapitulua*) efektua ikusi da, gehienbat baldintza fisiko-kimikoen eta, batez ere, nutrienteen eskuragarritasun aldaketei erantzunez.

Araztegiko efluentea estuariotik kanpo desbideratu eta berehala (*2. Kapitulua*), amonio eta fosfato kontzentrazioak nabarmen gutxitu ziren (% 50 baino gehiago) estuarioaren erdiko eta barneko eremuan, jakina baitzen Gernikako araztegia zela estuarioko mantenugai hauen gehiegizko aberastearen erantzule nagusia (Iriarte et al., 1997; Revilla et al., 2000; Iriarte et al., 2015). Honi esker, Urdaibai estuarioko uraren kalitatea hobetu egin zen, adierazle fisiko-kimikoei dagokienez, 817/2015 Errege Dekretuan ezarritako irizpideen arabera. 2020ra arte estuarioaren barruko eremuak ingurumen-helburuak bete izan ez arren, adierazle fisiko-kimikoen (amonio eta fosfatoa) eta fitoplanktona bezalako adierazle biologikoen ondorioz egoera ekologiko "eskasa" edo "txarra" lortuz (Borja et al., 2021), saneamendu lanak amaitu eta hilabetera, amonio eta fosfato kontzentrazioek uraren egoera "ona" adierazi zuten estuario osoan zehar. Gainera, estuarioaren baldintza fisiko-kimikoetan beste aldaketa txiki batzuk ere egon ziren, hala nola, uhertasunaren jaitsiera eta oxigeno-saturazioa handitzea, baina ez ziren erabat esanguratsuak izan ikerketa-tarte honetan.

Ingurune aldakorretan, fitoplankton-komunitatearen osaera aldatu egiten da taxonen lehiakortasun-gaitasun ezberdinen ondorioz (Cardinale et al., 2011). Urdaibaiko estuarioaren barruko eremuko komunitatearen osaerak saneamendu lanekiko berehalako erantzuna erakutsi zuen. *Eutreptiella* spp.-ren hazkuntza bizkor eta nabarmenak Chl *b*-ren gorakada eragin zuen, barrualdeko eremuan pigmentu diagnostiko nagusia bihurtuz, eta, ondorioz, aloxantinak eta fukoxantinak garrantzia galdu zuten, kriptofitoen ugaritasuna murriztuz eta *K. foliaceum*-en ia erabateko desagerpenarekin. *Eutreptiella* generoak loraketak sortzen ditu elikagaietan aberatsak diren kostaldeko eta trantsizioko uretan (adibidez, Olli et al., 1996; Stonik et al., 2007) eta, normalean, kriptofito eta dinoflagelatuak bezalako bestelako flagelatuekin batera agertzen da (adibidez, Jeong et al., 2021). Honenbestez, komunitatearen berehalako aldaketa honek ez zuen estuarioko uraren kalitatearen hobekuntza adierazi. Euglenoideak ingurune-baldintzen aldaketekiko oso sentikorrak dira eta populazioak oso azkar hazten edo desagertzen dira (Heckman et al., 1996), beraz, litekeena da saneamendu lanen ondoren araztegiaren inguruan gertatutako aldaketa fisiko-kimikoek *Eutreptiella* spp.-ri kriptofitoekin edo/eta *K. foliaceum*-ekin lehiatzeko abantaila eman izatea, bere hazkundea azkartuz. Gainera, estuarioko biomasak ere berehalako aldaketa arinak jasan zituen, tarteko eremuan pixka bat gutxituz eta araztegiaren inguruan handituz, ziurrenik mantenugaien

sarrerak murrizteagatik (adibidez, Wetz et al., 2011), baina aldaketa horiek ez ziren guztiz esanguratsuak izan.

Hondakin-urak estuariotik kanpo desbideratu eta urtebetera, 2022an, aldaketa nabarmenagoak nabaritu ziren Urdaibai estuarioan (*4. Kapitulua*). Gainera, baldintza hidrometeorologikoek eta estuarioko gazitasunak eta tenperaturak ez zuten ezberdintasun adierazgarririk erakutsi 2020 eta 2022an aztertutako denbora tartean eta, beraz, aurkitutako aldaketak estuarioko saneamendu lanek eragindakoak izan zitezkeela ondorioztatu da.

Hondakin-uren desbideratzea egin eta berehala (2021) ikusi zenarekin bat eginez, 2022an, 2020arekin alderatuz, amonio eta fosfato kontzentrazioen beherakada nabarmena izan zen Urdaibai estuario osoan zehar. Kontzentrazioen beherakada honekin, 2022an estuarioko egoera ekologikoa hobetu zen, adierazle fisiko-kimikoei dagokienez, estuario osoan zehar egoera "oso ona" lortuz (817/2015 Errege Dekretua). Mantenugaien beherakada hau bereziki nabarmena izan zen amonioaren kasuan, DINaren (disolbatutako nitrogeno organikoa) beherakada ere eraginez. Estuario eta kostaldeko uren mehatxu handiena gehiegizko N-aren aberastea izanda (Howarth eta Marino, 2006), Urdaibain geratutako N-aren beherakada handiagoa onuragarria izan beharko litzateke sistemaren osasunerako. Bestetik, espero bezala, nitrato eta silikato kontzentrazioek, estuariora iturri naturaletatik heltzen direnak (Turner et al., 2003; Valencia eta Franco, 2004), ez zuten alde handirik erakutsi saneamendu lanen ondoren. Hala ere, mantenugaien jatorriaren araberako karga-aldaketen desberdintasun horrek estuarioko DIN:Si:P ratioetan aldaketak eragin zituen. 2022an, gehiegizko DIN kontzentrazioak zeuden oraindik Urdaibai estuario osoan zehar, nahiz eta saneamendu lanek desoreka hori leundu zuten. Ondorioz, estuarioaren kanpoko eremuan Si falta zegoen eta URD2tik URD5era P eskasiak mugatzen zuen fitoplanktonaren hazkuntza, 2020an bezala. Araztegiaren inguruan (URD6) ordea, hondakin-uren isurketak egon bitartean Si falta zegoen arren, saneamendu lanen ondoren P bihurtu zen fitoplanktonaren hazkuntzaren mugatzailea.

Mantenugai sarreren eta ratioen aldaketek fitoplankton-komunitateen aldakortasuna eragin ohi dute (Lie et al., 2011; Wu et al., 2017a), Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitatearekin gertatu den bezala. Saneamendu lanak amaitu eta urtebetera, 2021ean aurreikusitako aldaketa batzuk (*2. Kapitulua*) nabarmenagoak izan ziren, hala nola fitoplankton biomasa totalaren aldakuntza. Urdaibai estuarioko kanpoko eta erdiko eremuan, Chl *a* kontzentrazioa eta fitoplankton-loraketen ($7{,}5x10^5$ zelula L^{-1} baino gehiago; Revilla et al., 2009) kopurua nabarmen jaitsi zen saneamendu lanen ostean. Hau DIN eta P-ren

jaitsierarekin azaldu daiteke, izan ere, honek fitoplankton hazkundearen murrizketa eragin (adibidez, Beardall et al., 2001) eta, aldi berean, loraketak sortzeko gai diren taxonen arteko lehia sustatu zuen, mantenugai eskuragarritasuna mugatuagoa izateagatik, loraketen kopurua murriztuz. Araztegiaren inguruan ordea, *4. Kapituluko* emaitzetan ikusitakoaren arabera, pentsa daiteke hondakin-uren isurketak zeuden bitartean amonio sarrera altuegiek eremuko fitoplanktonaren hazkuntza oztopatzen zutela (Dugdale et al., 2007), biomasaren igoera adierazgarria izan baitzen saneamendu lanak burutu eta urtebetera. 2020an, saneamendu lanak baino lehen, URD6-ko amonio-kontzentrazioaren mediana 153 μmol L^{-1}-koa zen (65–334 μmol L^{-1} bitarteko balioak), fitoplanktonaren hazkuntza ekiditeko nahikoa (Glibert et al., 2016); 2022an ordea, 10 μmol L^{-1}-era jaitsi zen (24 μmol L^{-1} gehienez), fitoplanktonaren hazkuntza egokia ahalbidetuz. Are gehiago, baldintza hipertrofikoak adierazten dituzten Chl *a* kontzentrazioa altuak (Hagy et al., 2022) maiztasun handiagoz aurkitu ziren estuarioaren barruko eremuan saneamendu lanen ondoren (*4. Kapitulua*), 251,5 μg L^{-1}-ko Chl *a* maximora iritsiz. Saneamendu lanen ondoren araztegiaren inguruan fitoplanktonaren hazkuntza areagotzeko beste arrazoi bat, hondakin-uren isurketak eteteak eragindakoa materia-partikulatuaren sarreren murrizketa, eta ondoriozko argi-eskuragarritasun handiagoa, izan daiteke (Carey eta Migliaccio, 2009), nahiz eta 2020an ez zirudien uhertasunak fitoplanktonaren hazkuntza oztopatzen zuenik (lortutako Chl a balio altuengatik). 2020an eremuko uren uhertasunak jaitsiera esanguratsurik erakutsi ez izanak ez du esan nahi gertatu ez denik, izan ere, posibleena da fitoplankton biomasaren hazkuntzak uraren uhertasuna handitu eta aldaketa hau estali izana. Hala eta guztiz ere, eta araztegiaren inguruan ikusitako fitoplankton biomasaren igoerak emaitza positiboa zirudien arren (amonioak jada ez zuelako hazkundea oztopatzen), URD5 eta URD6an egoera ekologikoa okerragotzea eragin zuen, Chl *a*-rentzat egoera "txarra" lortuz (Errege Dekretua 817/2015).

Fitoplankton-komunitatearen osaerari dagokionez, hondakin-uren isurketak gelditu eta urtebetera, estuarioaren kanpoko eremuan (URD1) ez zen aldaketarik ikusi, araztegiaren isurketek eremu honetako fitoplanktonean zuten eragina txikia edo hutsa zela baieztatuz. Gainera, *4. Kapituluan* frogatu zen saneamendu lanak burutu eta berehala estuarioaren barrualdean egondako CbCA-ren bat-bateko igoera (*2. Kapitulua*) aldaketa puntuala izan zela, ez baitzen 2022ra arte luzatu. Hala ere, 2022an, Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitatean bi desberdintasun esanguratsu ikusi ziren, *2. Kapituluan* aurreikusi ez zirenak: prasinoxantinadun prasinofitoek (PrCA) biomasa totalari egiten dioten ekarpenaren handiagotzea (URD1-URD4) eta FCAen garrantzi handiagoa estuarioaren barruko eremuan (URD3-URD6).

Urdaibai estuarioan PrCAen gorakada nabarmena eman zen saneamendu lanen ostean, URD1etik URD4ra, estuarioaren erdiko eremuan, adibidez, biomasa totalari egiten zion ekarpena bost aldiz handiagoa izanik (Chl *a*-ren % 5 izatetik % 25 izatera). PrCAen parte diren organismo gehienak frakzio pikoplanktonikoari dagozkio (<3 μm-ko diametroa duten zelulak) (Guillou et al., 2004), haien mikroskopia bidezko identifikazio eta kuantifikazioa ezinezkoa izanik (adibidez, Ansotegui et al., 2003). Hala ere, DNA metabarcoding-ak, *Bathycoccus prasinos*, *Micromonas* spp. (*M. bravo*, *M. commoda* eta *M. pusila*) eta *Ostreococcus* spp. (*O. lucimarinus*, *O. mediterraneus* eta *O. tauri*) identifikatu zituen 2019-2020an Urdaibai estuarioko PrCA taxon garrantzitsuenak bezala (*1. Kapitulua*) eta, *PIGMENTUM* bidezko HPLC pigmentuen analisiak, 2022an PrCA taldeak pairatu zuen hazkunde nabarmena zehaztea ahalbidetu du (*4. Kapitulua*). Organismo hauek duten azalera:bolumen erlazio altuari, hazkunde-tasa eraginkorrari eta mantenugaiak bereganatzeko-tasa altuari (Paerl et al., 2003) esker, PrCA beste fitoplankton talde funtzional batzuk baino lehiakorragoa da mantenugaiak hain ugariak ez direnean (Glibert et al., 2010). Honek azaldu lezake Urdaibai estuarioan saneamendu lanen ondoren egondako gorakada, baita antzeko hobekuntza lanak jasan dituzten beste ekosistema batzuetan agertu izana ere (Leruste et al., 2016). Hala ere, estuarioetako PrCAen lehentasun ekologikoen eta aldakortasunari buruzko ezagutza mugatua da, izan ere, haien izaera nagusiki pikoplanktonikoa dela eta, mikroskopian oinarrituta jarraipen gehienetan alde batera uzten da, *Pyramimonas* bezalako Pras-ik ez duten prasinofito handiagoetan zentratuz. Beraz, Urdaibai estuarioaren PrCAen ugaritze hau gehiago aztertu beharko litzateke, estuarioko fitoplankton biomasa totalaren zati garrantzitsua izaten jarraituko duen jakiteko eta gorakada honen erantzuleak diren taxoiak zehazteko.

Saneamendu lanen ostean Urdaibai estuarioko barneko eremuan ikusitako FCAen igoera, batez ere URD5n eta URD6n, sistemaren berreskurapen seinale gisa interpretatu liteke. 2019-2020an, aurretik esan bezala, Urdaibai estuarioaren barnealdeko eremuan, flagelatuak batez ere ACA) ziren nagusi, eta FCA taldean, biomasari ekarpena nabarmena egiten ziona, *K. foliaceum* dinoflagelatua zen taxonik ugariena, diatomeoen ekarpena txikia izanik. Hala ere, saneamendu lanen ondoren ikusitako FCAaren igoera (ACA eta CbCAren ekarpenak gutxituz) diatomeoen ugaritasunaren gorakadaren ondoriozkoa izan zen (adibidez, *Cyclotella* eta *Thalassiosira*). Araztegiko isurketak zeuden bitartean diatomeoen presentzia baxuagoa izatea hondakin-uren amonio kontzentrazio altuekin lotu liteke (Glibert et al., 2011). Fisiologikoki, diatomeo askok N iturri gisa nitratoa nahiago dute amonioaren aldean, eta hau batzuetan beharra bihurtu daiteke, batez ere zelulak energia-desoreka egoeran daudenean

(argi-baldintza aldakorra duten egoeretan adibidez, Urdaibai estuarioaren barrualdean bezala), izan ere, nitratoak mantenugai gisa jardun ez ezik, energia-oreka zelularra mantentzen laguntzen baitu (Lomas eta Glibert, 1999). Beraz, diatomeoen ugaritasunaren areagotzea, amonio-kontzentrazio baxuagoekin eta nitratoaren eskuragarritasun handiagoarekin azal liteke (adibidez, Dominges et al., 2011; Glibert et al., 2014). Horrez gain, saneamendu lanen ondoren, Si jada ez zen URD6n mantenugai mugatzailea, eta, beraz, fitoplankton talde ez-silizikoen (ACA, CbcA edo *K. foliaceum*, adibidez) hazkuntzak ez zeukan abantailarik diatomeoen aurrean. Hori dela eta, estuarioaren barneko eremuan egondako fitoplankton-komunitatearen osaera aldaketa, FCAen (batez ere diatomeoen) ugaritzea eta flagelatuen (ACA eta CbCA) murrizketa, Urdaibai estuarioaren berreskurapen seinaletzat har liteke.

Ikerketa honetan zehar fitoplankton-komunitatean hautemandako aldaketa gehienak mantenugaien kontzentrazioaren edo/eta argiaren eskuragarritasun aldaketekin lotu diren arren, jakina da fitoplankton-populazioen dinamikak hazkuntzaren eta galeren arteko desoreken ondorio direla, galera hauen baitan fitoplanktonaren bazka, hondoratzea eta hilkortasun naturala biltzen direlarik (Brussaard, 2004). Hortaz, badira kontuan hartu ez diren baina Urdaibai estuarioko fitoplankton-komunitatean ikusitako aldaketetan ere eragina izan dezaketen edo aldaketen erantzuleak izan zitezkeen hainbat faktore biotiko, hala nola, birusak (Brussaard, 2004), bakterioak (Seymour et al., 2017) eta bazkatzaileak (Lürling, 2021). Hala ere, ikerketa honek Urdaibai estuarioko baldintza fisiko-kimikoen eta fitoplankton-komunitatearen deskribapen zehatza eskaintzen du, Gernikako araztegiko hondakin-uren isurketak eten aurretik (2019-2020), eta saneamendu lanek estuarioan izandako berehalako eta epe-ertaineko (urtebete geroago) eragina ebaluatzen du, gizakion inpaktu zuzenek edo/eta kudeaketa ekintzek estuario honetan eta antzekoetan izan ditzaketen ondorio ekologiko posibleak ezagutzeko baliogarria izan daitekeena.

2. Fitoplanktonaren jarraipen tekniken analisia

Fitoplanktona uraren kalitatearen adierazle garrantzitsua eta uretako ekosistemen funtzionamendu globala ulertzeko ezinbesteko elementua da, kate-trofikoaren oinarria izateagatik, espezieen bereizketa handiagatik, hazkuntza-tasa altuengatik eta ingurumen-baldintzei erantzuteko duten gaitasunagatik. Hori dela eta, fitoplanktonaren jarraipen asko egin dira helburu ekologikoekin (Diana et al., 2021; Dedman et al., 2022; Chen et al., 2023)

edo uraren kalitatearen ebaluaziorako (Amorim eta Nascimento, 2021; Zhang et al., 2021). Hala ere, jarraipen horietatik lortutako datu-mota eta kopurua erabilitako azterketa-teknikaren araberako da. Ikerketa honetan, Urdaibai estuarioko fitoplanktonaren biomasaren eta komunitatearen osaeraren analisirako hiru teknika ezberdin erabili dira: mikroskopia, eDNA metabarcodig-a eta HPLC bidezko pigmentuen analisia. Hiru metodo hauen konbinazioak estuarioko fitoplankton-komunitatearen ikuspegi integratua eta osoa lortzeko aukera eman du eta teknika bakoitzaren abantaila eta ahulgune nagusiak agerian utzi ditu.

Estuarioko fitoplankton-komunitatearen identifikazio taxonomikoa eta kuantifikazioa egiteko mikroskopia erabili zen, Utermöhl metodoan oinarrituz (Edler eta Elbrächter, 2010). Metodo honek eskaini duen abantaila nagusia identifikazioarekin batera taxonen zenbaketa egiteko aukera izan da, horrela, informazio taxonomikoaz gain, zelula-kontzentrazioen datuak eskuratu baitira, eta, beharrezkoa izatekotan, zelulen tamaina neurtzeko aukera ere eman du (biobolumenen kalkuluak egiteko adibidez). Zelula-ugaritasun datuak bereziki erabilgarriak dira komunitatean loraketak sortzen dituzten taxoiak eta/edo espezie toxikoak aztertzerakoan. Ikerketa honetan, mikroskopiak, Urdaibai estuarioan gertatutako loraketak identifikatzea eta kuantifikatzea ahalbidetu zuen, Revilla et al.-ek (2009) UEZan oinarrituz Euskal kostaldeko fitoplanktonaren egoera ekologikoaren ebaluazioa egiteko ezarritako irizpideak jarraituz (*4. Kapitulua*). Honek, aldi berean, saneamendu lanen ondoren estuarioaren kanpoko eta erdiko eremuetan gertatutako loraketa kopuruaren murrizketa antzematea ahalbidetu zuen, estuarioan egondako aldaketa nagusietako bat dena. Bestetik, ur zutabean fitoplankton toxikoaren ondoriozko “toxikotasun arrisku egoera” markatzen duten muga-balioak ere mikroskopia bidez lortutako zelula-ugaritasun datuetan oinarritzen dira (adibidez, Swan eta Davidson, 2012). Ikerketa honetan, mikroskopiak, estuarioaren kanpoko eta erdiko eremuan *Pseudo-nitzschia* spp.-k eta *Dinophysis* spp.-k toxikotasun muga-balioak hainbat aldiz gainditzen zituztela jakiteko aukera eman zuen, 2022an ere hauen kopurua murriztu zelarik (*4. Kapitulua*). Beste teknikekin identifikatu ez ziren estuarioko taxon garrantzitsu batzuen agerpenari buruzko informazioa ere eskaini zuen, hala nola *Gephyrocapsa huxleyi*, *Prorocentrum micans* eta, bereziki, *K. foliaceum* (*1. Kapitulua*). Gainera, mikroskopia, tradizionalki, fitoplanktonaren biomasa eta dibertsitatea ebaluatzeko gehien erabili izan den teknika izanik, eskuragarri dauden mota honetako ikerketa kopurua gainontzeko teknikena baino handiagoa da, erreferentzia gisa hartu edo/eta konparatzeko lagungarria dena. Horrek, Urdaibai estuarioan lortutako emaitzak perspektiban jartzen lagundu eta ikerketa aberastu du.

Hala ere, askotan, mikroskopia bidezko identifikazio taxonomikoak zehaztasun falta edo espezieen omisioa dakar (Agirbas et al., 2015). Hori dela eta, aztertutako maila taxonomikoa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoak dira mikroskopiaren eta metabarcoding-aren arteko ezberdintasunak Urdaibai estuarioko komunitatea deskribatzerakoan (*1. Kapitulua*). Mikroskopiaren bidezko fitoplankton taxonen identifikazio desegokiak edo omisioak bi arrazoi nagusi ditu: taxon batzuen zelula-tamaina txikia eta hauskortasuna (organismo pikoplanktoniko eta nanoplanktonikoak) (adibidez, Abad et al., 2016) edo/eta antzekoak diren espezieen ezaugarri morfologiko diagnostikoak identifikatzeko ezintasuna teknikaren bereizmen faltagatik (Kim et al., 2019; Santi et al., 2021). Honek azaltzen du Urdaibai estuarioko klorofito, prasinofito eta haptofito espezie askoren identifikazio-eza, baita genero/espezie mailara identifikatu ezinik hainbat diatomeo "identifikatu gabeko diatomeo zentrikoak" edo "identifikatu gabeko diatomeo pennatuak" bezalako taldeetan multzokatzea (*1. Kapitulua*). Are gehiago, saneamendu lanen ondorioz fitoplankton-komunitatean ikusitako aldaketa esanguratsuenetako bat prasinofita pikoplanktonikoen gorakada izan zen (*4. Kapitulua*), jarraipenetan mikroskopia bakarrik erabili izan balitz alde batera utziko zitekeena. Horrez gain, ikerketa askotan aipatu den bezala (Edler eta Elbrächter, 2010), mikroskopia bidez aztertutako bolumena (50 mL) baxua izan da beste teknikekin alderatuz. Gainera, emaitzek ikertzaileen gaitasunen menpekotasun handia erakusten dute (Muñiz et al., 2020) eta laginen analisirako denbora asko behar da (Wang et al., 2018), beraz, ez da guztiz egokia laginketa kopuru handia biltzen dituzten jarraipen-programa internazionaletan erabiltzeko.

eDNA metabarcoding-ak, araztegiak hondakin-urak isuri bitarteko (2019-2020) estuarioko fitoplankton-komunitatearen identifikazio taxonomiko zorrotzagoa egitea ahalbidetu zuen, mikroskopiak baino identifikazio-gaitasun nabarmen handiagoa eskainiz (*1. Kapitulua*). Teknika honek, DNAn oinarrituz, ingurumen-laginetako taxon guztien aldi-bereko identifikazioa ahalbidetzen du (Keck et al., 2017; Zimmermann et al., 2015), biodibertsitatearen informazio kantitate handia sortuz, espezieak edozein bizitzako fasetan identifikatzeko gai delako eta espezie kriptikoak eta metodo tradizionaletan aintzat hartzen ez diren espezieak identifikatzeko aukera ematen duelako (Comtet et al., 2015). Ikerketa honetan, metabarcoding-ak mikroskopia bidez identifikatu ez ziren 349 fitoplankton taxonen presentzia hauteman zuen, eta horietatik 273 (223 espezie) lehenengo aldiz identifikatu ziren Urdaibai estuarioan, besteak beste, 77 diatomeo espezie, 50 dinoflagelatu, 40 alga berde, 15 kriptofito, 13 haptofito. Hori dela eta, ikerketa honetan metodo hau erabili izanak Urdaibai estuarioko organismo pikoplanktonikoen eta espezie kriptikoen inguruko ezagutza baliotsua

eskaini zuen. Honek argi erakutsi du azterketa morfologikoek bakarrik ezin dutela fitoplankton dibertsitate handiaren deskribapen osoa eman (adibidez, Huo et al., 2020; Penna et al., 2017). Gainera, eDNA metabarcoding-aren emaitzak lortzeko aztertutako lagin-bolumena handiagoa izan da (2 L inguru) (adibidez, Gran-Stadniczeñko et al., 2019), horrek aberastasun taxonomiko handiagoa lortzen lagundu duelarik, eta emaitzak ez dira ikertzailearen taxonomia-ezagutzen hain menpekoak izan (Penna et al., 2017; Trebitz et al., 2017), Tara Oceans Expedition bezalako itsas-inguruneko nazioarteko proiektuetan izan duen aplikazio arrakastatsua azalduz (Malviya et al., 2016).

